

Barrena

JAIK

Egitarau bete-beteekin, jaietan murgildu dira Ermuan, Soraluzen eta Mendaron / 11-32



KULTURA

'Begiradak' ikuskizuna egingo dute gaur Deban, herriko hogei bat sortzailek ondutakoa / 33

Haritz Euskal Dantzari Taldeko dantzariak, iaz, Nazioarteko Folklore Jaialdiaren baitan egin zuten dantzaldiaren une baten.

Elgoibar, Txileko, Guam uharteko eta Bizkaiko dantzen agertoki

Haritz Euskal Dantzari Taldeak antolatuta, Nazioarteko Folklore Jaialdia izango dute Elgoibarren uztailaren 24an, Maalako parkean / 4

ASIER ORBEA

HERRIGINTZA

Galerna Festa ospatuko dute Deban asteburuan, gaur, ostirala, hasita

Gazte Asanbladak antolatu du, festa eta aldarrikapena uztartuta, kuadrillen arteko harremanak sendotzeko / 34



NEREA BEDIAUNA ALKORTA

ESKUBALOIA

Zilarrezko Ohorezko Mailako Guadalajara taldeak fitxatu du Julen Urruzola jokalaria elgoibartarra / 6



ASIER ORBEA

Adin txikiko pertsona askok harrera-familia bat behar dute. Eta familia askok erantzuna eman diezaiokete egoera horri. Baina ez dute deitzen uste dutelako ez datozela bat perfilarekin. Horregatik, deitu aurretik zalantzak argitzen dituen lehen telefono zenbakia sortu dugu. Zure familia 6, 8, 2, 5, 4 edo 3 kidekoa izatea berdina duelako. Garrantzitsuenak delako, bakarrik haziko den adin txikikoen egotea. Deitu ezazu.

682554433

GIPUZKOA
Foru Aldundia

NIRE USTEZ

FikzioAA



ARKAITZ URANGA
ITZULTZAILEA

Ez dira horrenbeste urte *Black Mirror* telesaila ikusi eta gorputzaldi txarrarekin geratzen ginenetik, edota *Her* filma amaitu eta kredituak pasatzen ari zirela minutu batzuk sakonean murgilduta ematen genituenetik. Fikziozko ekoizpen horietan ikusten genuena distopikoa bazen ere, bazituzten gure bizitzen antzekotasunak, eta horrexek eragiten zigun, hain zuzen, ezinegon puntu hori. Azkenaldian, ordea, *play*-ari eman gabe ere sentitzen ari naiz antzerako zerbait.

"Hasieran
erantzunak ematen
zituen tresna hori
ezinbesteko bilakatu
da askorentzat"

informazioa bilatzeko eta kontrastatzeko, gomendioak eta aholkuak jasotzeko, eta beste horrenbestetarako. Harrigarria da nola sistema horiek, pare bat urteren buruan, Google bilatzailea bezain funtsezkoak diren –edo zirela pentsatzen genuen– tresnak erabat ordezkatu dituzten.

Ez dakit, ordea, zein puntura arte hausnartzen dugun horrek dakarrenaren inguruan. Erabat txundituta uzten gaitu zeinen azkar eta ongi erantzuten digun *Chat*-ik –nola ez, gainera, gure esanetara dagoen makina bat humanizatzeko goitizena gaztelerazko *la* artikuluaekin erabiltzen da–, eta ez gara konturatzen irakurtzen edota ikusten ari garen hori ez duela inork idatzi. Makina batek egindako ekoizpenak dira, eta gero eta normalizatuago dugu horiek inongo berrikuspen edo zalantzarik gabe egia absolututzat hartzea.

Batek baino gehiagok argudiatuko luke adimen artifizial sortzaileak ematen dituen erantzunak makina batek sortuak badira ere, oinarri hartzen duen informazioa badela gizakiek ekoiztutakoa. Egia da, bai; baina horrek ere badu amua. Makina horrek erabakitzen du, guregatik, zein informazio-iturri erabili erantzuna emateko. Jasoko dugun informazioaren gaineko erabakimena adimen artifizialaren esku geratzen da, horrek dakartzan ondorio guztiekin. Ez dakit besteok, baina nik hori ez dut *Black Mirror*-eko kapitulu baten sinopsitik oso urrun ikusten.

GUTUNAK

Eskerrik asko,
Urazandi! Gora
Elgoibar!

URAJAI JAI BATZORDEA
ELGOIBAR

Esaten dute jai onenak dantzan ibiltzeagatik hankak minduta, kantuan aritzeagatik ahotsa urratuta eta ahazteko denbora asko behar duten oroitzapenekin amaitzen direnak direla... Eta guk uste dugu gure 5. urteurrena horrelakoa izan dela.

Benetan ikaragarria izan da, eta hori guztia zuei esker izan da.

Bihotzez eskerrak eman nahi dizkizuegu jaien aurretik, bitartean eta amaitu ondoren modu guztiz boluntarioan lagundu duzuen guztioi. Zuen denbora, ahalegina eta ilusioa eskaini dituzue, dena ahalik eta ondoen atera zedin. Zuek zarete jai hauen benetako bihotza.

Eskerrik asko, baita ere, etorri, gozatu, barre egin, dantzatu, abestu eta auzoko txoko guztiak biziz bete dituzuen guztioi. Zuek ematen diozue zentzua honi guztioni.

Eskerrik asko gure babesleei, Elgoibarko Brigadari eta Elgoibarko Udalari, emandako laguntzagatik eta dena hain erraz egiteagatik.

Eta, nola ez, eskerrik asko auzo osoari. Beste behin ere, erakutsi duzue hemen, gozatzeko garaia denean, gogotik gozatzen dela... eta lan egiteko ordua iristen

denean, inork ez duela hutsik egiten.

Egun ahaztezinak izan dira: besarkadaz, barrez, lo falta apur batez eta gure historiaren parte izango diren unez beteak.

Orain, indarrak berreskuratzeke garaia da... edo, behintzat, saiatzeko garaia. Izan ere, sinestezina badirudi ere, dagoeneko 2027an pentsatzen ari gara! Burua ideiaz beteta daukagu, eta zuek berriro harritzeko gogoia sekulakoa da.

Eskerrik asko, urtero honek guztiak merezi izatea egiten duzelako. Eskerrik asko, sinesteagatik, parte hartzeagatik eta auzo honek benetan zerbait berezia duela erakusteagatik.

2027an berriro ikusiko dugu elkar. Ilusio handiagoarekin, ideia berrieekin eta elkarrekin auzoa egiten eta jaiak gozatzen jarraitzeko gogo berberekin itzuliko gara.

Eskerrik asko denoi! Gora Urazandi! Gora Elgoibar!

Mintxetako
igerileku txikia

F.B.
ELGOIBAR

Mintxetako igerileku txikiaren inguruan irakurritako azken udal berriek zer pentsatua eman didate.

Baldosen irristakortasuna neurtzea egokia da, baldin eta arazoa erorikoekin lotuta badago. Baina argi dago horrek ez duela zerikusirik umeek hanketan dituzten zauriekin.

Udalak onartutako junturen konponketak egoera

konponduko duela esan da. Hala ere, hemen dago nire desadostasuna, herritar eta teknikari gisa: ez da onargarria mantentze faltagatik sortutako arazoak orain "igerilekuko prestazioak hobetzeko" lan gisa aurkeztea.

Kontzeptuak nahastu eta desinformazioa sortzea ez da zilegi.

Azkenik, Udalak segurtasuna bermatu nahi badu, eskatuko nioke igerileku inguruko zoruan irristakortasun-probak egiteko.

Eskerrik asko

M.B.
ELGOIBAR

Eskerrak eman nahi dizkiet Atxutxiamaikako umeei, erakutsi duten jarrera eta heldutasunagatik. Nire senarrak betaurrekoak galdu zituen, eta Atxutxiamaikako umeek aurkitu zituzten. Udaltzaingora eraman zituzten betaurrekoak, eta horri esker berreskuratu egin ditugu. Txalo bero bat ume horiei, horren jator portatzeagatik.

'Sekretu nazionala
ahots gazteetan'

Z.A.I.
ELGOIBAR

24. Korrikaren zurrunbiloa igarota, *Berria*-k Euskal Herria zeharkatu zuen mezuaren egileak elkarrizketatu ditu, aurretik eta ondoren bizitakoaz aritzeko, eta dokumental bat egin du haien sorlekuetan eta

Barrena[®]
DEBABARRENEKO
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea
Barrena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Aita Agirre plaza, 3
20870 Elgoibar
barrena@barrena.eus

Lehendakaria
Gaizka Azkarate.
Zuzendari nagusia
Egoitz Unamuno.
Eduki arduraduna
Ainara Argoitia.

Erredakzio batzordea
Ainara Argoitia, Ubane Madera,
Ainhua Andonegi, Izaro
Aulestiarte.
Kazetariak
Ainara Argoitia, Ainhua Andonegi,
Alex Turrillas, Ander Gomez, Asier
Orbea, Egoitz Unamuno, Garazi
Mendieta, Izaro Aulestiarte,
Nerea Bedialauneta, Ubane
Madera.
Diseinu arduraduna
Oier Larreategi.
Zuzentzailea
Sergio Azkarate.
Kidetzat eta banaketa
Alex Turrillas.
Maketazioa
Zalao Arnaiz, Oier Larreategi.
Publizitatea
Leire Rubio.

HARPIDETZA
Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 16 26
harpidetza@barrena.eus

PUBLIZITATEA
Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 16 26
publi@barrena.eus

DEBAKO EGOITZA
Deba 20820
Ifar Kalea 12, behea
943 19 13 83

ELGOIBARKO EGOITZA
Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 41 12

ERMUKO EGOITZA
Ermua 48260
Erdikokale 2, 1
943 17 93 50

SORALUZKO EGOITZA
Sorluze 20590
Errabal 15, 1
943 75 13 04

Lege Gordailua: LG D 993-2025
ISSN: 3101-2647
Tirada: 10.500 ale
Inprimategia: Zeroa Multimedia

BARRENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK



Debako
Udala



Elgoibarko
Udala



Ermuko
Udala



Mallabiko
Udala



Mendarako
Udala



Mutrikuko
Udala



Soraluzeko
Udala



Babestutako hedabidea



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

guztiak batuta: *Sekretu nazionala ahots gazteetan.*

Maitasun-eskutitz bat zuen 24. Korrikaren lekukoak. Zazpi gazte, Euskal Herriko zazpi lurraldeetakoak: Elene Mengyu Larrinaga, Xalbat Alzugarai, Oihana Arana, Beñat Jusue, Oier Iñurrieta, Leire Casamajou eta Aitzol Gil de San Vicente.

Korrika amaituta, zenbait adierazpenek jomugan jarri zituzten, haien militantzia eta konpromisoa kritikatu baitzuten, eta horiek entzunda nola sentitu ziren kontatu dute dokumentalean.

Merezi du ikustea. Hemen lotura: berria.eus/euskal-herria/sekretu-nazionala-ahots-gazteetan_2160587_102.html.

Liburuak
eserlekuan

N.F.
ELGOIBAR

Joan den asteko ostegunean, liburuz beteriko poltsa bat aurkitu nuen Trenbide

kaleko jarleku batean. Liburu interesgarriak ziren, eta haietako hiru hartu nituen, etxean irakurtzeko. Historia liburuak ziren hirurak. Gainerakoak zeuden lekuan utzi nituen. Eskerrak eman nahi dizkiot horrelako altxorra herritarrekin konpartitzea erabaki duen bizilagunari, uste baitut asmo horrekin utzi zituela norbaitek. Horrela ez bada, eta ahaztuta utzi bazituen, jar dadila hedabide honekin harremanetan, eta itzuli egingo dizkiot liburuak.

Ondo pasa jaietan!

I.A.
SORALUZE

Hasi dira herrietako jaiak, eta guztioi jaiez gozatzea opa dizuet. Egun horietan aukera handiak daude denok batera gozatzeko, gure ohiturak ospatzeko eta gure familia eta lagunekin elkartzeko. Era berean, espero dut udalerrietako jaiak errespetuaren eta

bizikidetzaren eredua izatea, ondo pasatzeko eta seguru sentitzeko. Ez onartu edozein jokabide matxista, salatu eta lagundu lagunari! Eta ea guztion artean jai-giro inklusiboa eta errespetuzkoa sortzen dugun. Ondo pasa, baina pasa gabe!

Oharra

BARRENA
DEBABARRENA

Uztailaren 24an ez dugu BARRENA kaleratuko; uztailaren 30ean, opor aurreko azken zenbakia aterako dugu. Beraz, informazioaren bat argitaratu nahi izanez gero, uztailaren 28rako jakinarazi.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). BARRENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Aita Agirre Kulturgunea 3-3, 20870 Elgoibar / barrena@barrena.eus



Txileko eta Guam uharteko dantzak ekarriko ditu aurten Folklore Jaialdiak

Uztailaren 24an izango da jaialdia, 22:00etan, Maalako parkean

Ainhoa Andonegi

Txileko, Guam uharteko eta Euskal Herriko dantzen bilgune bilakatuko da Maalako parkea gaur zortzi, Haritz Euskal Dantzari Taldeak antolatzen duen Nazioarteko Folklore Jaialdian.

Txile

Txileko Tusuy Ballet talde nazionala izango da aurtengo gonbidatuetakoa bat; hain zuzen ere, Aricako talde artistiko bat da. 2020an sortu zen, eta Txileko eta Erdialdeko Amerikako iparraldeko tradizioak zabaltzen ditu, dantzen bitartez. Unibertsitateko ikasleek, irakasleek eta hainbat arlotako profesionalek osatzen dute nagusiki taldea, eta Txileko iparraldeko kultura-aberastasuna mundura proiektatzeko konpromisoak batzen ditu.

Guam Uharte

Guam ohartea Ozeano Bareko mendebaldeko uharte bat da, Mikronesiako Marianetan kokatua eta Ameriketako Estatu Batuen mende dagoen lurralde ez-elkartua. Fernando Magallanesek aurkitu zuen, 1521ean, eta Espainiaren kolonia izan zen.

Inetnon Gefpago talde folklorikoa etorriko da Elgoibarrera. Arte eszenikoen bidez herentzia txamorrutuarekiko ezagutza eta harrotasuna sustatzea du xede. Hori lortzeko, gazteak artista tradizionalen maisuekin elkarrekin aritzen dira, aurkezpen komunitarioak eta kultura-trukea egiten dute. Uharte osoan aurkezpenak egiten dituzte eta Guamek turismo eskaintza garrantzitsuetan eta munduko folklore jaialdietan parte hartzen du. Beste dantza asko koreografiatu izan dituzte, eta dantzeta-

rako abesti asko idatzi izan dituzte baita ere. Hiru aldi historikoren bueltan garatu dituzte taldearen dantzak: Antzinako Aldia, Espainiako Aldi Koloniala eta Aldi Garaikidea. Ozeano Bareko Arteen Jaialdiak eragin nabarmena izan du bereziki Antzinaroko dantzaren garapenean. Hori guztia, beren herrialdeko doinu eta kolorez jantzita ekarriko dute.

Euskal Herria

Elgoibarko Haritz Euskal Dantzari Taldeko partaideek Euskal Herrian zehar ikus daitezkeen dantzak eskainiko dituzte Folklore Jaialdian. Aurtengo jaialdian, Bizkaian zehar dantzatzaren diren hainbat pieza taularatuko dituzte. Durangaldeko, Markina-Xemeingo zein Lanestosako dantzak erakutsiko dituzte Elgoibarko dantzariak.



Inetnon Gefpago taldea. LAGATAKOA



Txileko Tusuy ballet taldea. LAGATAKOA



Haritz dantza taldea. HEDT

ELGOIBARKO NAZIOARTEKO
XXXIX. FOLKLORE JAIALDIA

HARITZ E.D.T.

2026ko uztailaren 24an, ostirala
22:00etan, MAALAKO PARKEAN

TUSUY BALLET FOLKLORIKOA
(TXILE)

INETNON GEFPA'GO
(GUAM UHARTEA)

HARITZ E.D.T.
(EUSKAL HERRIA)



NIRE USTEZ

Txikikeriak



EDURNE IZAGIRRE
PSIKOLOGOA

Ohikoa da arinkeriez ebatzea zein egoera diren bizitzan aurre egin beharrekoak dramarik gabe eta zeintzuk izan daitezkeen ondoeza adieraztea legitimo egiten dutenak; gehienetan, norbere bizipenetik egin ohi dugu hau, geuretik unibertsalizatuz eta beste norbaitek ezberdin bizi badu honek sortzen digun arrotasuna entzun eta bestearena gutxietsiz, zuzen gauden ziurtasun osoz.

Epaitegian zigortua izatera iritsiko ez litzatekeen guztia da txikikeria? Geuk mingarri sumatzen ez dugun guztia

izango litzateke txikikeria? Traumaren definizioa: momentuan dugun kudeaketa gaitasuna gailentzen duen bizipen oro.

Biluztasuna bere horretan traumatikoa da? Ez. Biluztasuna norberarentzat traumatikoa izan daiteke ezustean topatzen badugu, geure gorputzean sumatzen hasiak garen aldaketek sortarazitako ezerosotasun eta lotsa kudeatzen bagabiltza oraindik, geure eta besteen biluztasunarekin esperientzia ezerosoren bat izan badugu aurretik, eta abar.

Tratu txarra/ona zer den definizioaren oinarrian mina sentitu duena entzutea egon beharko litzateke, ezinbestean; entzun eta balioztatu. Ez noa

sinesgarritasunaz hitz egitera, zeren nor gara gu beste baten sinesgarritasuna baloratzeko? Nork finkatzen du egia? Beste norbaitentzat guztiz normala den egoera bat biziki deserosoa izan daiteke beste batentzat, norbere historia eta bizipenen arabera izan daiteke direlako gure pertzepzioak, eta batarenak ez du bestearenak baino gehiago balio.

Baina kontuz! Norbere bizipenaz ari naiz, ni nola sentitu naizen egoera batean, neure sentipena ezin du beste inork definitu eta nik ez nuke beste inorena definitu behar. Gure ekintzek besteengan zer sorrarazten duten entzunaz bakarrik ikasiko dugu geure espazioan funtzionatzen, beste inorena okupatu gabe.

KLIK

Saturraran



NAGORE CANCIO
ARGAZKILARIA

Saturrarango haitz pitzatuen artetik denborak hasperen egiten du Kantauriko uhin bareek arratsaren koloreak janzten dituztenean.



SEMAFOROA

Asfaltoa zulatuta dago



"Mintxetako aparkalekuan marraz margotu dituzte, baina oraindik badago zer hobetu; izan ere, hainbat lekutan sekulako zuloak daude lurrean. Iruditzen zait lur horrek badaukala konpontzeko beharra. Jende asko ibiltzen da uda sasoian Mintxetan, eta, horren ondorioz, normala da lurra hondatzea. Beraz, egin behar dena da negu sasoian konpondu eta udarako prest eduki".

Mintxetako igerilekuen ordutegiaz



"Alarma gorria dagoen egunetan Mintxetako igerilekuak beranduago itxiko dituztela jakin dugu. Erabaki ona eta txalotzekoa iruditu zait. Horren harira, galdetu nahiko nuke ea zergatik abuztuan 20:00etan ixten den igerilekua. Jende gehienak hilabete horretan ditu oporrak, lasaia egoten gara guztiok, eta ordu horretan gustura egoten da igerilekuan. Abuztuan 20:00etan ixtea goizegi dela iruditzen zait. Goizean ere lehenago irekitzen dute, badakit, baina esango nuke arratsaldean joaten dela jende gehiena igerilekura". Ramon Mujika Elgoibar Kirola-ko zuzendariak eman du erantzuna: "Abuztuan eta irailean igerilekuak 20:00etan itxeko ordutegia ez zen kasualitatez ezarri. Urteetako esperientzian oinarrituta hartu zen erabakia; abuztuan egunak nabarmen laburtzen hasten dira, eta hilaren bigarren hamabostaldetik aurrera 20:00etarako argitasuna asko gutxitzen da. Horrek eragina du erabiltzaileen segurtasunean, sorospen-zerbitzuaren jardunean eta instalazioaren funtzionamendu egokian".

"Gutxi izango dira bi igoera jarraian bizitzeko aukera eduki duten jokalaria"

JULEN URRUZOLA ESKUBALOI JOKALARIA

Eskubaloian goi mailan dihardu Julen Urruzolak (Elgoibar, 2002), 2020an Bidasoarekin Asobal Ligan debuta egin zuenetik. Hurrengo denboraldian Guadalajara taldean arituko da

Asier Orbea ELGOIBAR

Guadalajara eskubaloi taldean arituko zara datorren denboraldian, Zilarrezko Ohorezko Mailan.

Bai. Valentziako Fertiberia Puerto Sagunto taldearekin Asobalera igotzeko *play-off*-ak jokatu baino lehenago sinatu nuen Guadalajara taldearekin, orain dela gutxi iragarri duten arren. Saguntok kontratua berritzeko eskaintza egin zidan arren, ikusi nuen nire posizio berean jokatzeke jokalaria bat fitxatu zutela. Orduan, aurrea hartu eta beste talde batekin fitxatzea erabaki nuen, Alacanten gertatu zitzaidana berriro ez errepikatzeke. Protagonista naizela sentitu nahi dut, eta hori eskaini ahal didan talde baten bila hasi nintzen. Halaxe esan nion nire agenteari ere: "Ez zait horrenbeste axola Asobaleko edo Zilarrezko Mailako talde batean den, jokatu egin nahi dut. Eta horretarako aukera handienak Guadalajaran izan nitzakeela erabaki genuen. Besteak beste, nire postuan jokatzen duten jokalaririk gabe geratu direlako. Niri buruzko iritsi eta informe onak jaso dituztela esan didate Guadalajarakoek, eta nigan konfiantza dutela. Taldeko entrenatzaile Juancar Requena ezagutzeari ere eman diot garrantzia, entrenatzaile izan bainuen junior mailako Espainiako selekzioarekin aritu nintzenean, 15-16 urte nituenean. Hortaz, gogoa noa Guadalajarara, desio ditudan minutu horienatik borrokatzea. Alabaina, neure buruari presio handirik jarri gabe noa, gozatu egin nahi baitut.

Asobal Ligatik jaitsi berri da Guadalajara.

Bai; azken urteetan igo eta jaitsi ibili da, beti mugan. Zilarrezko Ohorezko Mailan aritzeko

talde ona da, baina Asobalen lehiatzea kosta egiten zaio, duen aurrekontu apalagatik, gainerakoekin konparatuta. Halere, Guadalajaran errotuta dagoen kirola da eskubaloia, tradizio handiko taldea da, zale leialak dituen.

Igoerak lortzen espezialista bihurtu zara: iaz, EON Alicante taldearekin igo zinen Asobal Ligara, Espainiako maila nagusira; eta aurten, Valentziako Fertiberia Puerto Sagunto taldearekin lortu duzu igoera.

Halaxe suertatu da, bai. Iaz Alicanterekin Asobal Ligara igo ostean, han jarraitzea zen nire asmoa, baina liga hasiera kasikarra egin genuen Asobalen, eta bota egin zuten gure entrenatzaile; hain justu, nigan konfiantza zuena. Entrenatzaile berriarekin goitik behera aldatu zen nire egoera, eta apenas jokatu nuen bizpahiru hilabeteetan. Ez nengoen batere gustura egoera hartan, niretzat oso garrantzitsua baita talde barruan garrantzitsua naizela sentitzea, eta han ez nuen horretarako aukerarik ikusten. Ez nuen urte oso bat jokatu gabe igaro nahi. Orduan, martxoan, Puerto Sagunto Valentziako taldera joateko aukera izan nuen, eta haien eskaintza onartzea erabaki nuen. Aukera ona zela iruditzen zitzaidan, bigarren postuan baitzeuden ligan eta igoera lortzeko aukerak zituztelako. Aukera horiek indartzeko asmoz fitxatu ninduten, eta mailaz igotzea lortu genuen. Ezin nuen sinetsi. Banekien igoera lortzeko aukerak izan bagenituela, baina nire helburu nagusia denboraldiko azken bi hilabeteetan kantxan neukan dena ematea eta han edo beste nonbait kontratu ona lortzea zen. Eta halaxe izan zen, minu-

tu asko pilatu nituen eta iritsi ziren eskaintzak. Eta igoera lortzea denboraldia borobiltzea izan zen. Gutxi izango dira bi igoera jarraian bizitzeko aukera eduki duten jokalaria. Gainera, elkarren artean oso desberdinak izan dira bi kasuak. Iaz, Alicanterekin, Burgosen jokatu genuen igoerarako partida erabakigarria. Elgoibartik joan ziren familiakoak eta lagunak partida hura ikustera, eta are bereziago egin zuen horrek. Haiek harmailetan egoteak are gehiago motibatu ninduen. Konfiantza handia dut lagunengan, eta gauzak oker doazenetan ere esan egiten diet, eta beti ematen dizkidate aholkuak eta babesak. Aurten lortu dugun igoera ere polita izan da, oso, baina bestelakoa, gure kantxan jokatutako azken partidaren lortu baikenuen igoera, harmailek gainezka zirela. Hortaz, iazkoan aurkariaren etxean jokatuta, harmailek isilaraztea lortu genuen. Aurten, zaleen aurrean, haiek piztu genituen. Igoera lortzeko bi modu; biak politak.

Zer desberdintasun azpimarratuko zenituzke Zilarrezko Ohorezko Mailaren eta Asobal Ligaren artean?

Asobalen taktikak pisu handiagoa du; jokoa garbiagoa da, nolabait esatearren, egituratuagoa. Aldiz, Zilarrezko Mailan nahasiagoa da jokoa, borroka gehiagokoa. Halere, Errege Kopan murriztu egiten da aldea, Asobaleko taldeek behekoen etxean

"Niretzat oso garrantzitsua da talde barruan garrantzitsua naizela sentitzea"



Julen Urruzola eskubaloi jokalaria. ASIER ORBEA

galtzea ez baita horren arraroa. Kantxa beroak izaten dira eta zaleen babes horrekin parekatu egiten dira indarrak.

Irungo Bidasoa taldearekin egin zuen debuta Asobal Ligan, 18 urterekin, pandemia batean, 2020an. Zertan aldatu zara ordutik hona?

Orduan baino askoz ere independenteagoa naiz orain. Urteotan zentzudunago egin naiz, heldutasuna lortu dudalako. Une zailak hobeto kudeatzen ikasi dut. Sanlotik 18 urte nituenean joan nintzen Irungo Bidasoara. Talde nagusikoekin entrenatzen nintzen arren, jokatu Bidasoako bigarren taldearekin jokatzen nuen, sasoi hartan Alcorta zegoen maila berean, Lehen Nazional Mailan. Denbora gutxian aurrerabide handia egin nuela uste dut, eta, gazteekin egin ohi duten moduan, beste talde batera bidali ninduten; nire kasuan, Alacantera.

Jokatuz eskuratzen baita eskarmentua. Urrats handia izan zen hura. Familiarengandik eta lagunengandik urrun joan behar izan nuen estreinakoz. Irunen bi asteetan behin etortzen nintzen etxera. Gainera, Asobal Ligara igo nahi zuen talde batera joan nintzen, eta igarri nuen presio hori. Nahiko ondo eraman nuen dena eta denboraldi oso polita izan zen niretzat. 20-21 urterekin ezagutu nuen zer den eskubaloi jokalaria profesionala izatea, niretzat arrotza zen ingurune batean, bakarrik. Neure buruari erakutsi nion ondo moldatu nintzela. Orduan, Alicanterekin fitxatzea erabaki nuen, han oso gustura nengoelako. Bizi nintzen lekua oso ondo zegoen, entrenatzeko instalazioak egokiak ziren, entrenatzailearen konfiantza nuen, eta giro ona geneukan taldekideen artean; denak bat egin zuen.

Jendetza batu da Urazandiko jaietan, eta antolatzaileak "pozik" daude

Lehiaketak eta festak uztartu dituzte aurten ere

Ainhoa Andonegi

Bariku arratsaldean hasi zituzten jaiak Urazandi auzoan. Aurten, Udalak piztu du jaiak abiarazteko suziria; hain zuzen ere, Maialen Gurrutxaga alkateak. Bera ere auzokoa dela gogoratu zuen, eta umetako oroitzapenak partekatu zituen txupinazora batu ziren auzotarrekin.

Txupinazoaren ondoren, hainbat txapelketatan parte hartzeko aukera izan zuten herritarrek: txapel jaurtiketa, ping-ponga, toka eta abar. Iluntzean, Espainiak eta Belgikak jokatu zuten Munduko Txapelketako partidua ikustera batu ziren hainbat herritar, pantaila-proiektorea jarri baitzuten Herri Eskolako jolas-tokian, eta, haren ostean, festa giroa nagusitu zen goizaldera arte.

Jaietako egun handia, baina, zapatua izan zen, eta jende ugari ibili zen. Etxeko txikiek historiaurrera egin zuten bidaia, Josejurekin, eta, bien bitartean, nagusiak puzzle txapelketan lehiatu ziren. Banakako lehian 300 piezako puzzlea osatu behar zuten, gehienez ere ordu eta erdian, eta Euskal Herriko zein Espainiako hainbat lekutatik

etorritako 44 lagun lehiatu ziren. Horietatik 37 lehiakidek lortu zuten puzzlea denbora mugaren barruanosatzea, eta Burgostik etorritako Vanesa Valdes Vivar izan zen guztietan azkarrena. Hark 30 minutu eta 27 segundoan osatu zuen puzzlea. Fernando Ferrero Ruiz izan zen Elgoibarko parte hartzaile bakarra, eta 29. postuan sailkatu zen (1.20.09). Herritar onenaren saria jaso zuen. Bikotekako lehian, bestalde, Virginia Hernandok eta Sheila Cocerok osatutako bikotea gailendu zen. Valladolideko Campaspero herritik etorritako bikoteak 42 minutu eta 17 segundoan osatu zuen 500 piezako puzzlea. Elgoibarko bikote onenaren saria Uxue Jimenez Perezek eta Maria Perez Ortiz de Eribek osatutako bikoteak eskuratu zuen. 35 bikotek hartu zuten parte guztira, eta 32k lortu zuten egin beharreko lana denbora barruan burutzea.

Paella-jana egin zuten ondoren, eta mariatxiek jarri zuten musika bazkalostean. Umeentzako jolasak egin zituzten arratsaldean, eta gauean, Elgoibarko Brilet taldeak kontzertua eman

zuen. Apar festa egin zuten goizaldean, eta ordu txikiak arte luzatu zen festa Urazandin.

Domekan, umeek hartu zuten nagusien erreleboa, eta gogotik gozatu zuten haur parkean. Umeentzako apar festarekin itxi zuten egitaraua.

Errifaren zozketa

Jaiak finantzatzeko errifak saldu dituzte Jai Batzordeko kideek, eta etxetresnaz beteriko bi otarre zozkatu dituzte: lehen sari-duna Aurora Rodriguez izan da, 1.746 zenbakiarekin; eta bigarrena, Mari Jose Alvarez, 2.736 zenbakiaren jabea.

Jai Batzordekoak "oso pozik" daude herritarrek emandako erantzunarekin, eta esan dute dagoeneko badituztela datorren urteko jaietarako ideia berriak. Jaiek hazten segitzen dutela adierazi dute, eta aurten, elgoibartarrak ez ezik, kanpotik ere jaietara jendea etorri dela nabarmendu dute. Azkenik, esker-rak eman dizkiete jaien babesle izan diren guztiei, eta lanean jardun duten boluntarioei. Jaien balorazio "oso positiboa" egin du Urazandiko Jai Batzordeak.



Puzzle txapelketa. ASKASIBAR



Brilet taldearen kontzertua. ASKASIBAR



Umeentzako apar festa. ASKASIBAR

Zirku bilakatu dute Kalegoen plaza



AINHOA ANDONEGI

Musika, argia, oihalak, clowna... elementu horiekin zirku bilakatu zuten eguazten gauean San Bartolome parrokiako ataria. Lumina zirkua aurkeztu zuen Musbika Ensemble taldeak, Berdinki zirku konpainiarekin elkarlanean, eta



AINHOA ANDONEGI

aho-zabalik geratu ziren herritarrak. Elur Arrieta elgoibartarra egon zen perkusioan, eta Aitor Guisasola sartu zen clownaren azalean. Oroitzapenez beteriko maleta batekin itzuli zen etxera.

Institutuko ordezkariak botako dute sanbartolomeetako txupinazoa

263.900 euroko aurrekontua dute jaiek; iaz baino 45.000 euro handiagoa

Ainhoa Andonegi

Aste honetan aurkeztu du Elgoibarko Udalak sanbartolomeetako jaien egitaraua. Aurkezpen ekitaldian, Maialen Gurrutxaga alkateak eta Andrea Arriola Udaleko Kultura zinegotziak, Jone Agirregomezkorta institutuko zuzendariak eta institutuan zuzendaritzan ibilitako Iñaki Kondek eta Enrike Larrañagak hartu zuten parte. Hain zuzen ere, Elgoibarko institutuaren sorreraren 50. urteurrena beteko da urrian, eta mende erdiaren aitortza egiteko botako dute jaien hasierako txupinazoa bertako ordezkariak.

269.000 euroko aurrekontua

Abuztuaren 23tik 29ra ospatuko dira aurtengo festak, eta hilaren 26a atsedenerako izango da. Jaietarako aurrekontua 263.900 eurokoa da; iazkoa baino 45.000 euro handiagoa. Musika emanaldietarako bideratu dute diru partida handiena; hain justu ere, aurrekontuaren %51 (134.481 euro). Aurtengo kontzertu izarra ETS taldearena izango da, eta 45.980 euroko kostua izan du Arabako taldearen kontratazioak. ETS taldeaz gain, Sune, Gozategi, Puro Relajo eta Kaparrak taldeek emango dituzte kontzertuak jaietako egitarau ofizialaren barruan. Aipaturikoez gainera, EME Elgoibarko Musikariaren Elkarteko kide diren Muzak eta Alguillo eta Alki-



Udaleko eta institutuko ordezkariak. ASIER ORBEA

mistak taldeek ere joko dute jaietan.

Aurrekontuaren beste bi partida nagusiak ganadu, baserri eta gastronomia jarduerentzako -20.863 euro; %8- eta azpiegitura eta ekipamenduetarako izango dira -20.555 euro, %8-. Horrez gain, aurrekontuaren %6, hau da, 15.529 euro, sokamuturra antolatzeke erabiliko dute. Haurren eta gazteen egunetarako jarduerak antolatzeke 16.257 euro bideratu dituzte aurrekontutik, eta adinekoei zuzendutako egitarauko ekital-

dietarako, 11.397 euro. Gainerakoa -44.818 euro; %17- beste hainbat partidatan banatuta dagoela zehaztu dute, hala nola goitibehera jaitsiera, ikuskizunak, prentsa, kalejirak, sariak eta segurtasuna.

Limusin ganadu erakusketa

Aurten Euskadiko limusin arrazako ganadu txapelketa egitea tokatzen zen arren, ezin izango dute egin, abereei eragiten dieten osasun-murritzaketak indarrean daudelako. Hala ere, formatua egokitu, eta abeltzaintza ustiategi bakar bateko animalien erakusketa egingo dute, Aita Agirren, Baserritarren Egunean. Horri lotuta, limusin arrazako haragi dastatzea egingo dute. Era berean, Mintxeta Memoriala harri-jasotze txapelketa ere Aita Agirren bertan izango da.

En Tol Sarmiento taldearen kontratazioak 45.980 euroko kostua izan du

Krutzelaegi fraidearen 'Euskal meza' interpretatuko dute uztailaren 27an

Alonso Hernandez Prado kontrabaxu jotzailea, Myrna Esthela Barrios biolin-jolea eta parrokiako abesbatza ariko dira

Ainara Argoitia ELGOIBAR

Martin Frantzisko Krutzelaegi Askarraga (Elgoibar, 1742- Mexiko, 1803) fraide frantziskotarren inguruko bigarren liburua argitaratu du Alonso Hernandez Prado kontrabaxu-jotzaile eta ikertzaile mexikarrak -*Fray Francisco Martín de Cruzelaegui a través de archivos y bibliotecas en México y España, transcripción de sus composiciones*-, eta uztailaren 27an Elgoibarren aurkeztuko du. Saio berezia izango da; izan ere, aurkezpenaz batera, Krutzelaegik Mexikon bizi zen euskal komunitateari eskainita idatzi zuen *Euskal meza* (*Missa Bizcayensis*) interpretatuko dute Alonso Hernandez berak eta emazte eta biolin-jole Myrna Esthela Barriosek, San Bartolome parrokiako abesbatzarekin batera. Musika eskolako auditoriumean izango dira aurkezpena eta ondorengo entzunaldia, 19:00etan hasita. Pello Arrieta historialari elgoibartarrak egingo du atarikoa. Krutzelaegiren garai historikoari buruzko testuingurua osatuko du Arrietak, eta idazleak berak aurkeztuko du ondoren liburua.

Krutzelaegiren ekarpena

Fraidea izan zen Krutzelaegi, baina ez zen fraide soila izan, frantziskotarren ordenako prelatu nagusia izan baitzen Mexikon, Elizarentzat gotzaina dena. Kargua aukera paregabea izan zitzaion musika sakratuko ekoiz-



Alonso Hernandez Prado ikertzailea.

pen handia konposatzeko eta estreinatzeke. Alonso Hernandez ikertzailearen arabera, eliz ototzak musikatzeko helburuarekin idatzi zituen lanak, eta garrantzi handikoa izan ziren hura hil ondorengo urteetan ere.

Musikagintzan, autoritatetzat hartu zuten Espainia Berrian Krutzelaegi. 1976an, Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko kide egin zen, Euskal Herrian ikerketaren eta irakaskuntzaren aitzindari izan zen elkartekoa, eta musikari titulua ere kultura-erakunde hari esker lortu zuen. Mexiko Hirian San Fernando Kolegioko organista eta organo irakasle ere izan zen. Musika sakroa sortu zuen Krutzelaegik, galante estilokoa, eta obra guztiak latinez idatzi zituen. Alonsoren esanetan, bereizgarri bat dute denek: koru bikoitzetarako daudela idatzita.

Barrena
GEBABARRENEKO KOMUNIKAZIO TALDEA

943 743 704
688 769 657

Jarri ezazu zure publizitatea
BARRENA astekarian
edo
www.barrena.eus
webgunean

VITAL sortia
Teknologia berrak (matxaketa berraketa)

ATLANTIS sortia
Berraketa berraketa (matxaketa berraketa)

Regio eraldagarria 725€tik aurrera
Qinarrri Kapizalua 495€tik aurrera
Master eraldagarria 795€tik aurrera

Regio eraldagarria 625€tik aurrera
Qinarrri Kapizalua 395€tik aurrera
Master eraldagarria 685€tik aurrera

San Roke kalea, 20 - ELGOIBAR - 943 744 457 / 685 750 978
www.textillagunak.com

LAGUNAK
eslebehera testil heget

EXPRESS ESKAINTZAK!

PHILIPS HC3525/15 ILEA MOZTEKO MAKINA

29,90 €

- 13 luzera-doikuntza
- 45 minutuko autonomia
- Hortz autofilagarriak
- Power teknologia
- Diseinu ergonomikoa

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487
blre@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte



Udaleku ibiltarietako gazteak, Mendexatik Berriaturako bidean egindako atsedenaldian, Kantauri itsasora begira. MAREN AGIRRE

Jolas, txango eta bizipen ugari gogoan bueltatuko dira etxera udalekuetako umeak

Gaur bukatuko dira herriko aisialdi ekintzak eta domekan abiatutako irteera

Ander Gomez

Amaitzeaz dira ume eta gazteen-
tzako udako aisialdi egitaraua-
ren bi hitzordu nagusiak. Ma-
llabiko udalekuak ekainaren
19an hasi ziren, udaleku ibiltari-
ak uztailaren 12an, eta biak
bariku honetan bukatuko dira.

Jolasak, tailerrak eta irteerak

Mallabiko udalekuak ekainaren
19an hasi ziren, eta HH eta LH6
arteko 68 umek eman zuten ize-
na; plaza guztiak bete ziren.
Gehienak mallabitarrek izan
diren arren, badira beste herri
batzuetatik etorritakoak ere;
aurten, Berriz eta Bilbo aldekoak.
Zaintza lanetan eta ekintzen
dinamizazioan Satxibu Aisialdi
Taldek sei begiralek dihardute:
hiru mallabitarrek eta hiru er-
muarrek.

Talde-lana eta, aldi berean,
"pike sanoa" sustatzeko, hamar
laguneko taldeetan banatu di-
tuzte, eta bakoitzak izen bat
aukeratu du: *Lehoiak, Zezenak,
Teletubiak, Izarrak, Pou* eta
Rock&Roll. Goizetan egin dituz-
te jarduera gehienak: herri-ki-
rolak, ur-jolasak, ginkanak,
taldeko erronkak... eta *Zikin
Eguna* proposamen dibertigarria,
non irina, Nutella eta arrautzak
erabili dituzten probak egiteko.
Astero, arratsaldera arte iraun
duten bi irteera egin dituzte;
tartean, Basondora eta Elorrio-
ko igerilekuetara. Tailerrek ere
protagonismo handia izan dute:
ortu ekologikoan haziak landa-
tu dituzte, buztinarekin lan egin

dute eta kamiseta pertsonaliza-
tuak sortu dituzte olinpiadak
jokatzeko.

Sei eguneko abentura

Udaleku ibiltariak 13 eta 18 urte
arteko gazteei zuzenduta zeuden.
Aurreko urteetan parte hartu
dutenak nagusiegi ziren, eta
parte-hartzea jaitsi egin da. Ha-
malau gazte ibili dira, guztiak
mutlak, 13-15 urte bitartekoak
eta mallabitarrek. Satxibuko
zortzi lagun aritu dira begirale.

Sei egunez eta bost gauez osa-
tutako egitasmoak Bizkaiko
kostaldeko hainbat txoko lotu
ditu oinez. Lehen egunean Ma-
llabitik Elantxobera abiatu ziren,
eta handik Ispasterreara ailegatu
ziren. Hurrengo egunean, Men-
dexara joan ziren, eta bertako
abentura parkean geldialdia
egin zuten. Ondoren, Berriatuan
eman zituzten bi gau, eta, tarte



Basondon, basurdea ikusten. ALAITZ MARTIN

hartan, Ondarroaraino ere joan
ziren oinez, hondartzaz gozatze-
ko. Azken txanpan, Bolibarrera
ailegatu ziren, eta gaur, udale-
kuen azken egunean, Trabakuan
bukatuko dute ibilbidea.

Ibilaldiak iraun bitartean fron-
toietan egin dute lo, eta ur-jola-
sak, olinpiadak, hondartzako
jarduerak eta gaueko dinamikak
izan dituzte; beldur-gaua, kasu.

Beroa, erronka nagusia

Begiraleek azaldu dutenez, umeak
entrenitzeaz, zaintzeaz eta
seguru sentitzen direla bermat-
tzeaz harago, beste erronka ga-
rrantzitsu bat izan dute aurten:
beroa. Temperatura altuei aurre
egiteko, Mallabiko eta inguruko
herrietako ur-txorrotetara bisi-
ta ugari egin dituzte, eta gai-
nontzeko ekintzetan itzalguneak
lehenestea, atsedenaldiak sar-
riago egitea eta une oro botila
urak eskura izatea zaindu dute.
Udaleku ibiltarietan, gainera,
ibilaldiak ahalik eta goizen has-
ten saiatu dira, bero handiene-
ko orduak saihesteko.

Bero-boladen egoera –eta ibi-
laldietan zehar gazteek nekea-
gatik egin ohi dituzten ohiko
kexak– salbu, balorazio oso
positiboa egin dute bi taldeeta-
ko begiraleek; eta nabarmendu
dute Mallabiko udalekuak defi-
nitzen dituzten balioak sustatzen
eta presente mantentzen saiatu
direla: ingurumenarekiko erres-
petua, konfiantza, autonomia,
elkarbizitza eta euskararen era-
bilera, hain zuzen.

Luken Correia nagusitu da hiru eguneko Tenis Promises txapelketan

A.G.

Frontenis Promises lehiaren
ostean, 16 urtez azpiko tenis
txapelketa jokatu zen joan den
astean. Aurten, adin nagusia-
goko jokalariek ez dira anima-
tu, eta 11-12 urteko Liher Raya,
Amets Pradera eta Luken Co-
rreia izan dira lehian.

Hiru eguneko txapelketaren
ostean, Correia eta Pradera
sailkatu ziren finalerako. Hala
ere, azken horrek arazoak izan
zituen sakearekin finalaren
lehenengo setean, eta Correiak
6-1 irabazi zuen. Bigarren se-
tean, berriz, sakea hobetu eta
partida berdintzea lortu zuen
Praderak; baina *tie-break*-ean
gailendu zen Luken Correia,

7-6, eta txapela eskuratu zuen.
Parte-hartzaile bakoitzak ga-
raikurra eta jolas-poltsa bana
jaso zituen sari.



Correia, Raya eta Pradera. MALLABIA FT

Eskailera-igogailuak jarri dira eskolan



UDALA

Learreta-Markina ikastetxeko oztopo arkitektonikoak gainditu eta
espazio guztiak irisgarriago bihurtzeko lanean ari da Mallabiko
Udala. Proiektu horren baitan, ekialdeko eta mendebaldeko eskai-
leretan eskailera-igogailuak instalatu dituzte, ikasleei, irakasleei
eta bestelako langile eta erabiltzaileei bi solairuen arteko igoerak
eta jaitzierak errazte aldera.

Udako ordutegia abuztuan bakarrik egongo da martxan

Uda sasoiarekin batera, udal
zerbitzu eta espazio publiko ba-
tziek ordutegi bereziak izango
dituzte datozen asteetan.

Udaletxeko arreta-zerbitzua
10:00etatik 14:00etara eskaintzen
ari da uztailean; abuztuan, berriz,
arreta 10:00etatik 13:00etara
izango da.

Kultur Etxeak ere ohiko fun-
tzionamenduari eutsi dio uztai-

lean. Liburutegia 16:00etatik
19:00etara dago zabalik, eta,
kultur espazio izateaz gain, he-
rritarrentzako babesgune kli-
matiko ere izaten ari da, azken
asteotako bero-boladen harira.

Pilotalekua, bestalde, astelehe-
netik barikura dago zabalik,
16:00etatik 22:00etara; goizez,
berriz, martitzen eta eguenean
erabiltzeko aukera dago, 10:00eta-
tik 13:00etara. Abuztuan, Andra
Mari jaiek irauten duten bitar-
tean zabalduko ditu ateak, hi-
laren 14tik 16ra; gainerako egu-
netan itxita egongo da.

Zerbitzuen gida

**Ezagutarazi zure zerbitzua
Debabarreneko herrietan**



**24 €
Hilean**

24 euroren truke, hileko zure enpresaren datuak eta irudia erakutsiko ditugu BARRENA astekarian!



Erakusleihoa

BARRENA astekaria Debabarreneko erakusleho ikusienetakoa da.



**10.500 ale
astero**

10.500 ale banatzen ditugu Debabarrenean zehar DOAN!

AROTEGIAK

DEKORAZIOA

ERABERRITZEAK

Jarri zure
publizitatea

MEKANIKARIAK

Biena, S.L.
AROTEGIA
Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus

KM design
Kira Muntakak
943 75 99 85
karmuntak@ymail.com
www.kmdesign.es

GOKI
erreformak
FATXADA BIRGAITZEAK
ETA ERREFORMAK
ELGOIBAR 943 74 42 23 SORALUZE 943 12 57 41

ITURGINTZA

SORALUZE MOTOR
Mendiola Ind. 13
Soraluze
476 556 817 - 943 75 21 38

MAR
AROTEGIA
Olaso Indutrigunea, 17 beheak
943 531 471
609 054 978
carpinteriamar@hotmail.com

ELEKTRIZITATEA

IGELTSEROTZA

SANTANA
Igor Santana
ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.
Urazandi kalea 17, beheak
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

PINTURAK

iraolagoitia
arotegia - altzariak - etxe-aldaketak
Kurutz-gain indutrigunea, 9
20850 Mendara
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485
www.iraolagoitia.com

laibi25 urte
Mendiola Industrialdea 13
Soraluze
Tel. 943 75 12 69
www.laibi.net

IZAGUIRRE
Igeltseritza
Erakikin berriak - Kalitatezko emaitza
Erreformak - Era gutxietako igeltseritza
50 urteko esperientzia - 610 638 913

LEIHOAK

BIOK
dekorazioa
Uparitzaga, 14 - Elgoibar
943 741 552
606 431 120
biok@biokdekorazioa.com

Jarri zure
publizitatea

EXGA S.L.
Elektrizitatea Igeltseritza Iturgintza Pintura
679 623 584 Soraluze

Jarri zure
publizitatea

ODRI
ATEAK ETA LEIHOAK
Aluminio eta PVC arotegia
662 234 609
odri@leioak@gmail.com
Sagar Erreka Kalea 2, 20580 SORALUZE
Mota gutxietako leihoak, sementa eta konposatuak
Atak, leihoak, pertsonak, barandak, etxe-eraketa
eta tokiak pertzen ditugu.

ION MURGIZU BAKAIKOA
PINTOREA
amara dekorazioa instalazioa
Tel. 943 75 13 24 - Mug. 652 77 70 30

Zerbitzuen gidan agertu nahi izanez gero, deitu edo
Whatsappera idatzi telefono zenbaki honetara:

688 76 96 57



SANTIXAUAK ETA SANTANAK



Katasorgina, Polola eta Marras, arras beteak datoz jaiak

Jai-usainean hasita daude Ermuan, Soraluzen eta Mendaron,
eta hiru herri horietan egosiko den handienaren aurrerapena
bildu du BARRENAk ondorengo orrietan





Orbe Kardinala plaza, jendez lepo, txupinazoa jaurti berritan. ANDER GOMEZ

JAIETAKO EGITARAUA

OSTIRALA 17

- **17:00** Txarangen jolasak: adreilua eta jatorrizko bekatua. Orbe Kardinala plazan.
- **20:00-01:00** Puntu Morea. San Pelayo kalean.
- **22:00** Kontzertua: Makis 37. San Pelayo plazan.
- **23:00** Kontzertua: El Drogas. San Pelayo plazan.
- **01:00-6:00** Puntu Morea. Erdikokale Sean –antzinako Bolintxo–.

LARUNBATA 18

- **09:00** Erakusketa-txakurren lehiaketa. Berano Nagusin –hondakindegia zaharra–.
- **09:00** Zazpiko futbol txapelketa. Teodoro Zuazua futbol zelaian.
- **10:00** 'Urkora 69tan ezetz!' XV. igoera kontrolatua. Orbe Kardinala plazatik.

- **10:00** Arku-tiro proba. Orbe Kardinala pilotalekuan.
- **11:00** Xake-partida azkar eta aldeberekoen erakustaldia. Orbe Kardinala plazan.
- **16:30** Mus Txapelketa. Orbe Kardinala plazan.
- **19:00** Txindurriren dantza emanaldia. Orbe Kardinala plazan.



El Drogas. OSCAR BLANCO

- **20:30** DJ festa Mariskal Dejairekin. Orbe Kardinala plazan.
- **22:00-01:00** Puntu Morea. San Pelayo kalean.
- **22:00** Kontzertua: Orihen. San Pelayo plazan.
- **23:00** Kontzertua: Zea Mays. San Pelayo plazan.
- **01:00-06:00** Puntu Morea. Erdikokale Sean –antzinako Bolintxo–.

IGANDEA 19

- **10:30** Xake Txapelketa. Orbe Kardinala plazan.



Zea Mays. Z.M.

- **12:00** Bizikleta jaitsiera. Ultzama gainean hasi eta Santa Ana auzoan bukatu.
- **12:00** Emakumezkoen VII. Bolo Palma Txapelketa. San Pelayoko bolatokia.
- **19:00** Nazioarteko musika eta dantza jaialdia. Letswao (Bostuana) eta Atakoy (Turkia). Orbe Kardinala plazan.

ASTELEHENA 20

- **19:00** Txarangen jolasak: sokatiraren finala eta kuboen proba. Orbe Kardinala plazan.
- **20:30** Bertso jaialdia. Martxoaren 8a plazan.

ASTEARTEA 21

- **22:30** Play-back lehiaketa. Orbe Kardinala plazan.

ASTEAZKENA 22

- **18:30** Lau eta erdiko esku-pilota partidak. Orbe Kardinala plazako pilotalekuan.
- **20:30** Kontzertua: Momak. Martxoaren 8a plazan.



Umeak apar-festan. UBANE MADERA ZANGITU

OSTEGUNA 23 UMEEN EGUNA

- **11:00** Umeen txupinazoa, koloretako hautsekin. Orbe Kardinala plazan
- **11:15** Buruhandiak. Orbe Kardinala plazan.
- **11:30-13:30 eta 16:00-19:00** Ur-parkea eta tailerrak. Orbe Kardinala plazan.
- **16:00** Buruhandiak. Orbe Kardinala plazan.
- **17:30** Txokolate-jana. Orbe Kardinala plazan.
- **19:00** Umeentzako musika ikuskizuna: 'Sardina freskue'. Orbe Kardinala plazan.
- **20:00** Apar-festa. Orbe Kardinala plazan.
- **22:00-01:00** Zuzeneko musika: 'Festan blai', Oizeder Mayo DJarekin. Martxoaren 8a plazan.
- **22:00-01:00** Puntu Morea. Martxoaren 8a plazan.

OSTIRALA 24

- **19:00** Txupinazoa eta kalejira: Irulitxa eta New Tocados musika bandak eta Brincadeira batukada taldeak. Orbe Kardinala plazan.

Mélida Ostatua

Bizkaia Etorbidea, 13
48260 ERMUA
943 17 00 19
www.melidaostatua.com

HERGA

taberna

infrinu taberna

Kardinal Orbe plaza
Ermua
www.infretaberna.com
943174584

Abesbatza
Banda
Biolina
Biolontxelo
Flauta

Gitarra
Gitarra elektrikoa
Gitarra baxua
Musika Hizkuntza
Klarinetea
Panderoa

Perkusioa
Pianoa
Saxofoia
Trikitixa
Tronboia
Tronpeta

MUSIKA ESKOLA
943 17 12 98

albokamusikaeskola@hotmail.com



- **19:00-01:00** Puntu Morea. Patxi plazan.
- **22:00-03:00** Tekno jaialdia: Raul Parra, Aitana Rodriguez eta Alexander M. Martxoaren 8a plazan.
- **23:30** Dantzaldia: Ano Show orkestra. Orbe Kardinala plazan.
- **01:00-06:00** Puntu Morea. Erdikokale 5ean –antzinako Bolintxo–.

LARUNBATA 25

- **07:00** Txokolate-jana. Orbe Kardinala plazan.
- **07:30** Barrus partidak. Orbe Kardinala plazan.
- **08:00** Bigantxak. Ongarai Eskolako patioan.
- **12:00-14:00 eta 17:00-20:00** Mini-parkea. Kaltxango plazan.
- **12:00-14:00 eta 17:00-20:00** Haur-parkea. San Martin plazan.
- **12:30** Meza Nagusia. Santiago Apostoluaren elizan.
- **12:30** Herri-kirol ikuskizuna. Orbe Kardinala plazan.
- **12:30** Kalejira: La Tuna Bando txaranga.
- **12:30** Kalejira: Joselontxos txaranga.



Herri-kirol erakustaldia, plazan. A. GOMEZ

- **17:00** Esku-pilota partidak. Aritzmendi pilotalekuan.
- **19:00** Margolanen zozketa. Zubiaurre kalean.
- **19:00** Erraldoien eta buruhandien kalejira. Orbe Kardinala plazatik.
- **19:00** Kalejira: Latuna Bando txaranga. Orbe Kardinala plazatik.
- **20:00** Larrain dantza. Orbe Kardinala plazan.
- **20:30** Euskararen aldeko konpromiso-topa. Orbe Kardinala plazan.
- **22:00-01:00** Puntu Morea. Patxi plazan.
- **22:00-03:00** Rock Jaialdia: Donostialdeko Son of Decay eta Vigoko Velkhanos. Martxoaren 8a plazan.
- **22:30** Kale-ikuskizuna: 'Express'. San Pelayoko plazan.
- **23:30** Dantzaldia: Alaska On Tour orkestra. Orbe Kardinala plazan.
- **01:00-06:00** Puntu Morea. Erdikokale 5ean –antzinako Bolintxo–.

IGANDEA 26

- **07:00** Txokolate-jana. Orbe Kardinala plazan.
- **07:30** Barrus partidak. Orbe Kardinala plazan.
- **08:00** Bigantxak. Ongarai Eskolako patioan.
- **12:00-14:00 eta 17:00-20:00** Mini-parkea. Kaltxango plazan.
- **12:00-14:00 eta 17:00-20:00** Haur-parkea. San Martin plazan.
- **12:00** Nagusiei omenaldia eta sari-banaketa. Orbe Kardinala plazan.
- **12:00** Kalejira: Guanajuatoko (Mexiko) Mariachi Imperial taldea.
- **12:30** Kalejira: Ustekabe txaranga.

- **13:00** Kontzertua: Guanajuatoko (Mexiko) Mariachi Imperial taldea. Orbe Kardinala plazan.
- **14:00** Herri bazkaria. Merkatu plazan.
- **18:00** Esku-pilota partidak. Orbe Kardinala plazan.
- **19:00** Umeentzako ikuskizuna: 'Ekilikua'. Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoekin. Orbe Kardinala plazan.
- **19:00** Kalejira: Alboka Musika Eskolako txaranga.
- **19:00** Kalejira: Ermuko txarangak.
- **20:00** Larrain dantza. Orbe Kardinala plazan.
- **20:00** Kalejira: Rockalean taldea.
- **22:00-01:00** Puntu Morea. Patxi plazan.
- **22:00-03:00** Trance musika jaialdia: Patt, Javier Ganuza, Andrew Car, Bixent eta Alexander M. Martxoaren 8a plazan.
- **22:30** Kale-ikuskizuna: 'Tambours de feu'. Deabru Beltzak taldeak eskainita. San Pelayo plazan.
- **23:30** Dantzaldia: Pasarela Orkestra. Orbe Kardinala plazan.
- **01:00-06:00** Puntu Morea. Erdikokale 5ean –antzinako Bolintxo–.



Tambours de Feu ikuskizuna. A.G.



Travellin' Brothers Big Band. T.B.

ASTELEHENA 27 ZEZEN EGUNA

- **07:00** Txokolate-jana. Orbe Kardinala plazan.
- **07:30** Barrus partidak. Orbe Kardinala plazan.
- **08:00** Bigantxak. Ongarai Eskolako patioan.
- **11:00-12:30** Paella Lehiaketa. Orbe Kardinala plazan.
- **11:00** Sardina-banaketa. Martxoaren 8a plazan.
- **12:00-14:00 eta 17:00-20:00** Mini-parkea. Kaltxango plazan.
- **12:00-14:00 eta 17:00-20:00** Haur-parkea. San Martin plazan.
- **12:30** Kalejira: Irulitxa txaranga.
- **13:00** Kalejira: Macjeara's Jazz Band.
- **13:00** Kale-ikuskizuna: 'Mute'. Orbe Kardinala plazan.
- **14:00** Paellen dastaketa eta herri bazkaria.
- **18:00** Erromeria: Lotxo taldea. Orbe Kardinala plazan.
- **19:00** Kalejira: Irulitxa txaranga.
- **19:00** Kalejira: Macjeara's Jazz Band.
- **19:00** Paella lehiaketaren sari-banaketa. Orbe Kardinala plazan.
- **19:30** Aureskua eta larrain dantza. Orbe Kardinala plazan.

- **20:00** Erromeria: Lotxo taldea.
- **20:30** Kalejira: Artistas del Gremio.
- **22:00-03:00** Tech house musika jaialdia: Stan Garac, Ash, Markos eta Alexander M. Martxoaren 8a plazan.
- **22:30** Irulitxa fanfarreari ongietorria. Orbe Kardinala plazan.
- **23:00** Suziriak. Ongarai parketik.
- **23:30** Agur Jaunak eta kontzertua: Travellin' Brothers Big Band. Orbe Kardinala plazan.

Gaueko tren zerbitzua

17tik 18rako eta 24tik 25erako gauean, zerbitzu berezia eskainiko da da Ermua – Elgoibar tartean, bi noranzkoetan. Larunbatetik igandeetarako gauean (uztailaren 18 eta 25a), Matiko/Bilbo-Deba tarteko ohiko zerbitzua indartuko da.



www.zermik.com
Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragón (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12



ZERMÍK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoa garatzen espezializatuta dagoen ingeniaritza-enpresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.



ABUZZUAN ZABALIK!

Marqués de Valdespina 8
Ermua (Bizkaia)
688819336
943170474

ARRIETA CORDEVI

Etzetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA



Salón De Belleza

Zaindu zeure burua
gaur,
ez utzi biharko



IRENE ESQUÉ col 1666

688 619 896
Zeharkale, 12 behea
48260 ERMUA

EGOITZ FORMOSO col 1675

Otro Plan

como en casa

Erreserbak: 644 340 754



Tradizioari eutsiz eta berrikuntzak gehituz, txarangek hartuko dituzte santixauak

Parte-hartzea eta jai giroa izango dira aurten ere txarangen asteko giltzarriak.

Garazi Mendieta

Uztailaren erdialdearekin batera, Ermuko txarangak berriz ere prest daude herriko plazak giroz betetzeko. Jolasak, lehiaketak, kirola, musika eta umorea uztartuz, txarangen asteak dagoeneko eman dio hasiera jai giroari, eta, beste behin ere, adin guztietako ehunka lagun bilduko ditu parte hartzera zein ikusle gisa gozatzera.

Aurtengo agitarauak aurreko urteetako arrakastari eusten dio, nahiz eta berrikuntza batzuk ere izango dituen. Uztailaren 14tik 24ra bitartean, triatloia, sokatira, abesti lehiaketa, play-backa, F7 txapelketa eta haurrei zuzendutako jardunaldi bereziak izango dira, besteak beste. Horiez gain, aurten lehen aldiz jokatuko da adreiluen jolasa, orain arte egin den *pringea* ordezkatzeko. Antolatzailleek

azaldu dutenez, aldaketa garbitasun arrazoiengatik egin da.

Lehiaketek sari erakargarriak izango ditutze. Play-back lehiaketak 600 euroko lehen saria banatuko du, eta abesti lehiaketan, diru-sariez gain, Durangoko Txirula Music dendan instrumentuak erosteko txkeak ere banatuko dira. Txarangen arteko jokoetan, berriz, sari ekonomikoak afariekin osatuko dira.

Parte-hartzea eta irarritutasuna

Txaranga Batzordeko ardura-
dunaren hitzetan, egitarauak
aurreko urteetako ildoak jarrai-
tzen du: "Jarraitutasunaren
aldeko apustua egin dugu. Jaie-
tako egitaraua oso bete da,
herrian dauden kolektibo guztiei
esker, eta horrek ez du tarte
handirik uzten jarduera berriak
sartzeko". Helburua argia da:
"Jardueretan pertsona guztiek

izan dezatela lekua. Programa oso zabala da, haur txikienetatik hasi eta helduenetara arte, eta adin zein genero guztietara iristen saiatzen gara".

Parte-hartzea handia izango dela aurreikusten da aurten ere. F7 txapelketak, esaterako, 24 taldetan itxi behar izan du izen-ematea, plaza guztiak azken eguna iritsi baino lehen bete baitira. Iazko txapelketan hamasei taldek hartu zuten parte, eta aurten, 24ra iritsi direnerako izena emateko aukera itxi egin behar izan dute, ordutegiaren barruan txapelketa antolatuta ahal izateko. Parteituak Betiondoko eta Ermua CDko zelaietan jokatu dira, 10:30ean hasita.

Pandemiaren ondorengo urteetan txaranga kopuruak beherakada nabarmena izan bazuen ere, joera hori irauli egin dela nabarmendu dute antolatzaileek:

"COVIDak bi belaunaldi banatu zituen; gazteenek ez zuten erreferenterik izan eta 2020an 18 edo 19 urte zituzten askok ez zuten berriz parte hartu. Urtez urte, ordea, izena ematen duten txaranga gero eta gehiago dira". Aurreko urteekin alderatuta, Txaranga Batzordetik baikorki adierazi dute txaranga gehiagok eman dutela izena aurtin; zortzi izan dira guztira, eta kopuru horrek pixkanaka gora egiten jarraituko duela baieztatu dute.


Zenbakiez haratago, txarangek badakite benetako saria kalean sortzen den giroa dela. Txaranga Batzordearen ustez, jaietako elementurik garrantzitsuenetako bat dira. Gainera, aurtengo egutegiari lagunduta, inguruko herrietatik jende ugari etortzea espero da.

Errespetua eta jai giroa

Lehia izango da txarangen asteko osagai nagusietako bat, baina antolatzaileek azpimarrazu dute lehia hori beti errespetutik eta jai girotik ulertu behar dela. Horregatik, Txaranga Batzordeak ohartarazi du ez direla onartuko jarrera iraingarriak, eta, halakorik gertatuz gero, dagokion txarangari zigorra ezarri ahal izango zaiola.

Horregatik guztiagatik, uz-tailaren bigarren hamabostald-i honetan berriz ere argi ge-ratuko da txarangak ez direla jaietako parte-hartzaileak soi-lik: Ermuko festen nortasuna eta bizitasunaren ikur nagu-sietako bat dira.

"Txarangen arteko jolasen asteak bizia ematen dio herriko plazari urtero"



UNAI PRIETO

TXARANGA BATZORDEKO
KIDEA

"Ezinbestekoa da
santiaxuetako egitarauan
txarangek beren lekua
izatea; jolasen asteak bizia
ematen dio plazari, eta
Ermuko jaiak ez lirateke
gauza bera izango
txarangerik gabe".



NAIARA SANTOS
BATZORDEKO KIDEA

"Espero dugu txarangen jolasetako eta ekintzetako parte-hartzaile guztiak primeran pasatzea, emaitza edozein dela ere egindakoarekin gustura amaitzea eta, batez ere, giro ona izatea".



SANTI SARMIENTO
ARDURADUNA

"Ez dugu onartuko inolako diskriminaziozko edo indarkeriazko jokabiderik. Denek ondo pasatzea nahi dugu; betiere, errespetutik abiatuta eta jai giro erosoan sortuz".

 **LEIRE MAYORA**
PODOLOGOA
Erdikokale 1, 1. A - 48260 Ermua
📞 943 17 47 44



Plan B
Coffee Lounge Gin & Beer

Enter
informática
SAIAUNTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
enter@informaticaenter.com

 **E P**
Ermua Print
PERSONALIZACIÓN
 657 148 417  @ermua.print
C/ Zubikane 52 bajo - Ermua-Vizcaya - Tel: 946 781 632

 **Libreria Maribel**

Overseas 9 bags
COSTA
\$407/1403
Maribel@overseasbooks.co

Barrena
DEBABARRENEKO KOMUNIKAZIO TALDEA

Jarri esazu zure publicitatea
BARRENA astekarian
edo
www.barrena.eus
webgunean

943 743 704
688 769 657



Urteko azken ikuskizun handia egingo du Txindurrik, talde gonbidatuarekin

Zapatu honetan izango da dantza erakustaldia, 19:00etan, plazan

Ander Gomez

Urtero bezala, Txindurri Txistu eta Dantza Taldeak euskal dantzan oinarritutako ikuskizun berezia egingo du santixauen bueltan. Txindurri Egunean, Zuberoako Maskaradak *Antifazak* izenpean ekarri zituzten Ermura, eta oraingoan, Arabako hainbat herritako dantzak uztartuko dituen erakustaldia plazaratuko dute. Gainera, Oñatiko Oinatz Dantza Taldea izango dute lagun; bertako Corpus Eguneakoak dantzatuko dituzte. Txindurriko kideek azaldu dutenez, honako hau urteko azken ekitaldi nagusia izango da. Ikasturte oparoa izan dela nabarmendu dute: Burgosera eta Justiñanara egindako bidaiekin hasi zuten, eta, ondoren, Santa Zezilia, Olentzeroren erretzea eta Euskal Jaia etorri dira. Guztien artean, Hartza Egune-

ko kalejira eta *Antifazak* ikuskizuna azpimarratu dituzte.

Hala ere, kezkatuta daude etorkizunari begira. Izan ere, horrelako ikuskizunek prestaketa lan handia eskatzen dutela gogorarazi dute, eta entseguetarako erabiltzen duten espazioa kolokan dago, edukiera arrazoiengatik. Urtez urte jendearen babesa eta feedbacka gero eta hobeak direla dioten

arren, entseatzeko lekurik gabe taldearen jarduna arriskuan dagoela ohartarazi dute.

Dena den, argi utzi dute borrokan jarraitzeko asmoa dutela: "Herriarentzako euskal kultura gordetzen, mantentzen, lantzen eta dantzatzeko jarraitu nahi dugu". Momentuz, euren azken ikuskizun nagusiaz gozatzeko aukera egongo da, bihar, 19:00etan, Orbe Kardinala plazan.



Txindurriko kideak, iaz dantzatu eta antzeztu zuten *ezkontzan*. ANE ODRIOZOLA



Iazko santixauetako bertso jaialdia. VALENTIN MUGARZA MARTINEZ

Zazpi gaztek osatzen dute bertso saioko kartela, Ermuko ordezkarietarekin

A.G.

Deba Beheko Bertso Eskolak jaien bueltako ohiko saioa antolatu du datorren astelehenerako. Bertsolari Gazteen 28. aldia izango da, eta, azken orduko aldaketa bat tarteko, zazpi lagun izango dira Martxoaren 8ko taula gainean. Hainbat herritatik etorritako bertsolariak dira: June Aiestaran (Beasain, 2006) Unai Mendiburu (Algorta,

1998) Maddi Agirre (Gasteiz, 2005) Danel Herrarte (Aramaio, 2004) eta Ixone Asategi (Durango, 2005); baina, iaz bezala, bertako ordezkarietza ere egongo da, Irune Basagoitiren (Ermua, 2002) parte-hartzearekin. Aurreko aldian beste ermuar bat ere aritu zen gai-jartzaile lanak egiten, Libe Solozabal, baina aurten Maialen Bergara eibartarrak hartuko du haren lekukoa.

Euskal Birusaren kontzertua Martxoaren 8a plazara lekualdatu dute

Urtero bezala, Txikurixa zabaldu eta DJ Mariskalen disko-festa antolatu ditu Euskal Birusak. Ohiko kontzertua ere egongo da, baina aurten ez da ez elizpean, ez formatu akustikoan izango. Izan ere, banda osoko emanaldiaren aldeko apustua egin dute, eta teknikariaren iritziz elizpea ez zen espazio egokiena. Jon Moma kantautore ermuarra da

aurtengo gonbidatua, eta hark bota du proposamena, urte bukaeran Momak taldearekin disko berria kaleratuko duela kontuan hartuta. Hala, bertaratzen direnek pop-rock kontzertu borobobila, lan berriaren aurrerapen bat edo beste, eta aurten Itzuliaren kantu ofiziala izan den *Itzuliko naiz* zuzenean entzuteko aukera izango dute.



Jon Moma, Lekeition grabatutako *Bi leiho* kantu berriaren bideoklipean. MOMAK

'Urkora 69tan ezetz!' erronkak hamabost urte beteko ditu bihar

Patxi plazatik abiatuta, Urkorako bidea hartuko dute ermuarrek, Artarra Mendi Taldeak botatako erronka bete nahian: tontorrera 69 minutuan ailegatzeko. Hori bai, parte-hartzaileek ezingo dute erlojurik, telefonorik edo denbora neurtzen duen bestelako gailurik eraman; eta jendea galdetzea ere debekatuta dagoela gogorarazi dute.



Paco Diaz, iazko irabazlea. ARTARRAI





"Kirolaren exigentziagatik sarri galdu ditudan jaiei hasiera emateak poz handia ematen dit"

MIGUEL LEDESMA BLANCO SANTIXAUETAKO TXUPINEROA

Ander Gomez

Txikitatik futbolzale izan da Miguel Ledesma (Ermua, 1999), baina 20 urterekin norabidea guztiz aldatu eta triatlolari munduan murgildu zen. Kirol bakarra beharrean hiru batera praktikatzeak, ordea, emaitza bikainak eman dizkio Estatu, Europa eta mundu mailan. Urteotan, egindako lana aitortu diote herritarrek, hainbat omenaldi eta errekonozimendurekin; eta aurten, bizitzan behin jasotzen den horietako bat izango du: santixauei hasiera emango dien pregoia eta txupinazoa botatzeko ardura eta ohorea.

Nola jaso zenuen berria?

Udaletik deitu zidaten duela hilabete inguru, eta sorpresa handia izan zen. Urte osoa lanean diharduzu buru-belarri, eta ez duzu halako berririk espero.

Abenduan, Ermuko I. Kirol Galan, 2025eko Kirolari izendatu zintuzten. Zelan bizi izan duzu?

Anne Erauskinekin batera jaso nuen saria, eta ilusio handia egin zidan. Eta orain, txupinero izendatu izanak, zer esanik ez. Ermuarra izanik, herriko jaiei hasiera emateak harrotasun eta poztasun handia ematen dit. Gainera, horrelako aitortzek uste dut balio handia dutela, batez ere gazteek kirolariak ezagutzeko eta gure bizimodua erreferentetzat har dezaten.

Jai Batzordeak bereziki iaz lortu dituzun emaitzak azpimarratu ditu. Nolako izan da 2025. urtea?

Garapen handia izan dut, eta lasterketan asko hobetu. 25 eta 29 urte bitarteko kategorian, distantzia ertaineko Europako txapeldun izan nintzen, Iruñean, eta distantzia luzeko munduko txapeldun, Pontevedran. Eivisan jokatuak Espainiako Txapelketan elite mailan lehiatu nintzen eta hamalagarren sailkatu nintzen. Egindako lan guztia saria dela uste dut.

Zein diziplinatan nabarmendu zara? Igerian nahiko ondo ibili naiz. Hala ere, gehien gustatzen zaidana bizikleta da, eta desnibel handiko ibilbideak; azken finean, mendien artean bizi gara gu eta hor sentitzen naiz gusturen.



2023an Mikologiaren Lagunek omendu zuten, plazako kioskoan; aurten, bertatik botako du pregoia, ehunka lagunuen aurrean, jaiak abiarazteko. UDALA

Domekan jokatu den DH Ermua bizikleta jaitzierako sariak banatzea eskaini didate aurten ere, baina Europako Txapelketan izango naiz, Banyolessen.

Erronka handiak dituzu aurten ere, Estatu, Europa eta mundu mailan.

Gironako horren ostean, abuztuan, Alpe d'Huez triatlolan parte hartuko dut. Lasterketa arrunta da, baina berezia, urtero lagunekin joaten naizelako. Urrian, Espainiako distantzia luzeko txapelketan lehiatuko naiz, Huelvan; eta azaroan, Abu Dhabin, mundukoan. Ondo joatea espero dut, entrenamenduetan oso sentazio onak ditut eta gogotsu nago.

Lehia betean egonda, jaietan errutina zorrotzari eutsiko diozu ala festarako tarterik hartuko duzu?

Alpeetako lasterketara arte entrenatzen jarraituko dut; gero, Medinan izango naiz; eta, ondoren, opor egun batzuk hartuko ditut. Printzipioz, uztailaren 24an

"Umeek eta gazteek kirolarion bizimodua erreferentetzat hartzeko balio dute horrelako aitortzek"

Txarangen ibilbidea laburtuko da



Polola, herritarren artean, 2024ko txarangen ibilbidean. A. GOMEZ

A.G.

Jai Batzordeak txarangen ibilbidea laburtzea erabaki du. Proposamena Udaleko Kultura Sailak mahaigaineratu zuen, eta arrazoi nagusiak izan dira, alde batetik, herritarrengandik jasotako keak –ibilbidea luzeegi egiten zela esan zuten–, eta, bestetik, Udaltzaingoak errepide orokorreko zatia kudeatzeko zituen zailtasunak.

Hala, ibilbidea bi zatitan moztuko dute. Plazatik abiatu

eta Goienkalera ailegatuta, txarangek ez dute Okinzurirako bidea hartuko; VReleccendaren kaletik zuzenean igaroko dira Zubiaurrera. Bestalde, San Pelayo oinezkoen kalea egin ostean, errepideko bidea egin eta Zearkaletik pasa beharrean, Zurich tabernaren parean emango dute buelta, eta, hain zuzen ere, Diputazio kaletik egingo dute ibilbidearen azken zatia.

Txupinazo propioa izango dute umeek

A.G.

Santixauei hasiera ofiziala emango dien txupinazo nagusiaren bezperan, euren festa propioa izango dute herriko txikiak. Azken urteetako ohiturari eutsiz, Haur Kontseiluko 2025-2026ko ikasturteko kideek botako dute txupina, eta holi-hautsekin plaza koloreztatuz hasiko dute Umeen Eguneko gitaraua.

Egun osoan jarduera ugari egongo dira Orbe Kardinale

plazan: puzgarriak eta ur-parkea, buruhandiak, Txaranga Batzordeak antolatutako tailerrak... eta jolasean aritzeaz nekatzen direnean, txokolate-jana izango dute, indarrak berreskuratzeko. Arratsaldean, Eidabe konpainiak *Sardina freskue* musika-ikuskizuna eskainiko du; parranda, jolasa eta dantza uztartzen dituen emanaldi parte-hartzailea. Bukatzeko, umeek gehien espero duten jardueretako batekin amaituko dute eguneko egitaraua: apar-festarekin.

Antolatzaileek uretako betaurrekoak eta arropa zaharra eramatea gomendatu dute txupinazorako; eta bainujantzia, berriz, ur-parkean zein apar-festan parte hartuko dutenentzat.

Nerabeentzako txokoa

Iluntzean hasi eta ordu txikiak arte, nerabeei espresuki zuzendutako ekintza antolatu dute Martxoaren 8a plazan egongo den *Festan Blai* gunean: Oizeder Mayo DJaren disko-festa.



Umeak koloretako hautsekin. D. VIDAL



"Herriko taldeek ere tokia izan behar dute jaietako agertoki nagusian"

JULEN GUTIERREZ ETA AITOR CID 'CILLO' MAKIS 27 ETA ORIHEN

El Drogas eta Zea Maysen aurretik joko dute aurten bi taldeek santixauetan, eta aukera horrekin tokiko talde gehiagorentzat ateak irekitzea espero dute

Garazi Mendieta

Makis 37 eta Orihen taldeek santixauetako agertoki nagusian joko dute aurten. Aukera horrek herriko musikaren etorkizunari buruzko gogoeta ekarri die. **Zer dira kontzertu horiek zuentzat?** **Julen Gutierrez:** Ez da lehen aldia jaietan jotzen duguna, baina El Drogasekin eszenatokia partekatzea oso berezia da guretzat. Barricadaren zaleak gara, haien musikarekin hazi gara eta izugarritzko eragina izan du gure ibilbidean. Aukera hau bizitzan behin etor daitekeen horietakoa da.

Aitor Cid: Aukera ikaragarria da. Urtero talde handiak etortzen dira, eta gure nahia da hemendik aurrera tokiko taldeek ere aukera izatea agertoki berean jotzeko. Aurten, Makis 37 eta gu izango gara, baina etorkizunean beste edozein talde izan dadila.

Nola sortu zen aukera hau?

J.G.: Beti Txarto elkarteari iritsi zitzaion proposamena. Lau edo bost talde aurkeztu ginen eta zozketa bidez erabaki zen nork joko zuen egun bakoitzean. Hasieran, Zea Maysen teloneroa izango zen beste talde bat zegoen, eta gure eta Orihenen artean erabaki behar zen nork joko zuen El Drogasekin. Txanpon bat airera bota genuen erabakia hartzeko, eta guri egokitu zitzaigun. Azkenean, beste talde horren kontzertua bertan behe-hera gelditu da, eta Orihenek hartu zuen Zea Maysekin jotzeko lekukoa.

Horrelako kontzertu bat modu berezian prestatzen al da?

A.C.: Hiru edo lau erreperitorio ezberdin prestatu genituen hasieran. Pentsatu genuen Zea Mays ikustera etorriko zen publikora egokitu behar genuela, baina, azkenean, erabaki dugu



Beti Txartoren entsegu-lokala. G. MENDIETA

geure buruari leial izatea. Bederatzi edo hamar abesti joko ditugu, baina gure taldea ondoen ordezkatzeko duen erreperitorioarekin.

Horrek kontzertu hutsa baino gehiago ematen du. Horrela bizi duzue?

A.C.: Bai. Guretzat erakusleho handia da. Normalean, tabernetan, gaztetxeetan eta areto txikietan jotzen dugu, eta horrelako plaza batean aritzea ez da ohikoa. Bertan egongo diren pertsona guztien artean hamar edo hamabost lagun gure musika entzuten hasten badira kon-

tzertua gustatu zaielako, erabat merezi izango du.

J.G.: Dena daukagu irabazteko. Jende askok ez gaitu ezagutzen. Gaizki ateratzen bada, ahaztu egingo gaituzte; baina ondo ateratzen bada, agian, gure izena gogoratuko dute eta entzule berriak irabaziko ditugu.

Ermuak betidanik izan du musika eszena indartsua. Nola ikusten duzue zuek barrutik egoera gaur?

J.G.: Oso osasuntsu dago. Guk entseatzen dugun lokalean hamabost bat talde egongo dira, eta horietako askok hogeikontzertu inguru ematen dituzte urtean.

A.C.: Nik uste dut arazoa ez dela talde falta. Taldeak badaude, eta oso onak, gainera. Baina jendea gero eta gutxiago joaten da talde berriak ezagutzera. Gaur egun hogeikontzertu emanda ere, seguruenik, guztien artean

ez dugu izango datorren astean plazan izango dugun publikoaren erdia.

Horrek zaildu egiten du talde batek aurrera egitea?

J.G.: Askok. Ez dugu dirua irabazteaz hitz egiten; askotan, galtzen ez ateratzea bilatu behar dugu. Kontzertu askotan geure poltsikotik jarri behar izaten dugu dirua. Adibidez, jaietako kontzertu horietan afaria izango da jasoko dugun ordainsari bakarra. Aurrekontua itxita zegoen gu programan sartu ginenako, eta horrela onartu dugu. Baina etorkizunean horrelako aukerak hasieratik kontuan hartzea gustatuko litzai- guke.

A.C.: Udalek ere tokiko taldeen- gan gehiago sinetsi beharko lukete. Kanpoko talde handiak ekartzeko diru asko jartzen da, baina bertako taldeei ez zaizkie hainbeste aukera ematen. Horregatik eskertu nahi dugu bai El Drogasek bai Zea Maysek teloneroak izateko erakutsi duten prestutasuna.

Zuen artean ere harreman berezia dago.

J.G.: Bai. Guretzat Orihen erreferentea izan da hasieratik. Beti egon dira laguntzeko prest, eta anaia nagusiaren papera bete dute gurekin.

A.C.: Guri ere ilusio handia egiten digu Makisekin hau partekatzeak. Gu hasi gineneko urte haiek gogorarazten dizkigute askotan, eta poz handia ematen digu hain gazteak izan- da aukera hau izateak.

Zer nahiko zenukete lortu kontzertua amaitutakoan?

J.G.: Beste batzuei bidea pixka bat zabaltzea. Ea hemendik aurrera beste tokiko talde batzuek ere antzeko aukera izan dezaket, hainbeste borrokatzeko beharrik gabe.

A.C.: Herriko jendea pozik dago talde lokalak agertoki nagusian ikustearekin. Gure mezua argia da: etor daitezela kontzertuetara. Izan ere, aukera handia da guretzat, baina baita etorkizunean etorriko diren talde guztientzat ere.

"Aukera handia da bai guretzat, bai eta etorkizunean etorriko diren taldeentzat ere"

Rockaren eta musika elektronikoaren gauak

Garazi Mendieta

Musika jaialdiek ere protagonismo berezia izango dute. Beti Txarto eta Jail Room elkarteek rock eta tekno emanaldiak antolatu dituzte jaietako gauak girotzeko.

Rock doinua Martxoaren 8a plazan

Rock Jaialdiak hamarkadak daramatza egitarauaren parte izaten. Gazte Asanbladaren eskutik abiatu zen, ondoren Tokiko Rock Taldeen Elkartek hartu zuen lekukoa, eta 2010a ezkeror Beti Txarto Ermuko Musikari- en Elkartek antolatzen du. Aurten, Velkhanos, Ekinocio eta Sons of Decay taldeak igoko dira oholtzara. Hiru taldeek metalaren barruko estiloak landuko dituzte, eta, gainera, Velkhanosen kasuan, taldeko bateria- jolea Ermuko bizilagun ohia izateak ukitu berezia emango dio kontzertuari.

Musika elektronikoaren aldeko apustua

Musika elektronikoak hiru hitzordu izango ditu. Raul Parra, Alexander M, Aitana Rodriguez eta Ash izango dira kartelburuetako batzuk. Bertako artistak ere egongo dira tartean: Javier Ganuza, Markos eta Bixent, adibidez. Teknoa, trancea eta tech housea uztartuko dituzten jaialdiak Jail Room eta Beti Txarto elkarteek antolatu dituzte, kalitatezko musika elektroniko- a herriarregana hurbiltzeko helburuarekin.



Ganuza eta Bixent, besarkatzen, Elektrojaiko DJ saioan. EMILIO JOSE CARRAL

"El Drogasekin agertokia partekatzea amets bat betetzea da guretzat"



Iazko Tixaueetako talde-argazkia. MIKEL MADARIETA

Txosnaguneak bost urte beteko ditu aurtengo santixaueetan

Ospakizun bereziak, musika eta herri giroa uztartuko dituen egitarau zabala prestatu dute urteurrena ospatzeko

Garazi Mendieta

Aurtengo santixaueetan txosnaguneak bosgarren urteurrena ospatuko du. Duela bost urte, herriko eragileen eta herritarren ekimenez abiatu zen proiektua, eta ordutik jai herrikoien ezinbesteko topagune bihurtu da. Horregatik, aurtengo egitarauak urteurrenaren ospakizuna izango du ardatz, eta uztailaren 24rako eta 25erako antolatu diren hainbat ekitaldiren bitartez bost urte haueko ibilbidea eta bidea egin duten pertsonak izango dituzte gogoan.

Urteurrena ospatzeko une nagusietako bat TXOpinazoa izango da, lehenengo egunean. Aurtun berezia izango dela aurreratu dute antolatzaileek, eta txosnaguneak bost urte hauetan egin duen ibilbideari emango dio protagonismoa. Ospakizunak iraganari aitortza egiteaz gain, etorkizunera begiratzeko ere balioko du, proiektuaren oinarriak indartzeko eta herritarren parte-hartzea sustatzeko.

Urtero bezala, herri bazkariak ere lekua izango du egitarauan.

Aurtun, haragi-paella eta beganoentzako paella izango da menuan, eta bazkalostea bingo berezi batekin girotuko dute. Antolatzaileek jakinarazi duteenez, uztailaren 20ra arte eskuragarri egongo dira bazkarirako txartelak, Infren eta Hergan haragi-paella nahi dutenentzat, eta Infren paella beganoa nahi dutenentzat, 15 euroko prezioan. Bazkalosteko bingoari buruzko xehetasun gehiago sare sozialen bidez emango dute datozen eguetan.

Errespetuan oinarritutako jai giroa

Baina txosnagunea jai egitarautik harago doan egitasmoa ere bada. Autogestioan oinarritutako herri ekimena dela azpimarratu nahi dute, herriko eragileen eta norbanakoen lanari esker antolatzen dena, eta herritarren parte-hartzea sustatzea duena helburu. Horrez gain, herriaren ahalduntzea dute ardatz, eta denontzako espazio seguru eta inklusiboa eraikitzen jarraitu nahi dute, feminismoa, LGTBIQ+ fobiaren aurkako borroka eta arrazakeriaren aurkako jarrera oinarri hartuta, besteak beste.

Bosgarren urteurrenarekin batera, antolatzaileek dei egin diete herritarrei ospakizunarekin bat egin eta Txosnagunearen parte izaten jarrai dezaten. Asanbladak irekiak di-

Egitaraua

Uztailak 24

- 12:00** Txosna apainketa
- 16:30** Txosna irekiera
- 17:30** TXOpinazoa
- 22:00** KontzertuTXOak
 - Sustrai Berriak (punk-oi! estiloa, Iruñea)
 - Los Tirris (rumba-flamenkoa-popa, Tafalla)
 - Agata Lagata (reggaeton DJ saioa, Arratia)

Uztailak 25

- 13:30** Kantu-poteoa Ugaitz eta Beñatekin
- 14:45** ArgazkiTXOa
- 15:00** BazkariTXOa
- 17:00** Zorionak GURI! ekitaldia
- 22:00** KontzertuTXOak
 - Lehen Lerroa (punk-oi! estiloa, Oñati)
 - Kengan & Meya B2B (reggaetona-funka-dancehalla, Ermua-Lyon)
 - Begibide (erromeria, Ermua)

rela gogorarazi dute, eta proiektuak herritarren parte-hartzearen bidez hazten jarraitzea dela euren nahia. Horrez gain, bosgarren urteurrena ospatzeko kamisetak diseinatu dituzte, eta gaur arratsaldean salgai egongo dira, 18:00etatik 20:30era, Patxi plazan.

"Jai seguruak ardura kolektiboarekin eraikitzen dira"

IZARO NARBAIZA ETA IRUNE BASAGOITI
BRIGADA MOREKO KIDEAK

Garazi Mendieta

Txosnagunean indarkeria matxistaren aurkako erreferente bihurtu da Brigada Morea azken urteotan. Prebentzioa, zaintza eta ardura kolektiboa dira, batez ere, euren jardunaren ardatzak. Zergatik da hain beharrezkoa Brigada Morearen presentzia jai tesuinguru batean?

Izaro Narbaiza: Askotariko biolentziei aurre egiteko tresna da. Txosnagunearen parte garenez, sinisten dugu zapalkuntzarik gabeko espazio bat eraikitzean. Horregatik uste dugu Brigada Morea ezinbestekoa



Izaro Narbaiza eta Iruñe Basagoiti. G.M.

dela espazio hori zaintzeko eta seguru bihurtzeko.

Iruñe Basagoiti: Oraindik ere jaiak ez dira pertsona guztientzat berdin seguruak. Badakigu gure



Jaietako prentsaurrekoan. M. MADARIETA

herrian ere erasoak gertatzen direla eta ezin izango diegula guztiei erantzun, baina kalean presente egoteak eta gure lana ikusgarri egiteak badu prebentzio balioa. Jendeak badaki Brigada Morea hor dagoela, eta horrek ere jokabide batzuk zailantzan jartzea eta geldiaraztea ahalbidetzen du.

Zuengana hurbiltzen den pertsona batek zer aurkituko du? Zer eskaini nahi diozue une horretan?

I.B.: Gure helburua da pertsona horrek babesgune bat aurkitzea, leku seguru bat, presioarik gabe hitz egin eta lasaitzeko aukera izango duena. Urteetako esperientziatik eta prestakuntzatik abiatuta, ahal dugun modurik onenean laguntzen saiatzen gara, une horretan pertsona horrek dituen beharrezko entzunez eta haiek erdigunean jarritz.

Nola lantzen duzue Brigada Moretik protokoloa?

I.N.: Eraso bat gertatzen bada, Brigada Morea erasoaren jasan duen pertsonaren zaintza eta laguntza hartzen ditu bere gain; MutilTXOek, berriz, erasoaren jasan duen pertsonarekin egiten dute lanketa, betiere egindakoa aitortzen badu. Protokoloa klabe

eraldatzailerik eta antipunitibista gisa ulertzen dugu.

Zein da herritarrei helarazi nahi diezuen mezurik garrantzitsuena?

I.N.: Ardura kolektiboa hartu behar dugula. Ez dugu nahi Brigada Morearen lana eraso baten ondorengo erantzunera mugatzea; askoz ikuspegi zabalagotik ulertzen dugu. Jaigune seguruak eraiki nahi ditugu, eta horrek ez du lotura eraso bat gertatzen den unearekin soilik, baizik eta aurretik sortzen den giroarekin eta denon jarrerarekin.

I.B.: Batez ere, morboa eta zurrumurruak ekiditea eskatu nahi dugu. Horiek, askotan, biktima berriz biktimitzatzen dute eta ez diote inori mesederik egiten. Beraz, saiatu daitezela moztzen, uzteko lanean dagoenari lanean lasai, eta, benetan konponbide bat nahi bada, bareratik erreparatzeko.



Pasialeku Jubilatuen Elkarteko kideak, txarangen ibilbidea egin ostean, pololarekin. IRUNE MARTINEZ

Pasialeku Jubilatuen Etxeak belaunaldiak batzen dituen egitaraua prestatu du

Lehia, aitortza eta tradizioa uztartuko ditu Jubiletxeak santixauetan

Garazi Mendieta

Pasialeku Jubilatuen Etxeak aurturten ere egitarau oparoa prestatu du. Txapelketak, herri bazkaria eta herriar guztiei zuzendutako sardina-jana izango dira aurturten protagonista, belaunaldi guztien parte-hartzea sustatzeko helburuarekin.

Jarduerak uztailearen lehen egunetan hasi zituzten, ohiko karta-jokoetako txapelketekin. Briska, eskoba, kuatrola, tutea eta musa ez ezik, aurturten dardoak izango dira nobedadeetako bat. Petankak ere protagonismo berezia izango du, helduentzako txapelketarekin batera hirugarren urtez jarraian haurrei zuzendutako txapelketa ere antolatu baitute. Horren helburua da kirol hori belaunaldi berriei hurbiltzea eta adin askotariko he-

rritarren arteko harremanak sendotzea. Antolatzaileek nabarmendu dutenez, urtez urte gero eta herriar gehiagok parte hartzen dute txapelketetan, eta gogorarazten dute ekintzak irekiak direla eta edozein herriarrek parte hartu dezakeela.

Lehia eta aitortza uztartuz

Lehiaketatik harago, elkartek jaietako hitzordu berezienetako batzuk ere antolatuko ditu. Uztailearen 24an, kantu taldeak egoitza bisitatuko du. Guztira 124 lagunek osatzen dute taldea, eta musikaren bidez jai giroa bertara ere eramatea izango da helburua, egoitzako erabiltzaileek santixauak bertatik bertara bizi ditzaten.

Uztailearen 26an egingo da adinoko omenaldia. Plaza inguruan

amama eta aitaita nagusienei aitortza egingo zaie. Ondoren, bazkaria izango dute Merkatu Plazan, eta egun horretan bertan banatuko dituzte txapelketetako sariak.

Jaietako egitaraua uztailearen 27an amaituko dute, urtero bezala, herriar guztientzat prestatuko duten sardina errekin. Martxoaren 8a plazan egingo dute banaketa, 13:00ak arte edo sardinak agortu arte. Hitzordu hori azken eguneko tradizio bihurtu da, eta urtero ehunka lagun biltzen ditu jaiak elkarrekin agurtzeko. Horrela, Jubiletxeak beste behin erakutsiko du jaietan duen parte-hartzea ez dela bere bazkideetara mugatzen; aitzitik, belaunaldi guztiei irekitako egitaraua eskaintzen du, jaiak elkarrekin bizitzeko gonbidapena eginda.



Gazte kuadrilla bat paella prestatzen Erdikokalen, iazko santixauetan. A. GOMEZ

Paella-lehiaketa, lagun-taldeak jaien azken egunean batzeko aitzakia

Ander Gomez

Zezen Egunean egingo da paella-lehiaketa, santixauak mahaia- ren bueltan agurtzeko. Goizetik, kaleak mahai luzez, sukalde inprobisatuz eta txarangaz beteko dira. Izen-ematea egunean bertan egingo da, 11:00etatik 12:30era bitartean, Orbe Kardinale plazako aterpean. Antolatzaileek arroz-paketeak eta EMOE- ren mantalak emango dizkiete inskribatzen diren guztiei, eta paella entregatzeko orduan bi botila ardo jasoko dituzte txarangek. 14:00etatik 15:00etara aurkeztu beharko dute epai- mahaia- ren aurrean, eta aurkezpena, egosketa-puntua, testura eta zaporea baloratuko dituzte. Lehen sariak 500 euro eta garai- kurra izango ditu, eta bigarrenak, 200 euro eta garai- kurra.

Lobianoren bultzada

Duela urte batzuk, lehiaketa gainbeheran zegoela, Jai Batzor-

deak buelta bat emateko ardura eman zion Lobiano Gastronomía Elkarteari. Orduetik, hainbat aldaketa egin dituzte: arauak eta ordutegiak malgutzera, epai- mahaia profesionalak ez diren herriarrek osatzea bermatzea, eta kuadrillen arteko giroa indartzea ardatz bezala hartzea. Jesus Portugal presidenteak azaldu duenez, lagungarri izan dira elkartek lehiaketen antolakuntzan zuen esperientzia, eta urte luzez eurek ere parte hartu izanak: "Lehen eskutik ezagutzen genituen beharrak". Emaizak nabarmenak izan dira: "Txaranga historiko asko bueltatu dira, eta lagun-talde bakoitzeko mahai- kideen kopurua handitu egin da". Horixe da, hain zuzen, elkartearen helburua: "Azken egun gogor horretan beste modu batera elkartuko ez liratekeen kuadrillak batzea". Diotenez, "saridunak bi baino ez dira, baina irabazlea herri osoa da".

Afizionatuak, profesionalak eta herriarrek lehiatuko dira frontoietan

A.G.

Santixaurik ez dago esku-pilota jai-aldirik gabe, eta hori zaintzeaz arduratzen da Ermuko Pilota Kirol Kluba. Jokin Txapartegi elkarteko arduradunak azaldu duenez, betidanik izan dute profesionalak plazako frontoian jokatzeko ametsa, eta duela hiru urte lortu zuten. Aurturten, Agirrek eta Rekaldek neur- tuko dituzte indarrak. Gainera, berritasun bezala, kadete mai-

lako pilotarien lau eta erdiko partidak izango dira aurretik.

Hitzordu nagusia hilaren 25ean izango da. Zapatua suertatu da aurturten; iaz, Arizmendi pilotale- kua bete egin zen, eta aurturten gainezka egingo ote duen, txan- txan aritu dira antolatzaileak. CaixaBank txapelketaren baitan ariko dira Ezkurdia-Albisu eta Zabala-Iztueta; eta aurretik, Sa- laberria-Erostarbe eta Zubiza- rreta III.a-Lizeaga lehiatuko dira.



Ikusmin handia sortu zen iaz profesionalak plazan jokatzeko partidari. ESTIBALITZ GONZALEZ

Biharamunean, afizionatuen binakako partidak jokatzeko dira plazan. Nesken norgeia- goka lotzeaz dago oraindik, eta lortu ezean lau eta erdian

jokatzeko da. Mutilei dagokie- nez, Murua-Artetxe eta M. Salaberria-J. Salaberria biko- teak ariko dira. Antolatzaileek gogorarazi dute euria eginez

gero Arizmendin jokatzeko di- rela partida guztiak.

Barrusaren kulturaren aldarria

Sarritan, afizionatuen eta pro- fesionalen partidetan baino lehia biziagoa dago herriarrek santixauetako goizaldetan jo- katzen dituzten barrusetan. Izan ere, pilota kluba antola- tzailea ez bada ere, Txapartegik ermu- ar guztiak animatu ditu batzera: "Guk beti jokatu izan dugu, giro ona dago eta barre asko egiten da; alegia, ezinbes- tekoa da herriarrek sortutako horrelako ohiturak ere man- tentzea".

JAIETAKO EGITARAUA

LARUNBATA 18 MOTO TOPAKETA

- **10:00** Izen ematea, gaztetxean.
- **11:00** Motorren itzulia, Soraluzetik abiatuta.
- **12:00** Poteoa eta zozketa Latuna Bando txarangarekin, herrigunean zehar.
- **14:30** Motorzaleen bazkaria, Zubi Nagusian.
- **18:00** Trial erakustaldia, Zubi Nagusian.

IGANDEA 19 SORALUZeko ARROZAK

- **11:00** Soraluzeko Arrozak prestatzen hasi, Plaza Zaharrean.
- **11:00** Haur, gazte eta familiendako Bizijolas jolas askerako gunea, Zubi Nagusian eta Plaza Barrixan.
- **12:00** Soraluzeko emakume pilotarien pilota erakustaldia. Laida Sanchez-Maddi Gabilondo eta Lur Egizabal-Itsasne Lizarralde, Arane kiroldegian.
- **13:00** Soraluzeko emakumeen* batukada feministaren kalejira, herrigunean.
- **13:30** Arroz dastaketa eta ostean parte hartzaileen bazkaria, Plaza Zaharrean.

OSTEGUNA 23 GAZTE EGUNA

- **11:00** Abentura parkea gaztetxoentzat, Frontoi Zaharrean.
- **12:00** Txupinazoa, txosna zabaltzea eta karropoteoa, Zubi Nagusian.
- **15:00** Gazteen bazkaria, Zubi Nagusian.
- **17:00** Gazteen arteko jolasak, Zubi Nagusian.
- **18:30** Patxangoi Elektrotxarangarekin kalejira, herrigunean.
- **23:00** Polo Opuesto taldearen kontzertua, Zubi Nagusian.
- **01:00** DJ Aiakateren kontzertua, Zubi Nagusian.

OSTIRALA 24

- **10:00** Soraluzeko Diadar Txistularien goiz-eresia, herrigunean.
- **11:00** Gaztetxoentzako tortilla lehiaketa, Plaza Berrian. *LH5-LH6 eta DBH1, heldu baten laguntzarekin. DBH2-3-4, laguntzarik gabe. Izen emateak, udaletxean, plazak amaitu arte.
- **13:00** Kantu-jira, Plazentzian Kantuan taldearen eskutik, herrigunean.
- **17:15** Jaietarako beroketa zumbaren erritmoan, Zubi Nagusian.
- **17:45** Areto Futbol Txapelketako hirugarren eta laugarren postuak.
- **19:00** Kanoikada udaletxetik, jaiak hasteko.
- **19:00** Galtzagorri Txarangaren kalejira, buruhandiek lagundurik.
- **19:15** Soraluze Open Air RCTM musika elektroniko jaialdia, kiroldegiko terrazan.
- **19:30** Areto Futbol Txapelketako final nagusia.
- **23:00** Añube taldearen kontzertua, Plaza Zaharrean.
- **23:30** Sexubizi informazio-gunea, Zubi Nagusian.
- **00:30** Streetwise eta M&M taldeen kontzertua, Zubi Nagusian.



Añube taldea; barikuan izango dira Plaza Zaharrean.

LARUNBATA 25 SANTIAGO EGUNA

- **09:00** Soraluzeko Diadar Txistularien goiz-eresia, herrigunean.
- **10:30** Herriko artisauen azoka, Plaza Zaharrean.
- **11:00** Salda eta txorizoa, Arriogain elkarteak eskainita, Plaza Zaharrean.
- **11:00** Haur eta gaztetxoendako krosa (2-16 urte), Plaza Zaharrean.
- **12:00** Debabarreneko gazta eta sagardo dastaketa, Plaza Barrixan.
- **12:00** Soraluzeko erraldoien aurkezpena, udaletxe aurrean. Ondoren, Arrasateko erraldoi eta gaiteroekin batera kalejira herrigunean.
- **14:00** Pancho Balbuenaren kontzertua, Santa Ana kalean.
- **15:00** Herri Bazkaria, Pancho Balbuenaren musikak lagunduta, Kalebarrenen. Hiru menu: arrunta, begeta/halala eta

haurrena. Langileek, 15,50 euro; langabeek, pentsiodunek eta haurrek, 10,50 euro. Txartelak, Iratxon salgai.

- **16:30** Bazkalostean, bingoa eta umeentzako jolas-tailerrak, ikasbidaiaoen eskutik.
- **17:00** Mus eta tute txapelketak, Plaza Berrian.
- **18:00** Tavolet zirkua emanaldia, Zirkotxoskoren eskutik, Plaza Zaharrean.
- **18:30** Jai alai zesta-punta txapelketa, Arane kiroldegian.
- **19:30** Maialenen eta Elaiaren kontzertu akustikoa, Zubi Nagusian.
- **20:30** Toka eta igel herri txapelketak, Plaza Barrixan.
- **22:00** Danborrada, herrigunean.
- **00:00** Los Tenampas mariatxi taldearen kontzertua, Plaza Zaharrean.
- **00:00** RCTM tekno gaua, kiroldegiko terrazan.
- **01:00** Fan & Go taldearen kontzertua, Zubi Nagusian.

IGANDEA 26 SANTA ANA EGUNA

- **06:45** Gaupasazaleen argazki erraldoia, Zubi Nagusian.
- **07:00** Soraluzeko Gaiteroen diana.
- **07:30** Zezenak, Soraluzeko Gaiteroek alaiturik.
- **11:00** Salda eta txorizoa, Ibai Eder elkarteak eskainita, Plaza Zaharrean.
- **11:30** Herri mailako Bakailao Lehiaketa, Plaza Zaharrean.
- **11:30** Puzgarriak, Frontoi Zaharrean.
- **12:00** Meza Nagusia, Diadar txistulari taldeak giroturik, parrokan.
- **12:30** Herri kirol erakustaldia, Plaza Barrixan.
- **13:30** Apar Festa, Frontoi Zaharrean.
- **13:45** Bakailao Lehiaketako sari banaketa eta txartel banaketa, Plaza Zaharrean.
- **14:45** Presoen aldeko bazkaria, Plaza Zaharrean.
- **17:00** Puzgarriak, Frontoi Zaharrean.
- **17:00** Barru herri txapelketa, Goiko Frontoian.
- **18:00** Zezenak, Arrasateko gaiteroek eta Leuneko taldeak alaituta.
- **20:00** Larrain dantza, Plaza Zaharrean.
- **20:30** Oliba-hezur jaurtiketa txapelketa, udaletxe aurrean.
- **21:15** Mojitada eta mahai-futbol txapelketa, gaztetxean.
- **22:30** Zezensuzkoa, herrigunean.
- **23:00** Neomak taldearen kontzertua, Plaza Zaharrean.
- **00:30** DJ Berbiren kontzertua, gaztetxean.



Mutiko bat tirolinatik jaitsi aurretik.



Neomak taldea; Soraluzen domekan izango dira Plaza Zaharrean.



"Erraldoiekin dantzan egitera 15 eta 17 urte artekoak eta guraso gazteak animatu dira"

ERRALDOIEN KONPARTSA

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Sortu berri den Soraluzeko Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa kideak izango dira jaietako pregoilariak. Horrez aparte, uztailaren 25ean erraldoi berriak aurkezteko ekitaldia egingo dute, 12:00etan, udaletxe azpian. Ekitaldiaren ondoren, kalez kale ibiliko dira, Arrasateko erraldoiekin batera.

Zenbat eta zelako erraldoi berriak izango ditu Soraluzek?

Bi erraldoi estreinatuko dira; lehen aldiz kalera uztailaren 25ean aterako ditugu, musikariak lagunduta. Aurkezpen ekitaldian azalduko da zeintzuk diren, zein izen duten eta zergatik aukeratu diren. Erraldoiak Xabier Mendizabal Vitoriano oñatiarrak egin ditu, eta harekin lantaldean aritu dira Mari Jose Carmona Moyano joskina, Joanes Diez Mateos arotza eta Ane Albisu Iriarte jantzien diseinuan aditua. Kalejiraz gain, dantzaren bat ere prestatzen ari gara.

Zergatik erraldoiekin batera konpartsa sortzea?

Ezinbestekoa da. Erraldoiak eduki baina haiek nork dantzazaziko ez badago, alferrik gabiltza. Ezinbestekoa da erraldoiak

biziarazteko dantzaraztea, eta horretarako behar da konpartsa, dantza egiteko eta musika ipintzeko. Hogeitaz lagunek osatzen dugu, momentuz, konpartsa. Dantzan eta laguntzen hamabi bat, eta musikariak. Erraldoiekin dantzan egitera, batez ere, 15-17 urte bitarteko gazteak animatu gara, eta guraso gazteak; eta musikariak dira gaiteroak, txistulariak eta danbor-joleak. **Erraldoiak erabiltzeko ikastaroak egin izan dira?**

Arrasatera eta Oñatira joaten ari gara dantzak ikastera eta erraldoiak erabiltzen ikastera. **Zelakoa izan da erraldoiak sortzeko prozesua?**

2025eko udazken eta neguan abiatu genuen. Hasieratik bi lantalde jarri ziren martxan. Bata, konpartsa sortzeko. Haiek hasieratik egon dira harremanetan arrasatearrekina eta oñatiarrekin, jakiteko zelan sortzen den konpartsa bat, zer behar den eta beste. Hor egon dira gaur egun konpartsa kide garenak eta musikariak. Eta beste lantaldean, berriak, herritar talde bat aritu gara, pentsatzen gure herriarekin lotuta zer erraldoi sortu, zer irudikatu nahi duten,

Soraluzeko herri identitatearen isla izango direlako erraldoiak. Hori dena ez da izan edozelan aukeratutakoa; zeintzuk izango diren, zer gorpuztuko duten, zer irudikatu nahi duten, zer eramango duten eskuetan, zer jantzi... hori dena oso ondo pentsatuta egon da. Lantalde bakoitzak bere ibilbide paraleloa egin du; betiere, elkarren arteko komunikazioan oinarrituta. Nahiko genuke bereziki aipatu Xabi Mendizabal Vitoriano, erraldoiak egiteaz gain izugarri dabilelako laguntzen erraldioen bueltako denarekin; dantzak eta beste. Zoragarria da harekin lan egitea. **Behin jaietako aurkezpenera eginda, zein da asmoa konpartsarekin?** Adosteko dago. Konpartsako kideok erabakiko dugu herriko zein ospakizunetan irtengo garen. Eta herritik kanporako aukera ez da baztertzen, baina, momen-

"Zer irudikatuko duten, zer eramango duten eskuan, zein jantzi... hori dena oso ondo pentsatu da"



Erraldioen konpartsako hainbat kide erraldoi egileekin, Oñatin, joan den astean. KONPARTSA

tuz, herrikoa ondo findu nahi dugu.

Norbait animatuko balitz, badago konpartsako kide egiteko aukerarik?

Ateak zabalik daude konpartsakide izan nahi duten guztientzat, erraldoiak dantzarazi nahi dituztenentzat zein bestelakoentzat, ze erraldioen inguruan laguntza handia behar da: bidea egiten, ura eramaten, gauzak eramaten, erraldoiak ez dezan inor harapatu eta ez dadin jausi ingurua zaintzen... Nahi duenak argazkiko edozeinengana jo dezake. **Erraldoiak ja bukatutzat eman dira ala denborarekin gehiago egingo dira?**

Hau bide baten hasiera da. Pentsatuta dugu aurrerago egiteko erraldoi posible batzuk, baina, lehenengo, ikusi behar da honekin zer bide sortzen den. Hala ere, aurreikusten dugu datorren urtean buruhandi berriak egitea.

Bide hori ere prestatzen ari gara. Erraldioen pertsonaien lantaldea izan dena orain ja badabil pentsatzen ze buruhandi egin daitekeen; baditugu ideia batzuk jasota; orduan, gero bide hori egingo litzateke.

Oraingo berriek izena izango al dute?

Erraldoi berriek izena edukiko dute, hori 25ean jakingo da; horregatik animatu nahi ditugu herritar guztiak aurkezpena, ez umeak bakarrik, adin guztietako herritarrek, uztailaren 25ean 12:00etan kontzejupe aurrera eta gero gurekin kalejiran ibiltzera.

Besterik nahi baduzue gaineratu... Konpartsako ateak zabalik daudela. Ez da jakin behar ez dantzan ezta beste ezer ere. Saltsarako gogoia edukitzea besterik ez da behar; oso giro ona dago taldean, eta horretara animatzen ditugu herritarrek.

aras
zehaztasun handiko piezak
Mendiola Industrialdea 19
Tel. 943 75 17 36 - 943 75 18 03
Fax 943 75 22 95
aras@tornilleriasaras.com
www.tornilleriasaras.com

ION MURGIZU BAKAIKOA PINTOREA
amata dekoraziorikoa industriala
Tel. 943 75 13 24 - Móg. 652 77 70 30

Almadrá
ileopaindegia Estetika Solariuma
Gabeletx 6, beheko - Tel.: 943 75 15 13 - 682 51 14 04

ELIZPE HORTZ KLINIKA
Tel. 943 75 25 67

SORALUZE MOTOR
Mendiola ind. 13 Soraluze
474 556 817 - 943 75 21 38
itv

IXOTU
BIO INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
AUTOMATIZAZIO, INSTALAZIO ETA MANTENIMENDU INDUSTRIALA
BERGARA - 943 044 728

Elektrizitatea Iturgintza Igeltseritza Pintura
EXGA S.L.
679 623 584 Soraluze

MENDIZABAL okindegia
Ogia - Prentsa - Gozariak
Astelehenetik ostegunera:
08:00 - 13:00
17:00 - 19:30
Ostiralak
08:00 - 13:00
Larunbatak
08:30 - 13:30
Kalebarren 10
Tel.: 943 75 13 99

ODR ATEAK ETA LEIHOAK
ALUMINIO ETA PVC AROZTEGIA
T. 662 234 809
Sagor Eneko Kalea 2 - 30990 SORALUZE
e-mail: odrlehoak@gmail.com

laibi 25 urte
Mendiola Industrialdea 13 Soraluze
Tel. 943 75 12 69
www.laibi.net

Soraluzeko Kooperatiba Elkarte
1914tik zabalik
Arraindegia, janaria, erropak, etxeko tresnak, etxera eramaitako zerbitzua
Astelehenetik ostegunera:
09:30 - 12:30 eta 13:00 - 19:45
Larunbatak: 09:30 - 13:00
Kalebarren 4
Tel.: 943 75 13 45

Criado
Fruktategia Urdaitegia
• Enkarguak Vihatsapaz
• Etxerako zerbitzua
• Iberikoak & delicatessen
Astelehenetik ostegunera:
09:00-13:00 eta 17:00-20:00
Larunbatak: 09:00-13:00
429 958 636

Batzoki
Asteburuetako menua, plater konbinatuak...
Plaza Zaharra (Soraluze)
Erreserbak:
638 91 15 97

Emakume soraluzetarrez osatutako batukadak erritmoz beteko du kalea

Domekan, Batukada Feministarekin batera, Munduko Arrozak izango dira protagonista

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Etzi, jaien aurreko domekan, Batukada Feministak eta Munduko Arrozak piztuko dute jai giroa erdigunean, eguerdian hasita.

Asko iazkoak

Batukada Feministari dagokionez, joan den domekan egin zuten azken entsegua, Herri Antzokian.

Hoge bat lagun batu dira taldera aurten. Nerea Mendia sortzaile eta gidariak esandakoaren arabera, asko dira iaz ere Batukada Feministan parte hartu zuten emakumeak, eta igartzen zaie iaz ikasitakoa, "nahiz eta asko beste instrumentu batekin ari diren aurten".

Ildo beretik, Mendiak esan du "oso kurtso berezia" izan dela eta "oso talde polita" sortu dela aurten ere.

13:00etatik kalean

Emaitza etzi erakutsiko dute, domekan. 13:00etan hasita, erdigunean ibiliko dira kalerik kale; geldiuneak egin, eta entseguetan praktikatzen ibili diren erritmo biziak zabalduko dituzte lau haizeetara.



Batukada Feministako kideak, domekan, entseatzen. U.M.Z.

Zortzi erataria prestatutako arrozak

Seigarren aldiz, jatorri eta ohitura askotariko bizilagunek egindako arrozekin Soraluzeko Arrozak ekimena izango da domekan. 11:00etan hasiko dira sukalde-lanetan, eta nork bere erara kozinatuko du arroza. Kozinatu bitartean, *Bizijolas*, jolas askerako gunea egongo da Zubi Nagusian eta Plaza Barrixan. Arrozak, berriz, 13:30an hasiko dira banatzen, 2 euroan errazioa.

Soraluzeko Arrozetan partaide zortzi sukaldari izango dira, jatorriz Euskal Herrikoak, Marokokoak eta Kolonbiakoak direnak. Soraluzeko hizkuntza eta kultura aniztasuna ezagutu eta munduko hainbat herrialdetako errezetak eta zapoak deskubritzeko aukera emateko abiatu zen Soraluzeko Arrozak.

Plaza Zaharra eta Zubi Nagusia izango dira motorzaleen topagune bihar

U.M.Z. SORALUZE

Bihar, zapatua, 12:00etan hasiko da Motoclub Plaentxik antolatutako motozaleen jaia herrian. Orduantxe ailegatuko dira Plaza Zaharrera, inguruko errepideetan osteratxoak egin ondoren. Plaza Zaharra motorren erakusleihu bilakatuta, bertan lagako dituzte aparkatuta, herritarrek ikus ditzaten, euren Latuna Bando txarangarekin poteoa egiten duten bitartean; gero, elkarrekin bazkalduko dute, Zubi Nagusian.

Trial-akrobaziak

Aurtengo showa, berriz, trial erakustaldia izango da. Kamioiarekin eta hainbat arrapalaz osatutako zirkuitua Zubi Nagu-

sian jarriko dute, eta akrobazia ikusgarriak egingo dituzte Marcel Justribo eta Jordi Pascuet pilotuek. 18:00etan hasiko da.



Kamioiaren gainera igotzen. TRIALSHOWS

Zestoako eta Oñatiko pilotari bikotea, soraluzetarren kontra

Domekan, 12:00etan, emakume pilotarien partida izango da Arneko frontoian. Azken orduko aldaketak tarteko, Soraluzeko Pilota Elkartetik Laida Sanchez soraluzetarrak eta Maddi Gabilondo bergararrak osatuko dute bikotea, eta aurkari izango dituzte Zestoatik etorriko den Laia Gastiaín eta Oñatitik etorriko den Itsasne Lizarralde.

Barikuan eta zapatuan gaueko autobusak izango dira

Uztailaren 24tik domekara, gaueko autobus zerbitzuak izango dira Soraluzeko jaietara joan-etorria egiteko. Barikuko autobus zerbitzu bereziak Eibartik -01:00etan hasita- eta Aretxabaletatik -00:00etan hasita- izango ditu irteerak, eta Arrasatetik, Bergaratik eta Osintxutik ere igaroko da. Zapatuan berezko gaueko zerbitzua izango da.

Armendi Jatetxea
Sukalde tradizionala
Eguneko menua
Asteburuetan menu berezia
Karta
Burduntzian erretako bidotsea
Etxeako trinkak
Soufflés
Tel.: 943 75 10 02

MABEL ILEWPAINDEGIA
Laser depilazioa
Keratina tratamendua
Solariuma
Errabal 1
Tel.: 943 75 14 89

BELAI TZ
NEKAZAL ETA INDUSTRI HORNIGAIK
Zakurrentzako janaria eta osagarriak

ALBISUA
TAILER MEKANIKOA
Mekanizaturako piezak - Erremintak
Mendiola Industrialdea 14-4 - 161 PK.
Tel. 943 75 21 42 - Fax 943 75 24 12
E-mail: albisua@albisua.net

OSTIA KARATEGA
- Enkarguak hartzen ditugu
- Gertuko gaudela
- Etxeak tripaki, beisbola, saltitxak eta mingaina
Ezaburua 5
Telefonoa: 943 75 23 75

TXURITXU GOZOTEGIA
Astelehenerdik ostiralera: 08:30-13:00 eta 16:30-20:30
Larunbata: 08:30-13:00
Igandak: 08:30-14:30
Gosariak, egia, perrak, pastak, bombak...
Itxera eramaneko zerbitzua
Tel. 943 75 24 43

IZAGUIRRE
Igeltzeritza
Eraikin berriak - Kalitateko emaitza
Erreforma - Era gurtietako igeltzeritza
50 urteko esperientzia - 610 838 913

MGS Seguros
Verónica Gallarraga
Gertuko eta segurua
Astelehenerdik ostiralera: 20:00 - 13:30 eta 17:00 - 19:30
Santa Ana 13
Tel. 665 744 055

Txoko
Eguneko menua, plater konbinatuak, handiengak, ogitartekoak, raziak, pizza, gosaria...
Enkarguak egiten dira
Tel. 943 75 17 09

Casa del pueblo Herriko etxea
Jaietan, eguerdian karta eta gauean ogitartekoak
Tel. 943 75 20 45



Abentura parkea, barrakak, krosa, apar festa, puzgarriak... jai beteak gaztetxoendako

Uztailaren 23an eta 27an Umeen Egunak dira eta barrakak merkeagoak izango dira

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Umeendako eta gaztetxoendako eskaintza oparoarekin datoz jaiak, eguenetik hasi eta aste-lehenera arte. Hain justu, Gazte Eguneke lehen hitzordua Abentura Parkea izango da 11:00etatik 13:30era. Denetariko elementuak ipiniko dituzte Frontoi Zaharrean: tirolina, kutxa dorreak eskalatzeko, oreka jolasak, arku tiroa... 6-16 urtekoendako.

Tortilla, krosa, erraldoiak...

Kanoikadaren egunean, berriz, 11:00etan Tortilla Lehiaketa jo-

katuko da Plaza Barrixan. LH5 eta DBH4 arteko gaztetxoei zuzenduta dago eta izen-ematea zabalik dago, udaletxean.

Zapatuari dagokionez, egun bete dute. Kirola eginez hasiko dute, 11:00etan jokatu den krosarekin. 2 eta 16 urte artekoendako da, Plaza Zaharrean. Egunean bertan eman daiteke izena, eta parte-hartzea zein egin beharreko zirkuituak adinen arabera antolatuko dituzte.

Erraldoi berrien eta konpar-tsaren aurkezpena izango dute segidan, 12:00etan, eta gero, he-

rri bazkarian parte hartzeko aukera ere bai. Hori 15:00etan hasiko da, eta, bazkalostean, bingoa zein jolas-tailerrak izango dira, ikasbidaiaiko gazteen eskutik.

Eguna borobiltzeko, 18:00etan, *Tavolè* zirku emanaldia izango da, Plaza Zaharrean, ZirkoTxos-koren eskutik.

Puzgarriak eta apar festa

Azkenik, domeka puzgarrien eguna izango da. 11:30ean hasi eta 13:30ak arte goizez eta 17:00etan hasita arratsalde,



Kroseko partaideak garaikurrekin, iazko talde argazkian. EGOITZ UNAMUNO LOIDI

Frontoi Zaharrean. 13:30ean, apar festa ere egingo dute.

Barrakak

Eta horrez guztiaz gain, jaietan egunero izango dira Erregetxeko barrakak zabalik, goizez, arratsalde zein gauez; baita bertan dagoen txurro-denda ere. Gainera, uztailaren 23an -egue-

na- eta uztailaren 27an -aste-lehena- Umeen Egunak izango dira, eta barraken prezioa bestelako egunetan baino merkeagoa izango da: 1,5 euro.

Osterantzean, iazko prezio berberak izango dituzte barrakek: 2,5 euro buelta bakoitza; sei buelta erosiz gero, berriz, 10 euro.

Bi leku bakarrik daude libre domekako bakailao lehiaketarako

U.M.Z. SORALUZE

Jaiak gozo jateko aukera ere emango dute. Batetik, zapatuan eta domekan, Arriogain eta Ibai Eder elkarteek partituko dute jaietako salda eta txorizoa, 11:00etan hasita, anbulatoriopean.

Gazta eta sagardo dastatzea

Bestetik, zapatuan ere Debabarreneko produktuak dastatzeko

aukera izango da, Plaza Barrixan: Egotzako eta Mausitxako gaztak eta Lizagasarreko sagardoa. 12:00etan hasiko da eskaintza: gazta-pintxo bakoitza euro bat, eta bi euro sagardoa, nahi beste edateko.

Eta zapatuan, Pancho Balbuenak girotutako herri bazkarian parte hartzeko aukera izango da, menu arrunta, begeta/hala-

la eta haurrena aukeran -txartelak, Iratxon-. Gainera, bazkalostean bingoa eta jolasak izango dira, ikasbidaiaiko gazteen eskutik.

Bakailao lehiaketa, ia beteta

Bestetik, domekan bakailao lehiaketa preziatua jokatu da. Izen-ematea ia beteta dago, aste honetarako dagoeneko hamalau bikote baitzeuden izena emanda, eta beste birendako lekua bakarrik dago. Izena eman dutenen artean, 40 bat urte baino gehiagor parte hartzen diharduten



Bakailao lehiaketa, iaz. U.M.Z.

sukaldari beteranoak ere badi-ra: Angel Aldazabal eta Ignacio Zubizarreta, zehazki.

Sukaldariak 11:30ean hasiko dira bakailaoa nork bere ukitu bereziarekin prestatzen, eta 13:00etarako prest izan beharko dituzte platerak. Segidan, epai-mahaiak, haien itxura, zaporea eta testura baloratuta, bakoitza puntuatu eta hiru txapeldunak izendatuko ditu.

Azkenik, 13:45ean, bakailao-pintxoak hartzeko txartelak banatuko dituzte bertaratzen direnen artean.

Herboristeria Parafarmazia Dietetika

Orain, produktu eta zerbitzu gehiago:

- Sosolako ogia
- Kirolarientzako produktu naturalak
- Masaje, naturopatia, dietetika eta iridologia zerbitzuak.

Tel. 943 50 78 50
688 710 639

Soralucek jai zoriontsuak opa dizkizue!



Danborradako aurtengo kideak entseatzan, Fronto Zaharrean, joan den asteko egunean. U.M.Z.

Iaz baino partaide eta konpainia gehiagorekin desfilatuko du danborradak

Hamahiru konpainia izango dira; berria, danborrekin irtengo diren baserritarrena

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Asteotan, danborradako kideak buru-belarri ari dira frontoian entseuetan, uztailearen 25eko hitzordua prestatzen. Entsegu bakarra geratzen zaie dagoeneko, datorren martitzenean egingo duten orokorra.

Berritasunekin etorriko da aurtengo hitzordua. Adibidez, gaztetuta ikusten da taldea; horixe diote partaide beterranoek ere, pozik, gazte gehiago egoteak danborradaren ondorengotzan lagunduko duelakoan. "Jende gehiago dago, gazte gehiago eta danborrak jotzen irtengo den jende gehiago", esplikatu dute antolatzaileek eurek ere.

Konpainia bat gehiago

Kopurutan, 170 bat pertsonak osatuko dute danborradaren aurtengo desfilea. Eta konpainia berri bat izango du: baserritarrena.

Izan ere, danbor-jole gehiago dira, eta ez dute nahikoa jantzi guztiek gudari moduan desfilatzeke; hori horrela, danbor-jotzaileetako batzuek baserritar jantzita desfilatuko dute, baserritarren konpainia berria osatuko dute eta. Hartara, guztira, hamahiru konpainia irtengo dira, iaz baino bat gehiago –ondoan, konpainia guztiak taulan–.

Musikariei dagokienez, hori ere kopuru polita elkartuko da, 30 bat lagunek osatuko baitute banda; soralezarrek batera, arrasatearrak, bergararrak, ei-

bartarrak eta tolosarrak izango dira, besteak beste. Guztien zuzendari izango dute Andoni Ariznabarreta Burunza.

Hori horrela, partaide guztiak batuta, 200 lagun baino gehiagorekin desfilatuko du danborradak.

Zuzendari eta banderadun berriak

Kopuruez aparte, bestelako berritasun batzuk ere izango dira aurtan.

Batetik, barrilen zuzendaria; aurtan, Deiene Gisasola ari da Luis Urizarren ordezkidari lanak egiten; eta lehenengo aldiz izango da barrilen zuzendaria emakumezko bat.

Bestetik, berriak izango dira banderadunak ere: Leire Mendizabal eta Damaris Ojeda. Azken hori iaz kantineren zuzendari izan zen.

Aurtengo konpainiak

Mikeleteak, kantinerak, agintariak arrantzaleak, gudari urdinak danborrekin, gudari gorriak barrilekin, gozogileak danborrekin, sukaldariak barrilekin, baserritarrek danborrekin, sukaldariak, aparejeruak, ehiztariak eta kanonistak.

Danborren zuzendaria, berriz, azken urteotakoa izango da: Unai Larreategi.

Ez kantinerarik, ez apaizik

Kantinerekin lotuta, hori ere bada berritasun, aurtan ez baita izango oinezko kantinerarik. Eta ez da izango ere apaiz figurarik danborradan.

Osterantzean, kanonista ibiliko dira hiru lagun, hirurak beterranoak, Oier Cerrejonek, Leire Elizburuk eta Enaitz Orueagasti *Bizkai*-k errepikatu egingo baitute iazko esperientzia.

Gabolatseko zubitik

Danborradaren gainerako jakin beharrekoak dagokienez, ibilbideak ere badu berritasun bat, Gabolatseko zubi berritik pasatuko baitira lehen aldiz; iaz ere nahi zuten hori, baina ez zen posible izan, obra bukatu barik zegoelako. Osterantzean, ibilbidea ohikoa izango da. Txurrukenetik abiatuko dira, 22:00etan, eta, bidean hiru lau geldialdi egingo dituzte, Atxurin, Zubi Nagusian eta Plaza Zaharrean joaldiak eginez, eta SAPan atsedenaldia.

'Sekula ere', 'Zezenak dira'...

Azkenik, danborradan joko dituzten piezak iazkoak izango dira. Soralezuko hiru: *Sekula ere*, *Zezenak dira* eta iaz estreinatu zuten *Atxolin*; Eibarko *Pantxika* pieza; *Debako martxa*; Azpeitiko *Txokolo*; Tolosako *Artillero*; eta Donostiako lau: *Martxa*, *Diana*, *Tatiago* eta *Iriyarena*.



Hainbat herritar, iazko bazkarian. U.M.Z.

Kanoikadaren ondoren zabalduko dute Plaza Zaharreko txosna

U.M.Z. SORALUZE

Kanoikadaren ondoren zabalduko dute Plaza Zaharreko txosna, eta zapatuan eta domekan 11:00etatik aurrera egongo da zabalik. Bertan, jan-edanerako aukera eskainiko dute egunero, pintxoekin zein ogitartekoekin.

"Helmuga, denak etxera"

Horrez aparte, domekan, uztailearen 26an, "errepresaliatuen aldeko bazkariaren ohiturarekin" segituko dutela iragarri dute. 14:45an izango da. Txartelak Arranoan eskura daitezke, uztailearen 21era arte.

Ekimenaren antolatzaileek azpimarratu nahi dute garaia dela "blokeo egoerak gaititu

eta elkarbizitza erreal baterako bidea eraikitzeke".

Honako mezu hau helarazi dute: "Urte luzez sufrimenduzko espetxe politika pairatu dute presoek, egoera latza eta gogorrek baita iheslari eta deportatuek ere. Euskal gizarteak lanean jarraitzen du hori guztiori amai dadin, eta guk hemendik hori aldarrikatzen dugu. Presorik, iheslaririk eta deportaturik gabeko agertoki bat lortzea ezin bestekotzat jotzen dugu euren eskubideen eta aldarrien alde lanean gaitzizanak. Blokeo egoerak gaititu eta elkarbizitza erreal baterako bidea eraikitzeke garaia da. Guk argi dugu: helmuga, denak etxera!".

Rocka, mariatxiak eta folk musika protagonista Plaza Zaharreko taulan

U.M.Z. SORALUZE

Barikutik domekara, 23:00etan hasita, kontzertu bana izango da Plaza Zaharreko taulan.

Bergarako, Arrasateko, Aretxabaletako eta Ataungo musikariak dituen Añube rock taldea izango da barikuan. Aretxabaletako Areantza auzoan bosgarren urteurreneko *Iluntasunetik argitasunera* jaialdi berezia egite-tik indartsu etorriko dira.

Los Tenampas eta Neomak

Zapatuan, berriz, mariatxiak izango dira errege, Los Tenampas nafarren eskutik. Hirugarren urtez etorriko dira Soralezera.

Eta domekan, Neomak talde entzutetsuak hartuko du lekukoa.

Plazak betetzen ari dira ezagun asko bihurtu diren folk kantuekin. *Lasturak orbain* bigarren diskoarekin etorriko dira.



Los Tenampas. LOS TENAMPAS



"Rap klasikoaren sustraiak ditu diskoak, baina gure erara moldatuta; gure esentzia du"

MIKEL OREGI CACHO, INA PEÑALBA ETA MARTIN RECALDE POLO OPUESTO

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Jaietako ekitaldien artean, gazteen txosnagunean kontzertua emango du Polo Opuesto Soraluze-Eibarko taldeak. Uztailaren 23an izango da, 23:00etan. *Extinto* izenburuko disko berria dutela igoko dira oholtzara. Ekainaren 19tik eskura daiteke Mikel Oregi (Soraluze, 1998), Ina Peñalba (Soraluze, 1997) eta Martin Recalde (Eibar, 1997) musikarien azken lana. Auto-grabatu egin dute, Jondar Platan laguntzarekin, eta azalaren diseinua Xabier Jauntsaratsek egindakoa da.

Zergatik deitzen da *Extinto* disko berria?

Motibo handirik ez dago. Ikusita zelan dagoen panorama gaur egun, lehengo zerbait egiten ahalegintzen gara gu. Gustatzen zaiguna lehengo rap klasikoa da. Mikeli okurrirru zitzaion izena, gustatu egin zitzaigun, eta halaxe.

Panorama aipatzen duzue; zein panorama?

Musika urbanoaren panorama. Dena modernizatu egin da. Momentu batean modan ipini zen rapa, eta zerbait modan ipintzen denean askoz ere komertzialago bihurtzen da. Guri hori ez zaigu hainbeste gustatzen; guri raparen sustraiak edo hasierakoa zena gustatzen zaigu. Hori plasmatu nahi izan dugu. Baina ez da hain erromantikoa izena, ez du misterio handirik.

Diskoa bera zelakoa da?

Musika aldetik klasikoa da, baina gure erara moldatuta. Sustraiak lehengoak ditu, baina, nolabait, gure erara eginda; gure esentzia dauka.

Txertoan grapheno, KM 0, Sí o no... dira kantuetako batzuk. Zenbat eta zelakoak ditu?

Hamar kantu dira. Denak onak; kar-kar. Nahiko arinak dira, ez dute sakontasun handirik. Nahiko banalak; buelta handirik ez diogu eman buruari. Disko erraza da entzuteko.

Zenbat kopia atera dituzue? Eta non eskura daiteke?

125 kopia, oraingoz. Lehen edizioa; kar-kar. Spotifyn, Youtuben... denean eskura daiteke.



Ina Peñalba (aurrean), Martin Recalde (ezkerrean) eta Mikel Oregi, diskoarekin. U.M.Z.

Fisikoan, berriz, jaietan, txosnan izango da salgai, eta giltzarrapoak eta kamisetak ere izango dira.

Ekainaren 19az gero dago diskoakalean; zelako harrera izan du?

Jendeak ondo hartu du. Urte eta erdiko prozesua izan da. Geure lagun rapzaleek esan dute ederto dagoela, baina oso rapzaleak dira haiek. Nire ustez [Martin], haien iritziak gehiago balio du, baina diskoa saltzeko ez.

Kontzertua joko duzue jaietan. Iazkoak arrakasta izan zuen.

Bai, urtean bat; kar-kar. Iaz, euria egin zuen, baina ondo joan zen. Kantu berriren bat jo genuen. Aurten, disko berria aurkeztuko dugu, baina kantu zaharrak ere bai. Sorpresak egongo dira. Iaz ere egon ziren. Aurten, beste buelta bat emango diogu kontzertuari. North Schooleko lagunak etorriko dira, T 90, EMEKA, Renk CA. Eta *intro* sorpresa egongo da, adibidez.

"Beste buelta bat emango diogu kontzertuari; North Schooleko lagunak etorriko dira, adibidez"

Urtean kontzertu bakarra emango al duzue? Ez zenukete nahiko gehiagoreman?

Espero dugu zerbait gehiago egitea. Baina orain oporrak hartuko ditugu. Disko honekin urte eta erdi eman dugu. Irailetik aurrera hasiko gara berriro ere, eta ikusiko da. Gehiago irtengo dira, seguru. Gustura hartzen da ostiraletan elkarrekin geratu eta... [Ina] Gainera, orain, orerako edo txarrerako, baina gure artean elkar ezagutzen dugu.

Besterik nahi baduzue gaineratu...

Kariño handiz egindakoa dela diskoa. Jendeak entzun dezala, gerturatu dadila guregana eta feedbacka eman diezagutela [Ina]. Eskerrak denoi gure kontu hau babestearren, gu ere pozik gaudete eta [Mikel]. Eta disfrutatu nahi duena etor dadila kontzertura, diskoa entzutea baino hobea da [Martin]. Abestu egiten dugu benetan. Eta hurrengoaren zain egon daitezela. Bestalde, esan beharra dago oraindik musika lokalen zain gaudela. Gure estudio gaineko gizona jota aspertuta dago gurekin.



Diskoa entzuteko, eskaneatu QR kode hau.



RCTM Kolektiboko DJ Apyretal eta DJ Ravincha, kiroldegiko terrazan, martitzenean. U.M.Z.

Bede Ben eta Bendiak DJ entzutetsuak barikuko tekno jaialdian

U.M.Z. SORALUZE

Estatu mailan ezagunak diren Bede Ben (Oiartzun-Bilbo) eta Bendiak (Nafarroa) DJak kartelburu direla egingo dute musika elektronikoko jaialdia jaietako barikuan, 19:15ean hasita, kiroldegiko terrazan.

Bede Ben DJak ohikoak dituen tekno industrial ilun eta erritmo bizidunez dantzan jarriko ditu Euskal Herriatik zein urrunagotik bertaratu diren zaleak. Bendiak nafarrak, berriz, teknoa eta elektroa fusionatuko ditu bereak diren erritmo hipnotikoekin.

Bi musikari entzutetsuekin batera, jaialdia osatuko dute D4N, GLLS, MITKO, Orlando, RVDA eta Ravincha DJek; azken biak,

soraluzetarrak. Antolatzaileek jendea animatu nahi dute, "kartela potentea" dela iritzita.

Bestalde, zapaturako, "herri-tarrendako" tekno-gaua antolatu dute, 00:00etan hasita; hango kartela, baina, "sekretua" da, antolatzaileen esanetan.

RCTM Kolektibo soraluzetarra

Antolatzaileei dagokienez, Soraluze RCTM Kolektiboak antolatu du jaietako tekno eskaintza. Bigarren urtez hartu dute gazteek lan hori: "Bestela, galdu egingo zen". Soraluze lau DJk eta beste hiru lagunak osatzen dute RCTM Kolektiboa. Besteak beste, kolektiboko Apyretal DJ soraluzetarrak joko du zapatuko jaialdian.

Karta-joko eta bestelako txapelketa herrikoia bor-bor izango dira

U.M.Z. SORALUZE


Zapatuan zein domekan txapelketa herrikoia ere izango dira jaietako ekitaldien artean tarteak. Esaterako, zapatuan, 17:00etan hasiko da Mus eta Tute txapelketa Plaza Barrixan. Iaz, 22 bikote lehiatu ziren.

Eta zapatuan ere, baina iluntze partean Toka eta Igel txapelketa jokatu da leku berean, 20:30ean hasita.

Azeituna-hezur jaurtiketa

Domekan, berriz, partaide eta ikusle ugari erakartzen duen Azeituna-hezur jaurtiketa jokatuko dute udaletxe aurrean, 20:30ean. 2024an berreskuratu zuten Azeituna-hezur jaurtiketa,

hainbat urtez etenda egon ondoren, eta 30etik gora lagunek parte hartzen du urtero. Irabazleek azeituna-pote erraldoia dute opari.



Azeituna-hezur jaurtiketa, iaz. E. UNAMUNO



Zesta-punta partidak, Open Jai Alai txapelketaren eskutik

Uztailaren 25ean, hiru puntistaren arteko partiduak izango dira pilotalekuan

Egoitz Unamuno Loidi SORALUZE

Aurtengo jaietan, Santiago Eguenez, zesta-punta modalitateko partidua jokatu dute Araneke udal-pilotalekuan, Open Jai Alai txapelketaren eskutik.

Open Jai Alai Euskal Herri mailako txapelketa hasiberria da, eta lehen edizioako partidua Gipuzkoako lau frontoi ertainetan jokatu dituzte: Lazkaon, Soraluzen, Urretxun eta Tolosan. Ekimena zestaren zale eta jokalarik ohiak biltzen dituen izen bereko elkarteak antolatu du, eta, jakinarazi dutenez, lehen edizio honetan ia berrogei jokalarik eman dute izena: 30 gizonetzok eta 8 emakumezok.

Antolatzaile taldeko Igor Ige-rategi donostiarrak azaldu duenez, duela gutxi egin duten ikerketaren arabera, jakin dute iraganean Gipuzkoako ia herri guztietan izan zela zesta-punta modalitateko jokalariren bat. "Zesta Gipuzkoa osoan hedatua egon zen, eta, hain zuzen, tradizio hori berreskuratzeko asmoz erabaki dugu lehen edizio hau Gipuzkoako frontoietan jokatzeko, nahiz eta badiren beste lurralde batzuetako jokalarik ere".

Txapelketako kanporaketak uztailaren abiatu dituzte, eta finala, berriz, urriaren 3an jokatu dute, Tolosako Beotibarren.

Partidua eta formazio saioak

Uztailaren 25ean, bi kanporaketa jokatu dituzte Soraluzen, bata emakumezkoen artekoa eta bestea gizonezkoena. Igerategik esplikatu duenez, kanporaketa bakoitza triangular bat izango da. Alegia, hiru jokalarik jokatu dute, binaka, elkarren kontra. Beraz, kanporaketa bakoitzean hiru azpi-partida izango dira eta azken partidari bi onenen artekoan irabazten duena sailkatuko da finalerdietarako.

Partiduaz gain, uztailaren 20tik 22ra hiru saio praktikiko eskainiko dituzte herrian, "gaztetxoek zesta ezagutu eta praktikatu dezaten". Saioak arratsaldeetan izango dira eta izen-ematea zabalik dago.




Zesta-puntan jokatzen, txapelketako kanporaketa partidu batean. OPEN JAI ALAI ELKARTEA

Tradizio luzea Soraluzen

Gaur egun ahaztu samar dagoen arren, zesta modalitateak tradizio indartsua izan du Soraluzen. Ramiro Larrañagak bere monografiako kontatzen duenez, XX. mendearen hasieran zesta modalitatea bizi-bizi zegoen herrian eta laurogeiko hamarkadara bitartean zesta-puntako jokalarik ugari ateratu ziren herritik, atzerriko frontoirik ospetsuenetan jokatzerako ailegatu ziren; besteak beste: Alejandro Argarate, gerora Manilako Jai-Alai frontoiko intendente izan zena; eta Julian Arana Ituarte, *Tigre Placentino* ezizenez ezaguna eta haren jauzi ikusgarriengatik ospea lortu zuena Mexikoko eta Ameriketako Estatu Batuetako frontoietan. Beste izen handi bat Jesus Pintado Ercilla izan zen: 16 urte besterik ez zuela, 1942an, Espainiako afizionatuen txapelketa irabazi zuen, eta, horri esker, profesional moduan jokatu zuen Vigoko, Madrilgo, Valentziako, Zaragozako eta Bartzelonako pilotalekuan. Eta ezin aipatu barik laga Eugenio eta Iñaki Muniozguren Osa anaiak. Biak izan ziren modalitate horretako izarrak.

Zestak tradizio luzea izan du Soraluzen, eta horren jatorria erreboteko frontoi zaharreen dago

Eugenio 14 urte besterik ez zuela debutatu zuen, Gernikan, eta, gerora, mundu osoko pilotalekuan jokatu zuen: Bilbon, Sevillan, Chicagon, Mexikon, Kuban eta Filipinetan. Iñaki anaia ere ez zen atzean geratu,



Eugenio eta Iñaki Muniozguren. R. LARRAÑAGAREN MONOGRAFIA

Bartzelonako, Kanariar uhar-teetako eta Filipinetako frontoietan jardun zuen eta. Ciriaco Echaniz ere puntista handia izan zen, eta Bartzelonako, Kairoko, Miami, Kubako eta Shanghaiko frontoietan jokatu zuen, besteak beste. Haiez gain, izan dira beste hainbat puntista ere: Modesto Arana, Juan Gallarraga, Lolieta Iraeta, Juan Luis Barturen eta Juan Antonio eta Sabin Elizburu –Santos Elizbururen bitartez jasotako izenak–.

Bistakoa da, zesta-puntak tradizio luze eta oparoa izan du Soraluzen, eta tradizio horren jatorri nagusia erreboteko frontoi zaharreen dago; izan ere, XVIII. mendean elizaren ondoan pilotaleku bikaina eraiki zutenetik XX. mendearen hasierara arte, erreboteko jokatu zuten bertan –beste zesta modalitate bat da hori–. Ignacio Pintadok gogoratzen duenez, 1950. urte inguruko Andra Mari jaietan jokatu zuten erreboteko azken partidua frontoi zaharreen. "Villabonako eta Hazparneko pilotariak jokatu zuten eta tantoak iparraldeko eran kantatu zituzten, modu zoragarrian", zehaztu du.

"Momentuan irteten dena gustatzen zaigu"

GARMENDIA ETA BARRUTIA
M&M'S MUSIKA-JARTZAILEAK



M&M

U.M.Z. SORALUZE

Maite Garmendia eta Markel Barrutia dira M&M's; barikuan, 00:30ean izango dira musika jartzen, Zubi Nagusian.

Nondik dator M&M?

2019an elkartu ginen, jaietan, ordu batzuk betetzeko, eta jendeari gustatu egin zitzaion. Gerotik, ia urtero egin ditugu saioak, jaietan, Gaztañeren eta egun berezietan. Arrateko jaietan ere egon ginen behin, Tapia eta Leturiaren ondoren.

Zer eskainiko duzue?

Adin guztietarako giroa. *Playlist*-a urtero berritzen dugu; momentuko kanta onenak edo jendeari gustatzen zaizkionak aukeratzen ditugu. Musika-genero guztietako abestiak jartzen ditugu: euskal rocka, punka, popa, elektronikoa... eta beste hizkuntza batzuetako abestiak ere bai.

Entseatzen duzue?

Kar-kar. Sekula ere ez gara elkartu entseatzeko; momentuan joaten gara erabakitzen ze abesti jarri, eta jendea ere gerturatzen zaigu kantak eskatzera. Uste dugu hori dela organikoena eta politena; momentuan irteten dena gustatzen zaigu. Hori bai, materiala erosten dugu: argiztapen txikitxo bat; ke-makina; puspiloen bi pistola; behin, bokatak egin genituen diana baino lehen, gaupasazaleei emateko...

Egongo da kantu bereziren bat?

Kantu bereziren bat, norbaiti dedikatutakoa... barre eta negar artean partekatzen diren horietakoak beti daude. Aurtan ere badira sorpresak.

Besterik nahi baduzue esan...

Gure saioan eta txosnagunean ez dugu inongo erasorik onartzen! Ez badakizu egoten, ez zaitez etorri!



JAIETAKO EGITARAUA

OSTIRALA 17

- **20:30 Bertsotan Gizez bertso-trama.** Gazte Asanbladak antolatuta, Herriko Enparantzan. Lau bertsolari arituko dira kantuan: Libe Goenaga, Andoni Rekondo, Suhar Gesalaga eta Elixabet Etxandi.

LARUNBATA 18 KUADRILLEN EGUNA

- **12:00 Bizi Poza txarangaren kalejira.** Azpilgoetan hasi eta Mendarozabalera.
- **13:00 Paella lehiaketa.** Ikastolako jolastokian. 14 urtez gorakoek parte hartu dezakete paella lehiaketan. Ondoren, herri-bazkaria. Txapel originalenak sarituko dituzte.
- **18:00 Elektrotxufila** elektrotxarangaren kalez kalekoa. Mendarozabalen hasita.
- **22:30 Play-back lehiaketa,** Herriko Enparantzan. Aurten, aldaketak izan dira, eta, estreinakoz, 14 urtez gorakoak izan beharko dute parte-hartzaile guztiek. Era berean, aukeratutako kantua euskarazkoa izatea baloratuko dute.
- **23:30 Maruxak** taldearen kontzertua, Herriko Enparantzan.
- **00:45 Erromeria,** Mugi Panderoa taldearekin, Herriko Enparantzan.

IGANDEA 19

- **12:00 Meza nagusia,** Azpilgoetako elizan.
- **13:00 Mendaroko Gazteak dantza taldekoen dantza emanaldia, frontoian.**
- **14:30 Nagusien bazkaria,** Aizpe elkartean. Aizpeko zuzendaritzakideek zerbitzatuta.
- **Ondoren, dantzaldia, Arno disko-jartzailearekin,** Aizpen bertan.

OSTEGUNA 23

- **18:30 Frontenis txapelketako finalak.** Gazte Asanbladakoek antolatuta, frontoian. Bi final jokatu dira: gizonezkoena eta emakumezkoena.

OSTIRALA 24

TXUPINAZOAREN EGUNA ETA GAZTEEN EGUNA

- **13:00 Poteoa eta jolasak.** Gazte Asanbladak antolatuta.
- **15:00 Gazteen herri-bazkaria.** Gazte Asanbladak antolatuta.
- **17:00 Salbea.** Azpilgoetako elizan.
- **18:00 Txupinazoa eta Katasorginaren jaitsiera,** udaletxetik.
- **Ondoren, Bizi Poza txarangaren kalejira,** Mendaroko Erraldoien eta Buruhandien Konpartsarekin.
- **18:30 2025ean jaiotakoei ongietorria,** udalbatza aretoan.
- **20:00 Skapaie elektrotxarangarekin kalejira.** Gazte Asanbladak antolatuta, Mendarozabaletik.
- **23:30 Xiberots taldearen kontzertua,** Herriko Enparantzan.
- **Ondoren, Txola Ta Potxola** herriko disko-jartzaileak.

LARUNBATA 25 SANTIXO EGUNA

- **11:00 Txirrista erraldoia eta puzgarriak,** Azpilgoetan.
- **12:30 Meza nagusia, Garagartzan.**
- **13:00 Ribera Canta taldearen jota** emanaldia.
- **14:30 Haurrentzako herri bazkaria eta jolasak,** frontoian.
- **18:00 Haurren danborrada,** ikastolatik irtenda, Bizi Poza txarangarekin. 50 bat ume.
- **19:00 Mendaroko Buruhandien eta Erraldoien Konpartsaren kalejira,** Mauxitxako dultzaineroekin.
- **20:00 Gararock Erramupéan** musika-pintxada, Azpilgoetako erramupéan. Hiru disko-jartzaile izango dira; hirurak, herrikoak: DJ Axen, DJ Ondarra eta DJ Granja.
- **22:00 Nagusien danborrada,** ikastolatik irtenda, Mauxitxa txarangakoekin. 140 lagun daude izena emanda eta hiru konpainia osatuko dituzte.
- **00:00 Erromeria, Akerbeltz** taldearekin.
- **02:00 Aitana Grandes** disko-jartzailea.

IGANDEA 26 SANTA ANA EGUNA

- **10:30 Prozesioa txistulariekin,** Azpilgoetatik Santa Ana ermitara.
- **11:00 Meza nagusia,** Santa Ana ermitan. Bustiñalde elkartekoek txosna jarriko dute ermita atzean eta bertso-saioa eta erromeria ere izango dira. Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso arituko dira bertsotan, eta Imanol Goikoetxea eta Unai Andonegi soinu eta panderoarekin.
- **18:00 IV. Santa Ana aizkolari bikotekako txapelketa eta harri-jasotze saioa,** frontoian. Aizkolariak: Hodei Ezpeleta eta Jon Rekondo; Andoni Izeta V.I.a eta Eneko Saralegi; Ibai Soroa eta Oier Kafamares. Harri-jasotzaileak: Maddi Gesalaga eta Lierni Osa.
- **19:00 Bull disko-jartzailea,** Herriko Enparantzan.
- **21:00 Katasorginaren igoera.**
- **Ondoren, Oilar Beltzak** taldearen kontzertua.

Indarkeriari ez

Eraso matxisten kontrako dekalogoak argitaratu du Udalak, eta gogorarazi du jaiak askatasunean eta beldur barik gozatzeko eskubidea bermatzea denon ardura dela. Hala, jokabide matxistak ikusiz gero publikoki gaitzesteko eskatu dute, eta argi lagatzeko jaiak ez duela justifikatzen inoren askatasuna mugatzen duen jokabiderik. Arrisku-egoeraren bat sumatuz gero, 112 telefonora deitzeko eskatu dute, eta erasoa jasan duen norbaitek laguntza eskatu gero, berriz, bakarrik ez uzteko eskatu dute, eta entzuteko, epaitu barik. Sexu erasoren bat jasoz gero, berriz, gogorarazi dute 900 84 01 11 (Satevi) telefonoan 24 orduz ematen dutela arreta, eta ohartarazi garbitzen edo arropaz aldatuz gero, frogak ezaba daitezkeela. Azkenik, nabarmendu dute alkohola eta drogak kontsumitzeak ez duela inor errugabetzen, eta soilik bai dela bai.



LASAITZE ZENTROA

Goizane Elorza Barrutia
Osteopata D.O. (Parasaniaria)

615 782 047

Ondo sentitu nahi duzu? Zatoz lagunduko zaitugu!

Kilimon Etorbidea, 3 - Mendaro
www.lasaitze.eu

Ondo pasa udan...



Ondo pasa Santa Ana jaietan!




IRIONDO
CONSTRUCCIONES MECANICAS, S.R.

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!



Oporrak:
Abuztuaren 8tik 31ra, biak barne

MENDAROTZABAL, 2 - MENDARO
943 03 38 35 - 613 99 55 72




electricidad PEROSANZ

www.electricidadperosanz.com
eibar@electricidadperosanz.com

Ibargain 17, AC behea - Eibar - 943 20 22 68

Josi Ta Josi taldekoek hasiko dituzte santanak

In Leikeren babesean sortu zen taldea, eta jaietan herria apaintzeko oihalezko banderak josi dituzte

Ainara Argoitia MENDARO

In Leike kultur elkartearen atar-
kipean sortu zen Josi Ta Josi
taldekoek botako dute aurten
txupinazoa. Beste jende batekin
elkartzeko, esperientziak truka-
tzeko eta josten ikasteko sortu
zuen taldea In Leikek, emakume
talde baten proposamenari hel-
duta. "Ikusten genuen profil
jakin bateko jendearentzako
aisialdi aukerak sortu behar
genituela, eta joskintza tailerra
aukera ona izan zitekeela iru-
ditu zitzaigun; bereziki, neguko
arratsalde ilunetan etxetik irten
eta beste jende batekin elkar-
tzeko aitzakia izateko. Bilera
bat antolatu genuen, eta etor-
tzeko eskatu genien interesatua
egon zitezkeen guztiei. 60 lagun
baino gehiago elkartu ginen, eta
bildu zirenen ekarpenak entzun-
da sortu genuen Josi Ta Josi

taldea", azaldu du In Leike kul-
tur elkarteko Dorleta Lazaro-
basterrek. Eta, sentitu, pentsatu
eta egin.

Geroztik, asteartero eta as-
teazkeneko elkartu da kuadrilla
handi bat udaletxeko hirugarren
solairuan, josteko. Hain zuzen
ere, talde horretako batzuek
josi zituzten iaz Mendaroko
Gazteak dantza taldekoen gonak,
eta aurten, beste erronka han-
di bati heldu diote. Martxoaz
geroztik, santanetan kaleak
apaintzeko erabili ohi diren

**"Ederra izango da
norbere etxeko oihal
zatia herriko
bazterren baten
zintzilik ikustea"**



Josi Ta Josi taldekoak, In Leikek mokadua eman zien egunean. Falta dira batzuk. AINARA ARGOITIA

plastikozko banderatzoen or-
dezkoak sortzen jardun dute,
herritarrek emandako ehunekin.
5.000 bat sortzea jarri zioten
helburu beren buruari, eta 7.000
baino gehiago josi dituzte, bi
dobletan. Izan ere, ehun guztiek
ez dute jauskera bera, eta, ban-
deratzuek gorputz bat izan ze-
zaten, binaka josi dituzte. Tri-
nitateko jaietan erakutsi zituz-

ten haietako batzuk, baselizako
aterpeko habeei lotuta, eta
Santa Ana jaietan herri osoan
izango dira, goietan zintzilik.
"Katasorgina jaitsi edo igotzen
denean begiratzen dugu jaietan
zerurantz, baina aurten beste
aitzakia bat ere izango dugu.
Ederra izango da norbere etxe-
ko oihal zatia herriko bazterren
baten zintzilik ikustea", gehitu

du Dorleta Lazaro-basterrek, In
Leike elkarteko kideak.

Bitxia da. Herri osoa gora
begira jarri duen talde hori
bera igoko da ekainaren 24ko
arratsaldean udaletxeko bal-
kaira, han goitik jaiak hasteko.
Bi ez beste guztiak emakumez-
koak dira taldean, 55-60 urtez
gorakoak gehienak, eta asko-
tariko zereginak bete dituzte:



MARIMAR MONREAL

"Sekulako ilusioa egin zidan
txupinazoa botatzeko gu aukeratu
gintuztela jakiteak. Lagun talde
ederra osatu dugu, giro oso ona
dugu gure artean, eta esango
nuke lan handia eta polita egin
dugula herriarentzat. Bereziki,
neguko arratsalde ilunetan asko
eskertu dut okupazio bat izatea:
kafe bat hartu, josi, barre egin....
Josi Ta Josira batu nintzenean ez
nuen asko uste hainbeste
aberastuko ninduenik talde
honek".



MAIDER SALEGI

"Oso pozik nago txupinazoa
botako dugulako. Ilusio handia
egiten dit lagunekin batera
balkoira igo, txupina piztu eta
jaiak hasteak. Lan handia egin
dugu, eta uste dut merezi
genuela. Hasieratik nago taldean,
eta oso gustura. Oso giro ona
izan dugu beti. Asko ikasi dugu
elkarrengandik; nik neuk, josteko
makina erabiltzen ere bai.
Banderatzuek zintzilik ikusteko
deseatzen nago orain. Jaietan
gora begira ibiliko gara".



MARITERE LAZAROBASTER

"Harrituta hartu nuen txupinazoa
botako genuen berria, baina
ilusio handia egin zidan. Lan
handia egin dugu, eta oso giro
onean. Josi Ta Josik balio izan
digu lagun-taldea handitzeko eta
gure arteko harremana
sendotzeko, eta orain, zain nago
egindako banderatzu denak
zintzilik ikusteko, zelan gelditu
diren ikusteko. Herri osoak parte
hartu du ehunak-eta inguratzen,
eta bi kilometroko soka osatu
dugu banderatzu guztiekin".



ROSA BABARRO

"In Leikek prestatu zigun
meriendan jakin genuen, eta
ilusio handia egin zigun. Egia
esan, mokadu hura eman izana
detaile handia iruditu zitzaidan,
eta txupinazoa botatzeko
proposamena, izugarria. Oihalak
markatzen, moztzen eta bikoteak
osatzen jardun dut nik, bereziki,
oso gustura, giro ederrean. Josi
Ta Josik balio izan dit beste
jende batekin elkartu, arratsalde
ederrak igaro eta lagunengandik
ikasteko".



ANTXON IGERATEGI

"Harritu egin nintzen txupinazoa
bota behar genuela jakin
nuenean, baina ilusio handia egin
zidan. Oso esker oneko nago Josi
Ta Josi taldearekin. Klean
kartela ikusi nuenean eman nuen
izena, zertara nindoan jakin gabe,
baina lagun berriak egin ditut,
asko ikasi dut, mokadu ederrak
egin ditugu, eta orain, kakorratz-
lanak egiten ikasi behar dudala
esan didate. Ni, prest! Proiektu
honetan ehunak markatzen eta
moztzen aritu naiz, bereziki".



iraolagoitia

aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutz-gain industriagunea, 9 - 20850 Mendara
943 75 61 12 / 636 49 74 85 - www.iraolagoitia.com



Artikulu arretzua



Etxe-aldaketak perbitzua



Saimenta eta banaketa



Ekarmentua eta kalitatea

**ONDO PASA
JAIETAN!**



Mobila:
607 575 728



batzuek ehunak mozten jardun dute, bereziki; beste batzuk moztutako ehunen artean ondoen ezkontzen zirenak aukeratu eta bikoteak osatzen aritu dira; eta azkeneko taldetxo batek josi ditu horiek guztiak, josteko makinak erabilia. Eskuz esku aritu dira lanean, hariari hari, guraizez, titarez, ehunez eta hariz betetako mahaian bueltan, jostorrazari bezainbat eraginda mingainari. Lana izan da, lan handia, baina terapia lasaigarria ere bai askorentzat: "Thesbide bat". Hala aitortu dute santanetarako Udalak argitaratu duen programarako idatzi duten testuan ere. Eurentzat denbora hartu, adin askotariko bizilagunekin elkartu, harremanak sendotu eta elkarrengandik ikasi dutela, eta hori bera esan dute, gutxi-asko, erreportaje honetarako BARRENAk elkarriketatu dituen hamar lagunek.

Herrigintza helburu

Adin askotariko jendea da. Gazteenek 10 urte dituzte, eta eda-detuenak 80 urtetik gora, baina denek hartu dute ondo elkar. Nork bere zeregina izan du

proiektu horretan, eta izan da udaletxera joan ezin delako etxetik jardun duenik ere lanean. Hala ere, zaintza-ardurek edo bestelakoek behartuta momenturen batzuetan etxetik aritu behar izan duenak ere sentitu du taldean ari zela lanean, proiektu kolektibo baterako. Bandera txoak sortzeko proiektua ez da eta udaletxean egindako saioetara mugatu. Herriko eskola-umeek ere parte hartu dute oihalak mozten eta josten. Ekainaren 17an, esaterako, Trinitataren elkartu ziren Josi Ta Josikoak, ikastolako bosgarren eta seigarren mailetakoko ikasleekin. In Leikek eta Mendaro Ikastolak antolatu zuten lan-saio hura, lankidetzan, eta gozatu zuten nagusiek zein umeek, elkarren ondoan. Mimoz eman zizkieten argibideak Josi Ta Josikoek hurrei, eta, ezagutza bat mimoz transmititzen den aldiro gerta-

"Batu elkarrengana, zaindu elkar, gozatu elkarrekin eta bizi jaiak errespetuz"

tu ohi den moduan, motibatuta jardun zuten hurrek; haientzat lantegi berria zen.

Esan gabe doa konplizitate handia nabari dela taldekide guztien artean; hala iruditu zitzaigun, behinik behin, ikasturtea agurtzeko In Leike kultur elkarteok Kilimon elkartearen prestatu zieten mokaduaren bueltan egin genuen egotaldian. Hantxe jakinarazi zieten haiek izango zirela aurten txupinazoa botako zutenak, eta harrituta hartu zuten proposamena gehientsuenek, iji eta aja artean. Egindako lan eskergaren ondoan, hutsa da txupina piztu eta balcoitik lau hitz esatea, baina ez dira jendaurrekora emanak, eta estutu egin zituen horrek. Zer esan eta nola egin, jaiak hasi zain daudenei luze iritsi gabe txupinazoa bota aurreko tartea. Horixe izan dute azken egunetako kezka, baina adostu dute, nonbait. Banderatxoak josi dituzten modu berean josi nahi lituzkete harreman-sareak herrian. "Josteak guri eman digun hori nahi genuke Mendaroren-tzat. Batu elkarrengana, zaindu elkar, gozatu elkarrekin eta bizi jaiak errespetuz", jaso dute idatziz jaietako programan.



Josi Ta Josikoak eskola-umeekin, Trinitaten. AINARA ARGOITIA



Aiala Granero, Hiart Larrañaga eta Libe Zulaika, oihalak mozten. AINARA ARGOITIA



ROSA EPELDE

"Ilusio handia egiten digu txupinazoa botatzeak. Lan handia egin dugu, baina herri osoak parte hartu du proiektuan; oihalak ekarri izan ez balizkigute, ezingo genituen hainbeste bandera sortu. Eskola-umeek ere parte hartu dute, eta orain, jaietan, gora begiratzeko eskatuko diegu denei, eta topa dezala nork bere oihal zatia zintzilik. Neguko arratsaldeak lagunartean igarotzeko sortu zen taldea, eta asko eman digu".



SATUR ARRIOLA

"Seko harritu nintzen albistea jakin nuenean, eta ilusio handia egin zidan. Txupinazokoa egun hunkigarria izango dela aurreikusten dut, berezia izango baita lagun talde honekin batera balkoira igo eta jaiak hastea. Oso gustura nabil ni. Kalean justu-elkar agurtzen genuen asko ezagutzeko aukera izan dut, eta arratsalde ederrak igaro ditugu elkarrekin. Kuadrillakoekin eta beste lagun batzuekin sarriago elkartzeko aitzakia izan da".



LOURDES URAIN

"Ez nuen halakorik espero, baina uste dut herriarentzako egin dugun lan baten balioa aitortu nahi izan dutela, eta gustura hartu dut. Iruditzen zait lan polita egin dugula. Ni neu oso gustura aritu naiz, giro ona izan dugulako taldean. Ikastolakoekin egin genuen saioa ere polita izan zen. Aukeran, denbora gutxitxo izan genuen, eta presaka jardun genuen, baina pozik. Umeek ez zioten inolako beldurrik josteko makinari".



ANER MAZARIEGOS

"Etxean aspertuta nengoen baten, ea joan nahi nuen galdetu zidan amama Mariterek. Probatu nuen, eta gustatu egin zitzaidan. Oihalak mozten jardun dut, bereziki, baina kanilak hariz betetzen ere ibili naiz. Txupinazora joateko amamarekin nago geldituta, eta pozik joango naiz, sekula ez naizelako txupinazo baten egon. Etxetik eramandako oihalekin egindako banderatxoak topatzen saiatuko naiz jaietan.



LIBE ZULAIKA

"Amak argazkiak egitera joan behar zuen, eta harekin joan nintzen lehenengo aldiz. Nire bi lagun ere etorri ziren, eta oihalak josten ibili ginen. Antxonek markatu, eta guk moztu. Beste egun batzuetan ere joan nintzen, eta etxetik ere eraman nituen oihalak ikastolara, banderatxoak egiteko. Etxean ere probatu nuen, josteko makina txikiarekin, Josi Ta Josikoek erakutsi ziotelako amari konpontzen, baina ez nintzen ondo moldatu".



943 191952

ASKETA S.L.
ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA
SERVICIO INTEGRAL DE OBRAS



Barrena
DEBABARRENEKO KOMUNIKAZIO TALDEA
Jarri esazu zure publizitatea
BARRENA asteakarian
edo
www.barrena.eus
webgunean
943 743 704
688 769 657



Elkarlanean eta autogestioan oinarrituriko jaiak, gazte jendeak herriarentzat sortuak

Bertsotan Gixez bertso-trama antolatu dute gaurko, lau bertsolari gazterekin

Ainara Argoitia MENDARO

Esku bete lan ibili dira Gazte Asanbladakoak udako egitarau berezia eta jaietako Gazte Egune-ko kontuak lotzen eta gauzaten. Gaztetxearen logodun zapi berdeak atera dituzte santanetarako txosnan izango dituzte salgai, 2 euroan, bai eta Kua-drillen Egunerako kamisetak ere, jendeak eskatu ahala. Estreinakoz 2018an sortu zituzten *Jaietan ez nixe etxera* lelodunak dira kamisetak, orduan ere esan baitzuten asmoa ez zela urtero-urtero gazte jendeari gastua eginaraztea kamiseta berriak erosten, ezpada txiki gelditu edo erabiltzeko baino egoera txarra- goan gelditu ahala ordezkatzeko zaharrak. Izan ere, merkatu-logikak eta gazte asanbladak bi ikuspegi eta balio-sistema erabat kontrajarriak dira. Merkatuak irabazia, lehia eta banakako kontsumoa bultzatzen ditu; gazte asanbladak, aldiz, elkarlana, autogestioa eta komunitatea indartzea. Presente izango da filosofia hori Gazte Asanbladak antolatutako guztian.

Bertsotan Gixez gaur

Martitzenerako, plazako dantzen ikastaroa antolatu zuten, santanetan inor ez dadin fandan-gorik eta arin-arinik dantzatu gabe gelditu, eta gaurko, berriz, Bertsotan Gixez bertso-trama dute iragarria. Lau bertsolari arituko dira bat-batean kantuan, asanbladakideren batek jarritako gaiari eta testuinguruari lotuta: Libe Goenaga getariarra, Andoni Rekondo hernaniarra, Suhar Gesalaga azpeitiarra eta Donibane Lohizuneko Elixabet Etxandi. Herriko Enparantzan izango da saioa, 20:30ean hasita.

Bertso saiorako dute zabaltzeko plazako txosna ere. Gaur goizean ziren muntatzen haste-koak, eta muntaketa-lanak baliatuko dituzte estreinakoz txandak egingo dituztenei azalpenak emateko ere. Aitortu dute urtero ibiltzen direla estu txandak osatzeko, baina gogorarazi dute zenbat eta jende gehiago batu lanerako orduan eta motzagoak izango direla txandak eta denek



Frontenis txapelketetako finalistak. AINARA ARGOITIA

izango dutela jaiak gozatzeko denbora gehiago.

Hilaren 23rako, berriz, frontenis txapelketako finalak dituzte iragarrita. Maiatzaren hondar-rean hasi zituzten partidak, eta erabakita dago dagoeneko zer lau bikote jokatu dituzten finalak. Emakumezkoetan, Nerea Bastidak eta Leire Alberdik osatutako bikoteak Ane Landak eta Naroa Zubiak osatutakoa izango du aurkari, eta gizonezkoetan herriko bi bikote arituko dira aurrez aurre: iaz txapeldun izan ziren Axular Agirregabiria eta Ander Aberasturi, batetik, eta Julen Dobarro eta Julen Iriondo, bestetik. Hemeretzi bikote lehiatu dira guztira: zortzi emakumezkoenak eta hamaika gizonezkoenak. 18:30ean hasiko da jardunaldia, eta Gazte Asanbladakoek garga-rardoak izango dituzte salgai.

Gaztetxearen logodun jaietako zapiak bi euroan salduko dituzte txosnan

115 bazkaltiar Gazte Eguneko herri-bazkarirako

Uztailaren 24an ospatuko dute gazteek beren eguna. Egun horretan hasiko dira ofizialki jaiak ere, egun horretan botako baitute Josi Ta Josikoe txupinazoa. Arratsaldeko seietan izango da, baina, hori, eta ordurako beren eguna hasia izango dute gazteek. Gazte Asanbladak antolatu du Gazte Eguneko egitaraua, Udalaren babesarekin, eta 13:00etan hasiko dituzte ekintzak. Tabernaz tabernako poteoa hasiko dute ordu horretan, eta bidean jolasak egingo dituzte. 15:00etan, berriz, frontoira batuko dira izena emandako guztiak, herri-bazkarira. Guztira, 115 lagun daude aurten izena emanda, 15 urtez gorakoak guztiak. Catering zerbitzua dute kontratatua, baina mahaiak atontzea, zerbitzatzea eta frontoia jasotzea haien ardura izango da, urtero moduan. Bazkalondorenean, jolasak egingo dituzte, eta asmoa 18:00etarako plazara batzea izango da, txupinazorako, eta, horren ondoren, Azpeitiko Skapaie elektrotxar-rangakoei batuko zaizkie, kalez kalekoa hasteko.

ABUZTUKO ORDUTEGIA:
ASTEARTETIK LARUNBATERA: 08:30-13:30
Ondo pasa jaietan!
@olatz_ileapaindegia

OLATZ ILEAPAINDEGIA
UNISEX
625 999 694

KONPONKETA, BIRMOLOKETA ETA CNCs AUTOMATIZAZIOA. ERREMINTA MAKINA, BERRIA ETA BIGARREN ESKUKOAREN SALMENTA.

SANTOS Y PATXI SERVICIO TECNICO S.L.

ESSER Industriaidea SE-5 • 20850 Mendara
943 741 658 / 639 710 183 • Faxa: 943 742 346
www.santosypatxi.com • comercial@santosypatxi.com

TXIRRISTAKA TABERNA
43. URTE ZUREKIN

OGITARTEKOAK, RAZIOAK, GOSARIAK, PINTXOAK...
GIRO EZIN HOBEA!
TEL. 943 118 165

EGUNEKO ZENTROA ZUREKIN S.L.

Azpilgoeta, 32
20850 Mendara

943 03 17 46
zurekin@euskalnet.net

ERRETEGIA

Egin bazkarrako zure erreserba!

943 756 028
Gungorria, 32 - MENDARO

Ondo pasa santanetan.



Iaz sukaldariekin desfilatu zuen lagun kuadrilla bat, Azpilgoetan. AINARA ARGOITIA



Playback lehiaketako iazko irabazleak. AINARA ARGOITIA

36 kuadrillak parte hartuko dute paella lehiaketan, eta 535 bazkaltiar batuko dira

14 urte beteak izan behar dira playback lehiaketan parte hartzeko

Ainara Argoitia

Egitarauak barik jendearen jai-gogoak egiten ditu handi santanak, eta aurten ere herri-tarren parte-hartzea ziurtatuta dago egitarauko ekintza nagusietan. Aspaldi hasi zituzten herrian entsegu publikoak, baina dena ez da jendaurrean prestatzen. Hala dabilta kuadrillak egunotan, isil-isilka, biharko playback lehiaketarako koreografiak eta bazkaritarako txapelak prestatzen.

Bi aldaketa nagusi

Kuadrillen Eguna ospatuko dute bihar mendarorrek, eta aurten badira bi aldaketa nagusi egun horri lotuta, zeresana ematen ari direnak herrian: batetik, estreinakoz, Udalak ez duela edari alkoholdukin banatuko biharko herri-bazkarian; eta, bestetik, kuadrillen gaueko

playback lehiaketan 14 urtez gorakoek bakarrik parte hartu ahal izango dutela. Legeari lotuta hartu du lehenengo erabakia Udalak, eta Jai Batzordearen proposamenez bigarrena. Guztira, 535 pertsona daude izena emanda bazkarirako –lau herri-tarretik bat–, eta 36 kuadrilla paella lehiaketarako. Udalak jarriko ditu osagai nagusiak eta 13:00etan hasiko da lehiaketa. Kuadrillek prest-prest izan beharko dituzte beren paellak 14:30erako, orduan hasiko baitira epaimahaikideak paellak dastatzen. Ohi legez, herriko hiru gastronomia elkartetako ordezkariak arituko dira egiteko horretan. Azkeneko bizpahiru urteetan moduan, Kuadrilla Egunean sariak banatuko ditu Udalak, baina, horretarako, eguneko hiru ekintza nagusietan parte hartu beharko da:

paella lehiaketan (30 puntu), txapel originalenen sariketan (20 puntu) eta playback lehiaketan (40 puntu). 300, 200 eta 100 euroko hiru sari banatuko ditu Udalak.

Helduen danborrada, goraldean

Bi danborrada izango dira aurten ere, biak egun berean aurten: uztailaren 25ean, Santio Egunean. Haurren danborradarako 50 bat ume daude izena emanda –urtetik urtera, apaltzen ari da kopurua–. Mauxitza txarangak girotuko du danborrada eta Hiart Larrañaga Gonzalez eta Lander Aranbarri Zubiaurre izango dira danbor-jole eta kupel-jole nagusiak, hurrenez hurren. Banderadunak, berriz, Benja Serra Laurencena eta Maialen Guano Plasencia izango direla jakinarazi du Arno guraso elkarteak. Nagusien danborrada, berriz,

indar handia ari da hartzen azkeneko urteetan. Gero eta gazte gehiagok parte hartzen dute, eta aurten 140 bat lagun daude izena emanda; 16 urtez gorakoak guztiak. Jende kopuru handiagatik, hirugarren konpainia bat sortu zuten iaz, eta aurten ere hiruk desfilatuko dute: napoleonarren konpainiak, sukaldariak eta baserritarrenak. Napoleonarrean Josu Motriko Larrañagak egingo ditu danbor-jole nagusi lanak, eta beste bietan Joseba Mendikute Olazabal eta Lisbeth Roteta Salegi izango dira zuzendariak. Gaur 18:00etatik 20:00etara jaso beharko dira arropak, ikastolan, eta egunean bertan afari-mokadua emango die parte-hartzaile guztiei Udalak, Luzaide jatetxean.

Adinekoen eguneko bazkaria

Udalak jakinarazi du 94 pertsona daudela izena emanda igandeko Nagusien bazkari-rako. Catering zerbitzua izango dute, baina Aizpe elkarte-ko zuzendaritzakideek zerbitzatuko dute. Ondoren, Arno disko-jartzailearekin dantzaldia izango dute, Aizpen bertan.



Urtetik urtera kuadrilla gehiagok ematen dute izena AINARA ARGOITIA



Herriko Enparantza plaza, 11
20850 Mendaro

633 050 406
@galletiak

Santanak goxatzeko eskuz eginiko gozoak.
GORA SANTANAK!



Euskal Herriarekin
BAT EGIN.

Ondo pasau
Santa Ana jaixak!



ehbildu
Mendaro

AUTOZERBITZUA

ELKAR
COVIRAN

Ondo pasa
jaietan!



Abuztuan
goizez zabalik,
09:00etatik 13:00etara

Enkarguak
hartzen ditugu

Kilimon Hiribidea, 5 behe - MENDARO - 943 60 80 31



Gararock Erramupéan, jaietan bazterreko den musika erdigunera ekartzeko ahalegina

Hilaren 25ean egingo dute, eta herriko hiru disko-jartzailek jarriko dute musika

Ainara Argoitia

"Gararock jaialdian ez bazen, Mendaron nekez entzun daitekeen musikari tokia egingo diogu santanetan". Oier Quirogaren -Dj Ondarra- hitzak dira, Gararock Erramupéan ekimenean musika jartzen arituko den disko-jartzaileetako batenak. Udalak proposatuta antolatu du ekimena Gararock taldeak, iaz Itziarko Mandiope dantzalekuaren gomutan antolatu zuten Azpilgoetako Erramupéan haren trazara. Uztailaren 25ean izango da disko-jartzea, Azpilgoetako Erramu arbolaren azpian, 19:30ean hasita, eta hiru disko-jartzaile arituko dira; hirurak, mendaroarrak: Axen, Granja eta Ondarra.

Mandiope dantzalekuaren itzala

Seme-alabak ikastolara eraman nahi zituzten Oikiako (Zumaia), Arroa Goiko (Zestoa), Itziarko eta Mendaroko gurasoek sortu zuten Mandiope, 1977 aldera, dirua biltzeko. Itziarko baserriarren kooperatibaren ukuilua izan zen lokalean zabaldu zuten, eta hainbat etapa izan zituen dantzalekuak. Bi urtez erromeria-leku izan zen, harik eta Jaur-larritza ikastoletako haurrentzako laguntzak ematen hasi zen arte. Gero, 1979tik aurrera, euskal pop-rockari zabaldu zioten atea, eta, ondoren, azkeneko fasean, rock progresiboagori hasi zitzaizkion lekua egiten; Londrestik eta Madrildik zetorren abangoardiako musikari, hain



Gararock Erramupéan iragartzeko karte-leko irudia. GARAROCK

justu ere. Entzute handia hartu zuen orduan; bereziki, orduko eskemetan kabitzen ez zen gazte-jendearen artean. Eta, hain justu ere, iaz, garai hari egin zioten keinu Mendaron. Gazi-gozoa izan zen iazkoa, baina: gozoa, lagunartean ondu zutelako ekimena eta aspaldi ikusi gabeko jendeak elkarrekin egoteko aitzakia paregabea izan zuelako; gazia, berriz, ekimenaren sustatzaile izan zen Jone Gurrutxaga zendu zelako egun hartan bertan. "Egun gogorra izan zen. Zalantza egin genuen egin bai edo ez, baina, Jonek nahiko zukeela pentsatu, eta egin genuen. Aurten ere gogoratuko dugu laguna", esan du Ina Iriondok, Gararock taldekoak.

Hiru disko-jartzaile

Ekipo berria inguratu dute aurten, eta musikazaleek eskertu

egingo dute. Herrikoak izango dira disko-jartzaileak: Joseba Olazabal, Asensio Artetxe eta Oier Quiroga; Granja, Asen eta Ondarra izen artistikodunak. Quirogak azaldu duenez, 80ko eta 90eko hamarkadetako new wave, baggy eta post-puntu estiloetako musika jarriko du DJ Asenek, Mendaroko garai bateko Ormola tabernan eta Mandioperen azken fasean oso ohikoak ziren doinuak gogora ekartzeko. Granjak, berriz, 70eko eta 80ko hamarkadetan arrakasta handia sortu zuen disko estiloari helduko dio, eta sortzen den giroari egokituko zaio DJ Ondarra. "Izan daitezke 50eko, 60ko eta 70eko hamarkadetako soul, chanson, française, beat edo ye-ye doinuak edota 80ko, 90eko eta 2000ko indie rock, post-punk eta elektronika doinuak", zehaztu du.



lazko dantzaldiaren une bat. AINARA ARGOTIA

Mendaroko Gazteak dantza taldearen dantzaldia, aspaldiko jendetsuena

Herriko dantzarien taldea hazten ari da urtez urte, eta etzi, plazara irtengo dira; 13:00etan izango da dantzaldia

Ainara Argoitia MENDARO

Bizi izan ditu garai hobeak dantzak Mendaron, gerra aurrean nahiz ondorenean, baina gaur baino dezentez apalduago ere egon da urte askoan. Hain justu ere, horretxegatik hartu zuen 2022an In Leike kultur elkarteak dantza taldearen ardura, euskal dantzei beste bultzada bat emateko. Urte hartan, sei umek eta hogeitaz nagusik hasi zuten ikasturtea, Azpilgoetako Kultur Etxean, Debako Gure Kai taldeko Amaia Ajuriagoikoa eta Elgoibarko Haritz dantzari taldeko Imanol Arantzamendi irakasleekin, eta orduan hasi ziren loratzen dantzari berriak. Gerotik, taldea hazi eta hazi ari da, eta aurten, santanetan, aspaldiko talderik jendetsuenarekin plazaratuko dira Mendaroko Gazteak taldekoak. Eider Agirre In Leike kultur elkarte-

ko kideak zehaztu duenez, 47 dantzari irtengo dira aurten plazara: 32 nagusi eta 15 ume, hain zuzen ere.

Jantzi berriak

Azpilgoetan hasi eta kalejiran inguratuko dira dantzariak frontoira, 13:00 alderako. Aurten, Arabari keinu egingo diote, helduek dantzatuko dituzten dantzetako hiru hangoak izango baitira. Zuzeneko musika izango da, orobat, jaialdian, eta, Ameikutz musika eskolako musikariek gain, kanpoko zenbait musikari gonbidatutako parte hartuko dute. Trikiti, txistu, dultzaina eta biolin doinuen erritmora ibiliko dira dantzariak, eta emakumezkoek jantzi berriak estreinatuko dituzte, Leire Arriola eta Maribel Lazarobaster herriko jostunek jositakoak.



**Mendaroko Udalak
santana zoriontsuak
opa dizkizue.**






Izaro Aulestiarte

Gaur, uztailak 17, tokiko sor-
taileen *Begiradak* kultur eki-
taldiak girotuko du Plaza Zaha-
rra, 22:00etan hasita. Hamahi-
rugarren urtez egingo dute
ikuskizuna, Iturri Ondoan egi-
tasmooaren baitan, eta, beste
behin ere, askotariko begiradez
eta sormenez beteriko gaua izan-
go dela aurreratu dute antola-
tzaileek.

Guztira, hogeitik gora lagunek
parte hartuko dute ikuskizunean,
irudiak, hitzak, dantzak eta,
besteak beste, musika emanaldi
txikiak txirikordatzten. Eta, bi-
garren urtez jarraian, debarrak
ez ezik, kanboarrak ere izango
dira tartean, irudigile zein idaz-
le lanetan; izan ere, iaz Debaren
eta Kanboren arteko senide-
tze-hitzarmenaren 25. urtemuga
betetzen zela eta, hango herri-
tarrak ere batu ziren egitasmor-
a, estreinakoz, eta hala egin
dute aurten ere.

Maria Aizpuruaren, Nerea Aiz-
puruaren, Inma Alberdiren, Jon
Amutxastegiren, Esti Beristainen,
Katty Bianchiren, Manu Izagi-
rrenen, Kanboko Arditeia bali-
bide zentroaren, Xane Krackel-
berghen, Marlen Meurisseren eta



Herritarrak, oholtza gainean, iaz egindako emanaldiaren une batean. INMA ALBERDI

Herritarrek herritarrentzat sortutako 'Begiradak' ikuskizuna izango da gaur gauean

Plaza Zaharrak hartuko du Iturri Ondoan egitasmooaren baitako ekitaldia, 22:00etan

Izaskun Santosen irudiez goza-
tzeko aukera izango du publikoak.
Eta testugileen zerrenda osatzen
dute Iraia Agirrezabalak, Goizane
Aizpuruak, Eider Aldalurrek,
Rexu Arakistainek, Maite Ape-
rribaik, Nekane Goikoetxeak,

Lilian Hirigoyenek, Arantza
Iriondok, Kanboko Arditeia ba-
liabide zentroak, Kanboko Min-
tzalagun taldeak, Xane Krackel-
berghek, Itzale Lakak, Irati Ma-
joralek, Maialen Rosak eta Amaia
Zinkunegik. Gainera, Kulunka

Dantza Taldeak ere parte hartu-
ko du. Irati Albizuk sortu du,
bestalde, aurtengo kartela.

Azkenik, antzerkia eta musika

Uztailaren 3an abiatu zen Deba-
ko Udalak antolatutako Iturri

Ondoan egitasmoa, euskaraz
sortu eta euskaraz pentsatutako
diziplina askotariko bost kultur
ekitaldiz osatutako programa-
zioarekin. Dagoeneko bi ema-
naldi egin dituzte Plaza Zaha-
rrean: Arineketan taldearen
Zaharrak berri ikuskizuna eta
Maialen Lujanbio, Andoni Egaña,
Nerea Elustondo eta Agin Labu-
ru bertsolarien saioa. Eta gaur
gaueko *Begiradak* izango da,
hortaz, aurten iragarritako hi-
rugarren hitzordua.

Egitarauak datorren ostiralean
izango du jarraipena, hilak 24,
Magma Mia antzerki konpainia-
ren *Jo!* umorezko antzezlanare-
kin, 22:00etan; Anduriña Zuru-
tuzak eta Beatriz Egizabalek
taularatuko dute lana, Txefo
Rodriguezen zuzendaritzapean;
aspaldi elkar ikusi ez duten Sor-
kun eta Grego lagun minen ro-
lak interpretatuko dituzte.

Eta, azkenik, Odei Barroso
(Urruña, 1988) *Odei* musikaria-
ren kontzertuak itxiko du aur-
tengo egitaraua, uztailaren 30ean,
ostegunez. Boom bap, trap eta
drill estiloak bere modura uz-
tartuz, mezu gordinez eta errima
zorrotzez osatutako emanaldia
eskainiko du raperoak.

Udako Kultur Loraldiaren egitarauak musika izango du ardatz aste honetan

Bihar, binilo- 'pintxadek' eta azokak hartuko dute plaza; ostegunean, Edu Zardoyak

I.A.

Azken astean egindako umorez-
ko ikuskizunari, bisita gidatua-
ri eta magia ikastaro nahiz
emanaldiari lekukoa hartuta,
musikari egingo diote tokia
oraingoan Udako Kultur Loraldian;
bi hitzordu izango dira
aukeran datozen egunotan, biak
ala biak Debako Kultur Elkar-
tearen eta herriko beste zenbait
eragileren ekimenez.

Biharko, hilak 18, binilo-*pintxadek* eta azoka txikiak osatu-
tako egun osoko egitaraua ondu
dute. Orotara, Debako bederatzi
disko-jartzaile ariko dira Kultur
Elkarteko plaza girotzen; haie-
tako lau 12:00etatik 15:00etara
egingo den bermut saioan izan-
go dira eta gainontzeko bostek
arratsaldeko saioan jardungo
dute, 19:00etatik 22:30era. Aur-
tengo hitzorduaren berritasuna
goizeko azoka izango da; tokiko

ekoizleen eta taldeen artisau-
lana nahiz merchandising pro-
duktuak izango dira salgai.

Punk-rock akustikoa

Hilaren 23rako, berriz, Edu Zar-
doyaren (Tutera, 1999) doako

kontzertua iragarri dute;
20:00etan izango da, Kultur El-
karteko plazan. Hainbat punk-
rock taldetan aritu ostean, ba-
karkako ibilbidean dihardu
musikari nafarrak; formatu
akustikoan ariko da agertokian.



Edu Zardoya musikari nafarra. LAGATAKOA

Umeen Eguneko danborradako lehen entsegua, hilaren 22an

Asteazkenean, hilak 15, amaitu
zen San Roke festen baitan abuz-
tuaren 15ean egingo den Umeen
Eguneko danborradan izena
emateko epea, eta datorren astean
ekingo diete entseguei. Uztailaren
22an izango da lehen saioa,
19:00etan, Ifar kaleko Luzaro
eskolan.

Antolakuntzan diharduen he-
rritar taldeak adierazi duenez,

uztailaren 29an eta abuztuaren
5ean, 10ean eta 12an elkartuko
dira berriz ere entseatzeko, toki
eta ordu berean. Haurrekin ba-
tera familiekin ere parte hartu
dezakete danborradan, entsegue-
tan nahiz egunean bertan.

Beste urte batez, egun osoko
egitaraua iragarri dute Umeen
Egunerako; ez dira faltako, adi-
bidez, puzgarriak eta ur parkea,
Berdinki Zirku konpainiaren
Mikra ikuskizuna, herri bazka-
ria eta Mugi Panderoaren erro-
meria. Kalejira eta jaialdia
arratsaldean izango dira.

'Polainero' kartelak iragarriko ditu 2026ko San Roke jaiak

Maite Aldabaldetrek Fernandez
egile debarraren *Polainero* ize-
neko proposamenak irabazi du
aurtengo San Roke jaiak iragar-
tzeko kartel lehiaketa.

Herenegun, hilaren 15ean,
aurkeztu zuten, eta, Debako
Udalak jakinarazi duenez, hark
jaso ditu boto gehien herri-boz-
ketan; debarrak egindako irudia
82 botorekin gailendu da.



DEBAKO UDALA

Aldarrikapena, jaia eta parte-hartzea eskutik helduta, badator Galerna Festa

Egun handia biharkoa izango bada ere, gaur hasiko dira jai giroa pizten

Nerea Bedialauneta Alkorta DEBA

Debako Gazte Asanbladak dena prest du asteburuko Galerna Festarako; bi eguneko egitaraua prestatu dute, festa eta aldarrikapena uztartuta.

Festaren helburu nagusia bere jarduna ikusgarri egitea eta kuadrillen arteko harremanak zein parte-hartzea indartzea dela nabarmendu du Gazte Asanbladak. Horregatik, herritarrak eta, bereziki, gazteak parte hartzea zein asanbladara joatera gonbidatu dituzte: "Gustatuko litzai-guke jende gehiago etortzea gaztetxera eta baita antolatzen ditugun ekintzetara; horrelako gauzak antolatzeko beti behar izaten da jendea".

Egun nagusia bihar izango bada ere, hilak 18, gaur hasiko dira giroa berotzen, 17:00etan hasita, Euskal Jolas frontoian egingo diren pala eta ping-pong txapelketekin.

Irudimenari saria

Biharko egitaraua 11:00etan hasiko da, baltsa-jaitsierarekin. Iaz antolatu zuten aurrenekoaz, eta, harrera ona izan zuenez – hamabost bat ontzik parte hartu zuten –, aurten ere egitea erabaki dute.

Parte-hartzaileak Maxpen uretaratuko dira –gaztetxe pareko eskaileretatik–, eta norberak eraikitako ontziekin arrapalarainoko bidea egin beharko dute. Lehiakortasuna alde batera utzita, eta "gauza dibertigarriagoak sustatu nahian", iragarri



Gazte Asanbladako kideak, Galerna Festa iragartzen. NEREA BEDIALAUNETA ALKORTA

dute mozorrorik onena eta baltsarik apainduena sarituko dituztela aurten.

Jaitsiera amaitutakoan, karropoteoari ekingo diote, eta 13:30ean, paella lehiaketa hasiko da, zumardiko karpa inguruan. Ondoren, 15:00etan, herri bazkari autogestionatua egingo dute. Ohartarazi dutenez, aurten ez da barra-zerbitzurik izango karpian. Horregatik, edaria norberak eramateko eskatu dute.

Bazkalostean, berriz, bingo musikatua egingo dute, kuadrillen proposamenez. "Proposa-

Herriko kuadrillen proposamenez, bingo musikatua egingo dute bihar, bazkalostean

menak kontuan hartzen ditugu egun hau antolatzeko, eta bingo musikatua horren adibide da. Kuadrillekin egin genituen bileretan galdetu genuen zer egin nahi zuten bazkalostean, eta ideia hori ateratu zen. Egokira iruditu zitzaigun". Eguna amaitzeko, 19:00etan, kalejira egingo dute, Joseto Ta Alayak etxek-trotxararekin.

Izen-ematea, ezinbestekoa

Antolakuntza errazteko, gogorarazi dute aurrez eman behar dela izena pala, ping-pong eta paella txapelketetarako, bai eta baltsa-jaitsierarako ere; Instagramen eskuragarri dagoen Google Forms estekaren bidez egin daiteke.

Bazkarirako txartelak, aldiz, kuadrillen arteko bileretan eta asteazken akustikoetan saldu dituzte.

Deba-Itziar Eskola Kirolaren eskaintza berri eta zabaldutik

N.B.A.

Deba-Itziar Eskola Kirolak (DIEK) prest dauka LH1 eta LH6 arteko ikasleei zuzendutako 2026-2027ko ikasturterako Eskola Kirolaren egitaraua.

Azaldutenez, datorren ikasturterako eskaintza berri eta zabaldutik, hurrei jarduerak fisikoa eta kirolaren balioak sustatzeko aukera gehiago eskaintzeko helburuarekin. Hala, askotariko adinetara egokitutako ordutegi eta kirol modalitate gehiago eskainiko dituzte, bai Deban eta baita Itziarren ere.

Iragarri dutenez, Eskola Kirolaz gain, DIEKek hainbat kirol eskola eta jarduerak bultzatzen jarraituko du, hurrek kirol

modalitate batzuetan trebatzeko aukera izan dezaten. Horrez gain, urritik maiatzera, hilean behin asteburuko jardunaldi bereziak egingo dituzte. Saio horietan hainbat kirol eta jarduerak ezagutzeko eta praktikatzeke aukera izango da; besteak beste, kayaka, surfa, errugbia, herri kirolak, pilota, patinajea eta tenisa.

Izena-ematea, irailean

Irailean zabaldutik izen-ematea. LH1ekoek eta LH2koek 30 euroko kuota ordaindu beharko dute, eta LH3 eta LH6 artekoek, berriz, 60 eurokoa. Hala ere, doakoa izango da aurreko ikasturtean beka jaso zutenentzat.

Abian da autodefentsa tailerra



JO TA SU BOXING

Jo Ta Su Boxing klubak eta Txosna Batzordeko eragileek elkarlanean antolatuta, emakumeentzako autodefentsa tailerraren lehen saioa egin zuten joan den igandean, uztailaren 12an. Bi orduko saioan hamabi emakumek parte hartu zuten, eta eraso arruntei aurre egiteko oinarrizko teknikak ikasi zituzten. Bigarren saioa uztailaren 26an izango da, 17:00etatik 19:00etara, boxeo klubaren egoitzan: Latzurregi kalea 2.

Eurosurf Junior lehiatzera deitu dute Ugaitz Zenarrutzabeitia

Ugaitz Zenarrutzabeitia Espainiako Surf Selekzioaren deia jaso du, irailaren 21etik urriaren 5era bitartean Bundoranen (Irlanda) jokatzeko den Eurosurf Junior txapelketan lehiatzeko; 18 urtez azpiko gizonezkoen mailan hautatutako hiru surflarrietako bat da debarra.

Txapelketa batean Espainiako selekzioa ordezkatzera deitzen

duten lehen aldia da, eta, aitor-tu duenez, "oso pozik" dago albistearekin: "Espainiako selekziozko kide izateko hautatu ninduten urtarilean, eta horrek, beraz, txapelketaren batean parte hartzeko aukera zabaltzen zidan. Orain, aukeratua izan ostean, halako txapelketa batean aritzeko lehen aldia izango da". Gogotsu begiratzen dio hitzorduari: "Nazioarteko txapelketaren batean ere aritu izan naiz aurretik, baina ez Nazioarteko Surf Elkarteak antolatutako batean".

NIRE USTEZ

Barrena harrotu



ITZIAR ARANA

Ez dakit zuek, baina ni barrena mugituta nabil azkenaldian, euskararen aurkako oldarraldiak tarteko; batetik, administrazioan lan egiteko hizkuntza eskakizunen aurkako epaiak; bestetik, PAU –gure sasoiko selektibitate– dela-eta sortu den harrabotsa. Ez

gaitezen izan sinetsarazi nahi diguten bezain tontolapikoak, eta erabil ditzagun gure esku ditugun giltzak.

Badirudi adimen artifiziale eta sare sozialak gailentzen ari diren sasoi honetan zentzua galtzen hasiak garela. Hori horrela bada, erabil dezagun zentzua eta burua, eta ez fio izan parean/pantailan agertzen zaigun lehen berriaz. Aukeratu kalitatezkoak eta komunitatea

sortzen duten komunikabideak: esku artean duzun hau, adibidez. Non topatuko duzue gure komunitatean egunerokoan interesekoak diren jakin beharreko guztiak helarazten dizkizun astekari gertukoagorik eta hobeagorik? Ibil gaitezen argi eta babestu euskal komunitatea handitzen duen komunikabidea.

Harrotu dezala BARRENAk gure barrena!

"Martxa onean" doaz Kolorez Blai euskal udalekuak, jardueraz betetako egitarauarekin



ZUHATZA-KOLORE ANITZ



NEREA BEDIALAUNETA ALKORTA

Ekainaren 29an abiatutako lehen txanda atzean lagata, aste honetan ekin diote Deban Kolorez Blai udalekuen bigarren hamabostaldiari; guztira, HH4 eta LH6 arteko 129 ume eta 21 begirale ari dira egitasmoan parte hartzen, eta, koordinatzaileen esanetan, "pozik" dabilta partaideak, "martxa onean baitoa dena". Ekintza

ugari egin dituzte orain arte, eta beste hainbeste egiteko asmoz dira uztailaren 24ra bitartean. Ezkerreko irudia hilaren 10ean Gure Zirkua ezagutzera Lekeitiora egin-dako irteerari dagokio; eskuinekoa, berriz, astelehen honetan Luzaro eskolan ateratako talde-argazkia da.

Herritarren eskuzabaltasuna eskertu dute Kooperazio Taldeko kideek

I.A.
"Harrera ona" izan zuen Debako Kooperazio Taldeak joan den asteburuan egindako elkartasun azokak, eta gustura daude antolatzaileak; jendearen eskuabaltasuna nabarmendu dute. "Eskerrak eman nahi dizkiegu, beste behin ere, postura hurbildu eta beste herrialde batzuetako artisau-lanak eta bidezko

merkataritzako elikagaiak erosi zituzten herritarrei. Guztien ekarpena garrantzitsua da", azpimarratu dute boluntarioek. Salmentak ondo joan zirela azaltzearekin batera, azokan bi egunetan lortutako irabaziak Manina herrixkako (Mali) emakumeei laguntzeko proiektu batera bideratuko dituztela gogorarazi dute taldekideek.



Boluntario taldea, asteburuan udaletxe azpian jarritako postuan. KOOPERAZIO TALDEA

Hilaren 24rako Deban odola emateko dei zabala egin dute

Nerea Bedialauneta Alkorta
Uda honetan eman odola, eman bizia lelopean, Debako Odol Emaileen Elkartek beste odol-emate saio bat antolatu du uztailaren 24rako. Ateratzea 16:30etik 20:30era izango da, Ifar kaleko Luzaro ikastetxean.

Ohiko deialdia izatetik urrun, oraingoak garrantzi berezia duela nabarmendu dute Debako elkarteak. Azaldu dutenez, inguruko herrietan azken egunotan egindako saioetan ohi baino parte-hartze apalagoa erregistratu dute. Hori dela eta, deia, herritarrei ez ezik, eskualdeko bizilagun guztiei eta oporrak bertan igarotzen ari direnei ere egin diete: "Udan Debara inguruko jende asko etortzen dela baliatuta, deialdi berezia egin nahi izan dugu".

Antolakuntza-lanak errazteko, aurrez hitzordua eskatu behar da. Bi bide daude horretarako: batetik, hilaren 20tik 22ra, gotatanta.eus webgunean hitzordua erreserbatzeko aukera egongo da; bestetik, 623 91 23 03 telefono zenbakira deituta edo mezua bidalita ere eska daiteke txanda. Kasu horretan, hilaren 23an eta 24an goizez ere izango da horretarako aukera.

ARGAZKI ZAHARRA

Itziarko gaineratik santutegira



ALEX TURRILLAS ARANZETA
DEBAKO KULTUR ELKARTEKO KIDEA

XIX. mendearen amaieran edo XX. mendearen hasieran egindako argazki zahar horrek Itziarko gaina erakusten digu, gaur egun N-634 errepideko biribilgunea dagoen lekua. Bertan, hiru diligentzia gurutzatzen dira, eta jende asko dago haien inguruan bilduta. Herrira igotzen den bidea herrigunerako eta santutegirako sarbide nagusia zen garai hartan, eta gaur egun Donejakue bideko erromesek erabiltzen dute.

Herrigunera eta santutegira Itziarko gaineratik sartzeko gaur egungo errepidea 1928an eraiki zuen Aldundiak, Deba, Azkoitia, Azpeitia, Zestoa, Zumaia eta Mutrikuko alkateek eskatuta, eta Lehen Mailako Auzo-Bide izendatu zuten. Aldundiko ingeniariak berrogei mila pezetan baloratu zuen obra. Ordainketa hiru zati berdinetan egin zen, Diputazioaren, Debako Udalaren eta Itziarko Ama Birjinarekiko debozioa zuen ongile anonimo baten artean. Operazio hartan zerikusi handia izan zuen garai hartan Itziarko parroko zen Francisco Manterola



Odriozolak; gerora egiaztatu bezala, harri azpitik ere atera baitzuen dirua. Bitxia bada ere, kontratuan Aldundiak

zehazten zuen mantentze eta kontserbazio lanak Debako Udalaren ardurapean geratuko zirela.



IRAGARKI SAILKATUAK

LANA
ESKAINTZA

Elgoibar. San Lazaro egoitzarako erizain laguntzailea behar da, opor sasoian ordezkapenak egiteko. Curriculumak egoitzako harreraren entregatu edo dir.elgoibar@bihar-ko.org helbidera bidali behar dira.

Elgoibar. Adineko pertsona bat zaintzeko pertsona behar dugu, 09:30etik 11:00etara eta 19:15etik 19:45era. Egunero behar dituen pilulak eman eta etxea txukun mantendu beharko luke. Titulu soziosanitarioa eskatuko da. Gizarte segurantzaren kontratua eta alta eskaintzen dira. 606 71 56 73

Elgoibar. Mintxetako eta Olaizagako harre-ra-zerbitzuan lan egiteko pertsona bat behar dugu; batez ere, asteburuetarako. Udan asteen zehar ere lan egiteko malgutasuna eskatzen da. 663 45 65 27 / aazpiazu@emtesport.com.

ESKAERAK
Elgoibar. Adinekoak zainduko nituzke. Titulu soziosanitarioa daukat, eta zortzi urte baino gehiagoko esperientzia zaintza lanetan. 631 02 01 69

PARTIKULARRAK

Elgoibar. Ingeniaritza Mekanikoko 3. mailako ikaslea naiz. Datorren ikasturtean DBHko partikularrak emango nituzke. 605 29 47 15 e

Elgoibar. 2. mailako Majisteritzako (Lehen Hezkuntzako) ikaslea naiz. Datorren ikasturtean LHko partikularrak emango nituzke. 691 93 52 94

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN HARTU
Elgoibar. Etxea hartuko nuke alokairuan, Elgoibarren. Epe luzerako. 602 30 40 08

KINTO OSPAKIZUNA

Elgoibar. 1963an jaioetakoen kinto bazkaria, irailaren 19an. 12:00etan Plaza Handian elkartuko dira argazkia ateratzeko, luntxa egingo dute Ibai Ondon, eta 14:45ean bazkaria, Txarridunan. Interesatuak 75 euro ordaindu beharko dituzte, Laboral Kutxan, izen-abizenak zehaztuta: ES35 3035 0007 2100 71147619.

BESTELAKOAK

Elgoibar. Ekainaren 30ean eskumuturreko erlojua galdu nuen, Santa Ana, Trenbide edo Bernardo Ezenarro inguruan. 40 urtean neukan erlojua, eta balio sentimental handikoa da. Norbaitek aurkitu badu, eskertuko nuke deitzea. 688 60 56 06

Iragarki sailkatua argitaratzeko

688 76 96 57
sailkatuak@barrena.eus
www.barrena.eus/sailkatuak

- Asteazkenean 12:00ak aurretik jasotako iragarkiak argitaratuko dira, bi astez.
- Barrenak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik.
- Etxebizitza, garaje edo autoak saltzeko iragarkiak ordainpekoak dira. Prezioa: 10 euro. Argazkiarekin: +5 euro.

ZORION AGURRAK

www.galletiak.com 633 05 04 06

Une gozoetan Galletiak zurekin! Zorionak!



ELGOIBAR
Níle
Zorionak, Níle! Bihar, hilak 18, zure lehen urtebetetzea ospatzeko desiratzen gaude. Asko maite zaitugu!



SORALUZE
Joar
Guretzako zu zara mundiala! Etxekoak.



ELGOIBAR
Mikel
Zorionak, Mikel! Ondo pasa astelehenean! 7 urte jada! Muxu handi bat, familia guztiaren partez. Asko maite zaitugu.



ELGOIBAR
Mae
Zorionak, Mae! Asteartean, zure 6. urtebetetzea! Jarraitu horren irribarretsua eta bihotz onekoa izaten. Muxu handi bat.




SORALUZE
Níle
Zure xamurtasun eta indarrak sorgindu gaitu, laztana! Bizipoza zara! Zorionak, maitia! Etxekoak.



SORALUZE
Igor
Umore biziz eta kresalez ziprztindu duzu Soraluze! Halaxe maite zaitugu! Zorionak, Igor! Etxekoak.



SORALUZE
Xabi
Segi bizipoza zabaltzen inguruko guztiei! San Andresko lagunak.



ELGOIBAR
Alain
Zorionak, Alain! Atzo, 11 urte, eta zein ondo pasatu genuen! Jarraitu horrela. Muxu bat, familiakoen partez.

Zorion-agurra jartzeko bideak

- 'Barrena.eus'-en erabiltzailea sortu eta barrena.eus/zorionagurrak helbidean sartu.
 - Mezua bidali Whatsappez 688 65 56 58 zenbakira edo e-postaz zorionagurrak@barrena.eus. Zehaztu izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna, adina (hautazkoa) eta testua.
 - Etorri edo deitu zure herriko bulegora.
- Epea: asteazkena 12:00ak aurretik



Zorion agurrek saria dute
Barrena-n!

Argitaratzen diren zorion agurren artean
Galle-Tiak Fabrik-eko
produktu pertsonalizatuak
zozkatuko dira astero!

Aste honetako irabazlea: NILE AKARREGI QUINTANILLA

Joan den asteko irabazlea!



MENDARO


Izaskun Araolaza Olarra

Sabino Urbietta Barrenetxearen alarguna.
2026ko uztailaren 10ean hil zen, 90 urte zituela.

*Udako eguzki bueltan
azken zirrara oraindik gertuan,
Izaskun, gurekin beti goguan.*

Etxekoak

Sendiak eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta elizkizunera agertu izana ere.
San Lazaro Egoitzako langileei eskerrik beroenak eman nahi genizkieke
jaso dugun arreta eta maitasunarengatik.



DEBA

Maria Josefa Beristain Elustondo

"Pepita Arriola"
Jose Albisuren alarguna.
2026ko uztailaren 10ean hil zen, 102 urte zituela.

Seme-alabak: Jose Luis eta Maria Isabel.
Laguntzailea: Mila Alba.






Barrena eskelak: zabalkunde handiena Debabarrenean

ESKELAK JARTZEKO:
943 744 112 - barrena@barrena.eus

Bulegoak:
DEBA: Ifar kalea, 12 - 943 191 383
ELGOIBAR: Aita Agirre plaza, 3 - 943 744 112
ERMUA: Erdikokale Zeharbidea, 2 - 943 179 350
SORALUZE: Errabal, 15 - 943 751 304



AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN EGUERDIRAKO.
943 74 41 12 / barrena@barrena.eus

OSTIRALA 17

- **SORALUZE Odol emaileen hitzordua** Itxaropenan, 16:30ean.
- **ITZIAR Frontenis txapelketa** Gaztelekuak antolatuta. Zabalsoro frontoian, 19:00etan.
- **DEBA Iturri ondoan: 'Begiradak' ikuskizuna** Plaza Zaharrean, 22:00etan.
- **DEBA Galerna Festa** Pala eta ping-pong txapelketak. Euskal Jolas frontoian, 17:00etan.
- **SORALUZE Erakusketa: 'Bilduma baten txatalak'** Oreka Art galeriak bere bildumaren zati bat erakutsiko du. Oreka Art galerian, 19:00etan.
- **DEBA Kontzertua: DJ Leo Elektroknubia** Ondargain tabernan, 19:30ean.

LARUNBATA 18

- **DEBA Galerna Festa** 11:00etan, baltsa-jaitsiera –saria moztorro onenari–. Ondoren, karropoteoa. 13:30ean, paella txapelketa. 15:00etan, bazkari autogestionatua. Ondoren, bingo musikatua.

- 19:00etan, Joseto Ta Alayak elektrotxaranga kalez kale.
- **DEBA Boxeo erakustaldia** Jo Ta Su Boxing klubak antolatuta. Aldats pilotalekuan, 18:30ean.
- **ERMUA Disko-festa: 'Mar.isk.al.dejai'** Euskal Birusa Elkarateak antolatutako disko-festa. Orbe Kardinala plazan, 20:30ean.

IGANDEA 19

- **SORALUZE Arrozak kulturarteko topaketa** Pil-pilean euskaltzaileen elkarateak, Auzokok, Zabaltzen-Sartu kooperatiba elkarateak eta Soralezeko Udalak elkarlanean antolatutako ekintza. 11:00etan, kozinatzen hasi, Plaza Zaharrean. 11:00etatik 14:00etara, Bizijolas, jolas askerako gunea, Zubi Nagusian eta Plaza Barrixan. 13:00etan, herriko batukada feministaren kalejira. 13:30ean, arroz dastaketa eta parte-hartzaileen bazkaria.



SORALUZE Motor topaketa

LARUNBATA 18: Motoclub Plaentxik antolatuta, motorzaileen topaketa, itzulia, bazkaria eta trial erakustaldia egingo dituzte herrigunean. 10:00etan, izen-ematea. 11:00etan, itzulia. 12:00etan, poteoa eta txaranga. 14:30ean, bazkaria. 18:00etan, trial erakustaldia.

ASTELEHENA 20

- **SORALUZE Zesta punta ikastaroa** Ordubeteko lau saio. Kiroldegiko frontoian, 16:00etatik 20:00etara.
- **ITZIAR Frontenis txapelketa** Gaztelekuak antolatuta. Zabalsoro frontoian, 19:00etan.

ASTEARTEA 21

- **SORALUZE Zesta punta ikastaroa** Ordubeteko lau saio. Kiroldegiko frontoian, 16:00etatik 20:00etara.
- **ITZIAR Frontenis txapelketa** Gaztelekuak antolatuta. Zabalsoro frontoian, 19:00etan.
- **DEBA Erakusketa: 'Sakona/Lo hondo', Clara Leton Gil** Elizako klaustroan, asteartetik igandera, 17:00etatik 19:00etara, baita eliza irekita dagoen ohiko orduetan ere. Sarrera, doakoa. Uztailaren 31ra arte.

ASTEAZKENA 22

- **DEBA Bisita gidatua: 'Debatik Zumaiara itsasontziz'** Iraupena: ordubete. Beharrezkoak:

jantzi egokiak, eguraldiaren arabera. Prezioa: 16 euro –12 urtetik beherakoentzat, 10 euro–. Erreserbak egiteko: geoparkea.eus. Anes Arrinda pasealekuan (pantalana), 11:30ean.

- **SORALUZE Zesta punta ikastaroa** Ordubeteko lau saio. Kiroldegiko frontoian, 16:00etatik 20:00etara.
- **DEBA Umeen Eguneko danborradarako entsegua** Ifar kaleko Luzaro eskolan, 19:00etan.
- **DEBA Marea Gora hitzaldi zikloa: 'Lo que el mar esconde y nos devuelve: microplásticos y basuras marinas en nuestros ríos y playas'** Hizlaria: Oihane Cabezas. Kultur Elkartean, 19:00etan.
- **DEBA Asteazken akustikoak: Iruzta** Pintxo-potea ere eskainiko dute. Gaztetxean, 20:00etan.

OSTEGUNA 23

- **DEBA Bisita gidatua: 'Debatik Zumaiara itsasontziz'** Iraupena: ordubete. Beharrezkoak: jantzi egokiak, eguraldiaren arabera. Prezioa: 16 euro –12 urtetik beherakoentzat, 10 euro–. Erreserbak



DEBA Binilo-'pintxada' herrikoia eta azoka txikia

LARUNBATA 18: Debako bederatzi disko-jartzaile. Goizeko saioan azoka txikia egongo da –poltsak, kamisetak, zeramika, merchandising-a...–. Ekoizleak: Katxalote, De Barro y Mecate, Garaitz Poltsak, Iskra Selectors, Hecetu Welo. Kultur Elkartean, 12:00etatik 15:00etara eta 19:00etatik 22:30era.

egiteko: geoparkea.eus. Anes Arrinda pasealekuan (pantalana), 12:30ean.

- **MENDARO Frontenis txapelketako finalak** Gazte Asanbladak antolatuta. Frontoian, 18:30ean.
- **ELGOIBAR Isiltasunaren eskola** Jose Cruz Igartuak emango du. Kultur Etxean, 19:00etan.
- **DEBA Kontzertu akustikoa: Edu Zardoya** Punk-rock akustikoa. Sarrera, doan. Kultur Elkartean, 20:00etan.

OSTIRALA 24

- **DEBA Bisita gidatua: 'Debatik Zumaiara itsasontziz'** Iraupena: ordubete. Beharrezkoak: jantzi egokiak, eguraldiaren arabera. Prezioa: 16 euro –12 urtetik beherakoentzat, 10 euro–. Erreserbak egiteko: geoparkea.eus. Anes Arrinda pasealekuan (pantalana), 13:30ean.
- **DEBA Odol ematea** Aurrez txanda eskatzea beharrezkoa da. Horretarako, sartu



MENDARO Bertsotan Gixez bertso-saioa

OSTIRALA 17: Gazte Asanbladak antolatutako udako programaren barruan. Herriko Enparantzan, 20:30ean.



ERMUA Kontzertua: Momak

ASTEAZKENA 22: Euskal Birusa Elkarateak antolatuta, Momak musika taldearen kontzertua, Martxoaren 8a plazan, 20:30ean.



ELGOIBAR Azkueko jaiak, San Roke auzoan

OSTIRALA 24: 17:00etan, kanpaiak eta suziriak. Jarraian, txokolate-jana. 18:00etan, umeen jolasak. Ondoren, orga-joko txapelketa. Saria: afari bat elkartean. 21:00etan, afaria. Ondoren, DJ Arno.

LARUNBATA 25: 17:00etan, kanpaiak eta suziriak. Jarraian, umeentzako puzgarriak. Bitartean, margotzeko txokoa, toka jolasa, sokasalttoa eta txapel jaurtitzea. Jarraian, txinga txapelketa. 21:00etan, afaria. 22:00etan, DJ Sergio. 00:00etan, bolo txapelketa.

gotatanta.eus webgunean edo idatzi 623 91 23 03 telefono zenbakira. Ifar kaleko Luzaro eskolan, 16:30ean.

- ITZIAR Frontenis txapelketa** Gaztelekuak antolatuta. Zabalsoro frontoian, 19:00etan.
- ELGOIBAR Isiltasunaren eskola** Jose Cruz Igartuak emango du. Kultur Etxean, 19:00etan.
- ELGOIBAR Nazioarteko Folklore Jaialdia** Haritz dantza taldeak antolatuta. Maalako parkean, 22:00etan.
- DEBA Iturri ondoan: 'Jo!' umorezko antzerkia** Plaza Zaharrean, 22:00etan.

LARUNBATA 25

- ELGOIBAR Sargoateko erromeria** Erromeria trikitilariekin. 11:00etan, meza. Ondoren, salda eta txorizoa.
- DEBA Kontzertua: Ur** Sarrera, doan. Kultur Elkartean, 13:30ean.
- DEBA Musika bandaren dantzaldia** Foruen plazan, 23:00etan.

IGANDEA 26

- DEBA Bisita gidatua: 'La otra historia de Sasiola'**

- Hizlaria: Alex Turrillas Aranzeta. Gazteleraz. Izen-ematea, doan: 625 70 52 80. Debako Plaza Zaharretik, 10:00etan.
- DEBA Bisita gidatua: 'Debatik Zumaiaara itsasontziz'** Iraupena: ordubete. Beharrezkoak: jantzi egokiak, eguraldiaren arabera. Prezioa: 16 euro –12 urtetik beherakoentzat, 10 euro—. Erreserbak egiteko: *geoparkea.eus*. Anes Arrinda pasealekuan (pantalana), 16:30ean.
 - DEBA Emakumeentzako autodefentsa tailerra** Jo Ta Su Boxingek antolatuta, Txosna Batzordeko eragileekin elkarlanean. Jo Ta Su Boxingen lokalean: Latsurregi kalea 2. 17:00etan.
 - DEBA Kontzertua: Bertako uzta Jazzez Blai** Debako eta inguruko jazz musikariekin. Sarrera doan. Kultur Elkartean, 19:00etan.

ASTELEHENA 27

- ITZIAR Frontenis txapelketa** Gaztelekuak antolatuta. Zabalsoro frontoian, 19:00etan.

ASTEARTEA 28

- DEBA Bisita gidatua: 'Debatik Zumaiaara itsasontziz'** Iraupena: ordubete. Beharrezkoak: jantzi egokiak, eguraldiaren arabera. Prezioa: 16 euro –12 urtetik beherakoentzat, 10 euro—. Erreserbak egiteko: *geoparkea.eus*.



ITZIAR Bisita gidatua: 'Lastur familian'

LARUNBATA 25: Iraupena: ordu eta erdi. Beharrezkoak: jantzi eta oinetako egokiak. Prezioa: 10 euro –12 urtetik beherakoentzat, 5 euro—. Erreserbak egiteko: *geoparkea.eus*. Irteera puntua: San Nikolas plazan, 11:00etan.

Anes Arrinda pasealekuan (pantalana), 17:30ean.

- ITZIAR Frontenis txapelketa** Gaztelekuak antolatuta. Zabalsoro frontoian, 19:00etan.

ASTEAZKENA 29

- DEBA Umeen Eguneko danborradarako entsegua** Ifar kaleko Luzaro eskolan, 19:00etan.
- DEBA Asteazken akustikoak: Lauterdi** Pintxo-potea ere eskainiko dute. Gaztetxean, 20:00etan.

OSTEGUNA 30

- DEBA Bisita gidatua: 'Debatik Zumaiaara itsasontziz'** Iraupena: ordubete. Beharrezkoak: jantzi egokiak, eguraldiaren arabera. Prezioa: 16 euro –12 urtetik beherakoentzat, 10 euro—. Erreserbak egiteko: *geoparkea.eus*.
- DEBA Asteazken akustikoak: Lauterdi** Pintxo-potea ere eskainiko dute. Gaztetxean, 20:00etan.

GUARDIAKO FARMAZIAK	
17 BARIKUA Fernandez / Lasuen-Elezgaray / I. Lecumberri	
18 ZAPATUA Yudego / Lasuen-Elezgaray / A. alcala	
19 DOMEKA Yudego / Lasuen-Elezgaray / A. alcala	
20 ASTELEHENA Oruesagasti / A. Zalduegi / I. Ugarte	
21 MARTITZENA Barrenetxea / A. Zalduegi / A. M. Baz	
22 EGUAZTENA Soto / A. Zalduegi / M. Alves	
23 EGUENA Fernandez / A. Zalduegi / I. Lecumberri	
24 BARIKUA Arriola / H. Burgoa / A. alcala	
25 ZAPATUA Barrenetxea / H. Burgoa / I. Lecumberri	
26 DOMEKA Fernandez / H. Burgoa / I. Ugarte	
27 ASTELEHENA Arriola / Lasuen-Elezgaray / I. Ugarte	
28 MARTITZENA Oruesagasti / Lasuen-Elezgaray / M. Alves	
29 EGUAZTENA Barrenetxea / Lasuen-Elezgaray / I. Lecumberri	
30 EGUENA Soto / Lasuen-Elezgaray / A. alcala	

2026ko botika ordutegiak, astelehenetik ostiralera:
Deba: 09:00-13:45 / 16:30-19:30
Elgoibar-Mendaro-Soraluze: 09:00-13:00 / 16:00-20:00
Ermua-Mallabia: 09:00-13:30 / 16:30-20:00
Mutriku: 09:00-13:30 / 16:45-20:00
Itziarko botikina: 09:00-12:30

GUARDIA ORDUTEGIAK
Egunez: 09:00-22:00
Gauetz: 22:00-09:00
Eibarren urte guztian, egunero: Elortza (Juan Gisasola, 18-Eibar. 943 20 61 00)
Larunbatak:
Elgoibar-Mendaro-Soraluze: 09:00-14:00
Deba-Mutriku: 09:30-13:00
Ermua-Mallabia: 09:00-13:30
Igandeak eta jaiegunak: Deba-Mutriku: 11:00-13:00

FARMAZIAK	
DEBA A. ZALDUEGI: Lersundi, 20 - 669 26 22 01	
DEBA H. BURGOA: Astillero, 2 - 667 33 88 90	
ELGOIBAR ARRIOLA: Santa Ana, 1- 943 74 01 40	
ELGOIBAR BARRENETXEA: Errosario, 26 - 943 74 12 77	
ELGOIBAR GARITAONANDIA: Uparitzaga, 5 - 943 74 11 77	
ELGOIBAR YUDEGO: San Frantzisko, 18 - 943 74 12 93	
ERMUA A.M. BAZ: Zearkale 2 - 943 03 17 03	
ERMUA M. ALVES: Gipuzkoa etorbidea, 46 - 943 17 26 66	
ERMUA A. ALCALA: Zubiaurre, 29 - 943 17 17 54	
ERMUA I. LECUMBERRI: Zubiaurre, 9 - 943 17 00 97	
ERMUA M.I. UGARTE: Goienkale, 11 - 943 17 05 26	
MALLABIA E. ARRONATEGI: Mallazpi z/g - 943 17 24 14	
MENDARO FERNANDEZ: Herriko Enparantza, 4 Garagartza - 943 75 61 42	
MUTRIKU LASUEN-ELEZGARAY: Txurruka Tenienteak, 3 - 626 61 13 92	
MUTRIKU L. APRAIZ: Erdiko kalea, 5 - 630 05 50 97	
SORALUZE SOTO: Rekalde, 1 - 943 75 16 38	
SORALUZE ORUESAGASTI: Kalebarren, 9 - 943 75 13 84	

ZINEMA	
EIBAR	DEBA
COLISEO ANTZOKIA	ZUMARDIKO KIOSKOAN (Aire libreko zinema)
'La Odisea'	'Maspalomas'
Ostirala, 17: 20:00.	Asteazkena, 29: 22:00
Larunbata, 18: 17:00, 19:45.	
Igandea, 19: 16:30, 20:00.	
Astelehena, 20: 19:30.	
'Cosas que no olvidaré'	ELGOIBAR
Ostirala, 17: 20:00.	KALEGOEN PLAZA (Aire libreko zinema)
Larunbata, 18: 17:00, 19:45, 22:30.	'Los futbolisimos 2'
Igandea, 19: 17:00, 20:00.	Ostirala, 17: 22:30
Astelehena, 20: 19:30.	'Mary Anning y la playa de los dinosaurios'
'La muerte de Robin Hood'	Larunbata, 18: 22:30
Ostirala, 17: 20:00.	
Larunbata, 18: 22:30.	
Igandea, 19: 20:00.	
Astelehena, 20: 19:30.	
'Gurenagi familiaren errezetak'	
Larunbata, 18: 17:00.	
Igandea, 19: 17:00.	



AZKEN BERBA

Foruak eta euskara



AMATIÑO

Datorren asteartean, uztailaren 21ean, 50 urte Bergaran bildu ginela, "Foruen bihurrera" eta "euskararen ofizialtasuna" aldarrikatzeko. 100 urte lehenago galduak ziren foruak eta geroztik nolabait berreskuratuak, haien espirituari eta muinari dagozkien autonomia eta kontzertu ekonomikoak tarteko.

Ez da erraza foruak zer diren ehun hitzetan azaltzea. Baina, 1833an, Espainiaren administrazioa 50 probintzietan banatu zenean, denek, lauk izan ezik, euren hiriburuaren izena hartu zuten. Arabak, Bizkaiak, Gipuzkoak eta Nafarroak ez, ordea, euren izen historikoaren jabe zirelako.

140 urte geroago, Espainiako Konstituzioak laurak aipatzen ditu, kontzertu ekonomikoak dituzten laurak. Zergatik bereizten ote diren laurak besteengandik? Erantzun erraza, lauron ardatza XIX. mendean kendutako foruen lekukoa delako.

Badago, nolabaiteko modernitatearen izenean, foruak antzinako kontu zahartzat jotzeko tentazioa. Berritzekoa dena berritu, baina ez gero ahaztu lau lurraldeen izena eta izana foruetan oinarritzen dela.

Forurik eta euskararik gabe ez gara ezer.

BUKATZEKO

"Gazteentzako euskarazko abenturak beharrezkoak dira"

JULEN LAHOZ EUSKARABENTURAKO DEBABARRENEKO KIDEA

Ainhua Andonegi ELGOIBAR

Euskarabenturak sorreratik izan du helburu gazteen euskararen erabilera eragitea. Zortzigarren edizioa du aurtengoa, eta Euskal Herriko eta diasporako 130 gazte ari dira parte hartzen; tartean, Debabarreneko ordezkari bat: Julen Lahoz Iribarren elgoibartarra.

Nola animatu zara Euskarabenturan izena ematera?

Iazko edizioan bi lagunek hartu zuten parte. Oso ondo hitz egin zidaten espedizioari buruz, eta informazio bila hasi nintzen. Interesgarria iruditu zitzaidan, eta, nire balioekin bat zetorrenez, probatzea erabaki nuen.

Aukeratua izateko lan bat aurkeztu behar izaten da. Zeri buruzkoa egin zenuen?

Hiru gai zeuden aukeran, eta nik euskalduntasuna zer den azaltzea erabaki nuen. Bederratz bertsoan egin nuen lana.

Eta zer da euskalduntasuna?

Euskaraz mintzatzeko eta bizitzeko nahia izatea da, nire ustez, euskalduntasuna; hizkuntzarekiko eta kulturarekiko maitasun moduko bat izatea. Tamalez, gaur egun oraindik zaila da hori zona batzuetan. Ni euskaraz bizi naiz. Familia erdia Zaragozakoak daukat, baina, hala ere, ahal dudana guztietan euskaraz egiten dut, bai senideekin baita lagunekin ere. Abentura honek erakutsi dit Euskal Herriko gazte asko ezin direla euskaraz bizi.



Julen Lahoz. EUSKARABENTURA

Zer eman dizu espedizioak bi asteotan?

Hainbat gairi buruzko informazioa jaso dugu, eta Euskal Herriak bizi duen egoera linguistikoa ezagutzeko aukera ere eman dit. Ikusi dugu zein den egungo errealitatea, eta konturatu gara Euskal Herriko txoko askotan euskaraz bizitzeko zailtasun handiak dituztela. Horrekin jabetu naiz zein pribilegiatuak garen beste asko. Horrez gain, lagun asko egin ditut, Euskal Herriko leku askotakoak, eta euskalkiak ezagutzeko aukera izan dut. Nik elgoibartarrez egiten dut, eta asko harritu egiten dira asteoko egunak bizkaitarrez esaten ditudanean; arraroa begitantzen zaie bi euskalki nahastea, baina ondo ulertzen didate. Niri Baztango euskarak eman dit atentzia, eta desberdinena Iparraldekoa iruditu zait. Aben-

tura oso aberatsa eta positiboa izaten ari da; izan ere, hona etorri garen guztiok lagun berriak egiteko asmoz etorri gara, sare euskalduna sortzeko, eta oso erraz egiten dira lagunak. Abentura oso gomendagarria da. Erdia egin dut, eta dagoeneko esan dezaket merezi izan duela; kristoren esperientzia da. Begiraleak ere oso jatorrak dira eta une oro saiatzen dira gu eroso egon gaitezen.

Hilabete irauten du abenturak. Azalduko diguzu zein den funtzionamendua?

"Abenturaren erdia egin dut, eta dagoeneko esan dezaket merezi izan duela"

Uztailaren 1ean hasi genuen abentura, Atharratzen, eta hila- ren 31n amaituko dugu, Getxon. Euskal Herriko zazpi probintziak zeharkatuko ditugu, hilabetean zehar. Etapa gehienak oinez egiten ditugu, eta tarte batzuetan autobusez joaten gara. Etapak hogeit bat kilometroak izaten dira. Hiru talde egiten dituzte, eta bakoitza erritmo batean joaten da. Politak izaten da herrietara iristen garen momentua. 130 gazte, kamiseta laranja jantzita, denok euskaraz... Iruñera sanferminetan iritsi ginen eta harrera polita egin ziguten. Gazte batzuk beren herrietatik ere pasatzen dira, eta hori polita izaten da. Debatik ere pasatuko gara, etxetik gertu. Agian, azalduko da etxekoren bat. Aurreko astean, familien eguna izan genuen, eta Gasteizen arratsaldea libre eman ziguten senideekin egoteko. Ondo egon zen.

Jzioquitarrak deitzen dizuete partaideei. Zer esan nahi du?

Euskara zaharretik datorren hitza da. *Jzioqui dugu* esamol- detik dator, *lortuko dugu* esan nahi du.

Eta, lortuko al dugu euskararen egoera hobetzea?

Espero dut baietz! Asmo horrekin etorri naiz ni hona. Horrelako ekimenak oso garrantzitsuak dira. Euskarak gazteak behar ditu, eta gazteentzako euskarazko abenturak beharrezkoak dira. Askotan, uste dut ez garela kontziente, ez dakigu euskarak zer egoera bizi duen, eta horretaz jabetzeko ezinbestekoak dira horrelakoak. Gure hizkuntza da euskara, eta, beraz, oso argi eduki behar dugu ez badugu erabiltzen galdu egingo dela. Alegia, denon artean sustatu behar dugu euskara.

Barrena taldeko irabazlea: Esther Bilbatua (Eibar)

Saria: Yurrita arrain kontserben produktu sorta